
Indarkeria matxistaren biktimak erreparatzeko tokiko ekintzak

**Udalerrietan erreparazio-printzipioa
aplikatzeko gida didaktikoa**



/ Aurkibidea

Aurkezpen instituzionala	4
Sarrera	6
Gidaren helburua	7
Prozesua eta metodologia	8
1^a atala/ Araudia eta terminologia	9
1/ Zer arau eta gomendio hartu behar dira kontuan?	18
1 /Nazioartea	18
2 / Estatukoak	24
3/ Autonomia erkidegokoak	28
2/ Zer kontzeptu hartu behar dira abiapuntu gisa?	31
1/ Emakumeen aurkako indarkeria matxista: definizioak	32
2/ Emakumeen aurkako indarkeria matxista: mailak	35
3/ Emakumeen aurkako indarkeria matxista: moduak eta esparruak	39
4/ Biktimak eta bizirauleak: definizioa eta motak	41
2^a atala/Erreparazio printzipioa	49
1/ Zer da erreparazio-printzipioa?	55
1/ Definizioa eta ezaugarriak	55
2/ Kalteak erreparatzeko esku hartzea	61
2/ Zer esparrutan aplikatu daitezke erreparazioa?	64
1/ Esku-hartze mailak	64
1.1/ Esku-hartze indibiduala	65
1.2/ Esku-hartze kolektiboa eta komunitarioa	66
1.3/ Esku-hartze publikoa	67

2/ Kalteak erreparatzeko esku-hartzearen ezaugarriak: erreparazio motak	68
2.1/ Esparruan bertan oinarritutako indarkeria matxistaren biktimekin esku- hartzea.	70
2.1.1/ Erreparazio soziala eta sinbolikoa	70
2.1.2/ Erreparazio ekonomikoa / ondarezkoa	72
2.1.3/ Erreparazio judiziala	73
2.2. Indarkeri matxistaren biktima mota zehatzekin esku hartzea.	80
2.2.1/ Sexu-indarkeriaren biktimen erreparazioa	80
2.2.2/ Adingabe biktimen erreparazioa. Indarkeria sexualen biktima adingabeak	85
2.2.3/ Jazarpen sexuak eta sexuaren araberako biktimei erreparazio lan esparruan	90
2.2.4/ Solerosketaren biktima izan diren emakumeen erreparazioa	94
2.2.5/ Genitalen mutilazioaren eta ezkontza behartuen biktima izan diren emakumeen erreparazioa	97
2.2.6. Biziraule diren beste biktima batzuen erreparazioa	99

3 atala/ Erreparazio printzipioaren aplikazioa. Udal aktuazioetan barne hartzea	103
1/ Zer betebeharrak dituzte estatuak eta toki-administrazioek erreparazio-printzipioa aplikatzean?	109
2/ Nola txertatu erreparazio-printzipioa tokiko ekintzetan?	115
1. Gomendio orokorrak	115

2/ Udalen esku-hartzean erreparazio-printzipioa garatzeko jarraibideak	116
3/ Berdintasun zenbitzu eta zailen zeregina udal esparruan erreparazio printzipioa barne hartzeko	121
4/ Udalen jardunbide egokiak	125
4.1/ Plan, protokolo eta ordenantzekin erlazonatutakoak	125
4.2/ Laguntza-zerbitzuak zabaltzearekin erlazonatutakoak	141
4.3/ Emakume biktimen edo bizirik ateratakoen elkarteei laguntzearekin erlazonatutakoak	143
4.4/ Onarpen sozialarekin erlazonatutakoak	145
4.5/ Eae kanpoko esperientziak	147
4.5.1/ Madrileko udala	147
4.5.2/ La casa malva. Asturiasko printzerria	150
4.5.3/ Bartzelonako udala: indarkeria matxistaren biktimei arreta eta harrera emateko eta biktimak suspertzeko zerbitzua (sara). Bartzelona indarkeria matxistaren aurka zirkuitua.	153
4.5.4/ Beste esperientzia batzuk	156
4 atala/ Bibliografia, webgrafia eta eranskinak	163
1. Bibliografia eta webgrafia	164
2. Eranskinak	168
2.1/ Eztabaida eta hausnarketarako gaiak	168
2.2/ Taulak	173
2.3/ Fitxak	181
2.4/ Erreferentziako dokumentuak	186

/ Aurkezpen instituzionala

/ **EUDEL**-Euskadiko Udalen Elkarateak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta genero-indarkeriaren biktimen egoera hobetzeko hartu duen konpromisoa betetze aldera, gida hau argitaratu du **EMAKUNDE**-Emakumearen Euskal Erakundearen babes instituzionalarekin. Gida honen helburua da baliabide tekniko gehiago eskaintzea udal eta mankomunitateei, erreparazio-printzipioa aplikatuz biktimen egoera hobetzeko. Printzipio horrek biktimen eskubideak jartzen ditu arreta-prozesu osoaren erdian, eta haien behar eta eskaerei entzun eta erantzuten die. Delitua aztertzea eta hari jazartzea zeregin horiez arduratzen direnen lana izango da, baina, beren lana egin bitartean, erreparazio-arreta ematea lehen eta bigarren mailetako erakundeei dagokie.

Gida hau prestatzeko, indarkeria matxistari buruzko arau-esparrua (arau eta gomendioen multzoa) hartu da kontuan, bai Europakoa, bai Estatukoa, baita Autonomia Erkidegokoa ere; horrez gain, feminismoak erreparazio-printzipioa aplikatzeari dagokionez egin dituen ekarpenak aztertu dira, baita azken urteetan euskal udal batzuk martxan jartzen ari diren ekimenak ere.

Argitalpen hau Berdinsarearen barruan prestatu da. Berdinsarea Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea da; 2006an sortu zen, eta, gaur egun, 69 udalerririk osatzen dute. Hainbat udalerritako berdintasun-sailekin eta Berdinbidean sareko udalerririk txikitako ordezkariekin batera luzarotan

/ Indarkeria matxistaren biktimekin lan egiteko prozesuak fase guztietan izan behar du kontuan erreparazio-printzipioa, maila guztietako hainbat araudik eta gomendiok dioten bezala. Hori dela eta, Berdinsareak, Emakunderen babes instituzionalarekin batera, beharrezkotzat jo du erreparazio-printzipioa politika publikoetan txertatzea eta emakume biktimen eta biziraule direnen interesak gainetik jartzea esku hartzeko prozesuko fase guztietan. Ikuspegi hori ulertu, zehaztu eta txertatzeko zereginak ahalegin bat egitea dakar, baita ikuspegi feministatik eman nahi zaion esanahia berrikustea ere.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistak larriki urratzen ditu oinarrizko giza eskubideak, eta, gaur egun, arazo larria da; hain larria, ezen lehen mailako arazo politiko eta osasun publikoko arazo bihurtu baita. Hala ere, gizartearen gehiengoak ez du ikuspegi hori, eta, ondorioz, ez zaio arreta ematen beste era batzuetako indarkeriari, ezta biktimen erreparazioak eta onarpenak kasu guztietan esan nahi lukeenari ere.

Nahiz eta azken urteetan nazioarteko arauak esan duten generoan oinarrituta dagoen emakumeen aurkako indarkeriak giza eskubideak urratzen dituela eta, horri esker, aurrera egin den arlo honetan dituzten eskubideak aitortzeko prozesuan (biktimak eskubideen titularrak dira), ikuspegi hori oraindik ez da behar adina garatu instantzia exekutibo, judizial eta akademikoetan. Estatuak, ezinbestean, biktimen eskubideak errespetatzen direla bermatu behar dute. Izan ere, erakunde publikoek nahitaez bermatu behar diete emakumeei beren beharrak erreparatuko

zaizkiela, epe motz, ertain eta luzera; beraz, udalek emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko politikak prestatzen egiten duten lana funtsezkoa da (eta hala izan da orain arte ere) ekintzak garatzeko, bai prebentziokoak, bai arretakoak.

Gidaren helburua

Gida honen helburu orokorra da euskal udalerriek indarkeria matxistaren biktimak erreparatzeko printzipioa ezagutu eta eztabaidatu dezaten eta prebentzioko eta esku-hartzeko beren politiketan txerta dezaten lortzea, baita era guztietako indarkeria matxistaren biktimei arreta eman diezaieten ere.

Horretarako, hauek egin nahi ditu gidak:

- Indarrean dagoen arau-esparrutik erreparazio-printzipioa ezagutzen eta harekiko sentsibilizatzen lagundu.
- Euskal udalerriei erakutsi nola txerta dezaketen printzipio hori beren jardun-eremuan, toki-erakunde bakoitzean dauden baliabide eta gaitasunak kontuan izanda.

Prozesua eta metodologia

Gida egiteko, lan-saio batzuk egin dira berdintasun-politiken arloko eta, bereziki, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko ibilbidea, esperientzia eta ezagutza duten hainbat udalerritako berdintasuneko teknikariek eta Indarkeria Batzordearekin, zeina Eudeleko eta Emakundeko ordezkariekin batera Berdinsarea sarera atxikita dauden udalerritako berdintasuneko teknikariek osatzen baitute. Saio horietan, parte hartu duten erakundeen esku hartzeko metodologiak partekatu dira, baita hobetzeko proposamenak ere, haien esperientzietan oinarrituta.

Esperientziak trukatzeko saio bat egin zen, eta, saio hartan, Gasteizko, Basauriko eta Andoaingo udalek eta Durangaldeako eta Uribe Kostako mankomunitateek erreparazioaren arloan zer lan egin zuten ikusi ahal izan zen. Bestalde, lurralde historikoetako bakoitzean egindako saioen bidez, Berdinbidean sareko udalerritako txikitako teknikari eta politikarien esperientziak eta zalantzak bildu dira.

Azkenik, gidaren zirriborro bat aurkeztu zaie Emakunderi eta indarkeria matxistaren gaiaz arduratzen den Berdinsarea sareko Batzordeari, begiratu zezaten. Prozesu horretan jaso ditugun ekarpen guztiak gidan sartu dira, osoagoa eta baliagarriagoa izan dadin.

1 atala

**/ Araudia eta
terminologia**



1A/

/ Araudia eta terminologia

/Emakumeen aurakako indarkeria matxista, esparru pribatuko arazo izatetik Giza Eskubideen urraketa bezala aintzakotzat hartzera eta emakumeen kontrako diskriminazio bezala ulertzera pasa da. Honela adierazten du, 2011ko maiatzaren 11ko emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren kontrako prebentzio eta borrokarako Europar Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbuleko Protokoloa) eta 2014ko ekainaren 6an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, non beste alderdi batzuen artean indarkeria honen egiturazko izaera azpimarratzen den:

“Reconociendo que la violencia contra la mujer es una manifestación de desequilibrio histórico entre la mujer y el hombre que ha llevado a la dominación y a la discriminación de la mujer por el hombre, privando así a la mujer de su plena emancipación;

Reconociendo que la naturaleza estructural de la violencia contra la mujer está basada en el género, y que la violencia contra la mujer es uno de los mecanismos sociales cruciales por los que se mantiene a las mujeres en una posición de subordinación con respecto a los hombres”.

Ikuspuntuak pixkanaka aldatu dira, eta aldaketa horretan mugimendu feministek funtsezko paper bat izan dute. Aldaketaren ondorioz, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko araudiak eguneratu egin behar izan dira. Gizartearen sentsibilizazioaren eraginez, legedia gero eta espezifikoagoa da, eta emakumeek jasan ditzaketan indarkeria-



motak kontuan hartu dira. Esate baterako, abusu fisiko eta psikologiko jarraituak (sexualak barne) nahiko normalizatuta zeuden ezkontideen artean duela ez hainbeste denbora arte, eta ez ziren delitu gisa hartzen. Abusu horiek delitutzat jotzea pentsaezina zen duela zenbait hamarkada, gizonak emakumearen gaineko boterea baitzuen bikote-harremanetan.

Xehetasun bat azaltzearren, 1989an Zigor Kodea (aurrerantzean, ZK) aldatu zenean aldatu zen IX. tituluaren izena, eta Zintzotasunaren aurkako delituak izatetik Sexu-askatasunaren aurkako delituak izatera pasatu ziren. Orduan jaso zen lehen aldiz “larteria”ren suposizioa ere.

Delitutzat jo daitekeenari buruzko ikuspegi desberdinen adibide gisa, eta gaur egun emakumeen eskubide-urraketatzat aitortzen dena kontuan hartuta, gaur egun indarrean den eta 1995ean indarrean sartu zen Zigor Kodearen aurrekoak daude (zenbait alditan aldatu da orduz geroztik). “Evolución legislativa de la violencia de género desde el punto de vista médico-legal en el marco normativo internacional y nacional”¹,

1/ Mercedes Martínez León eta beste zenbait: “Evolución legislativa de la violencia de género desde el punto de vista médico-legal en el marco normativo internacional y nacional”. Revista de la Escuela de Medicina Legal. 2010.

artikuluari jasotzen denez, alde batetik, “emakumezkoekiko mespretxua”² larrigarritzat jotzen zen 1822ko ZKtik (1983ko aldaketara arte mantendu zen), baina, bestalde, adulterioan harrapatzen bazen emaztea, sei urte bitarteko kartzela-zigorra izan zezakeen. Ez zegoen antzeko araurik gizonezkoak adulterioan harrapatzen zirenerako; kasu horretan, egitate horri ohaidetza esaten zitzaion, egiten duenaren sexuak egitatearen izaera aldatuko balu bezala. Gainera, senarrak emaztea eta haren maitalea adulterioan harrapatu eta bietako bat (edo biak) hilko balu edo lesio larriak eragingo balizkio, desterrura bakarrik kondenatzen zuten; eta lesio arinak eraginez gero, ez zuten inolako zigorrik izaten (1962 arteko ZK).

Hori guztia kontuan izanda, emakumeenganako jarrera paternalista bat ikusten da alde batetik (emakumezkoekiko mespretxuaren figura penala); eta, beste alde batetik, diskriminazio nabari bat, egitate bera delitutzat hartzen zelako edo ez, nork egiten zuen kontuan izanda, emakumeak edo gizonak. Bi kasuetan ikusten da gizarte patriarkalak eragina duela zigor-arloko legegintzan ere, arau horiek gizonezkoek edo emakumezkoek aplikatzearen eraginak desberdinak baitira; izan ere, emakumeak diskriminatu egiten dira.

²/Mercedes Martínez León eta beste zenbait: “Evolución legislativa de la violencia de género desde el punto de vista médico-legal en el marco normativo internacional y nacional”. Revista de la Escuela de Medicina Legal. 2010.

Tratu txar eta lesioei dagokienez, ez ziren ZKn tipifikatu 1989ko aldaketara arte, zeinean lesio-delituei buruzko titulu bat eta delituak zigortzeko aurreikuspen espezifikoko bat gehitu baitziren. Hurrengo aldaketetan, eta, bereziki ZK 1978ko Konstituzioko irizpenetara egokitzeko, ikuspegi matxista desagerrarazteko ahaleginak egin dira, gizarteak unean-unean eskatu duenera egokituta.

Beraz, giza eskubideekiko errespetuarekin eta haiek ez urratzearekin bat datozen sentsibilitate berriek eragiten dituzten legeek eta aldaketa sozialek etengabe eragiten diote elkarri. Batzuetan, legeek eragiten dituzte aldaketak, gizarteek beharrezkotzat jotzen dutena aintzat hartuta (esate baterako, genero-indarkeriaren errealitatearen eta berdintasunaren printzipioaren ingurukoa); eta, beste batzuetan, herritarrek modu argian eta irmo eskatzen dute legeak aldatzeko (adibidez, abusuak eta sexu-erasoak).

Baina ez da nahikoa generoaren ikuspegia arau berriak landu eta onestean eta lehendik dauden arauak egokitzean aplikatzea: epaileek ere aparteko ahalegina egin behar dute arau horiek guztiak generoaren ikuspegitik interpretatzeko. Zertarako aldatu, landu eta onetsi behar dira legeak egungo garaiarekin eta eskaerekin bat, legeak interpretatzeko metodoak diseinatzen dituztenek –legeen irakurketa egiten dutenean– eta kasu bakoitzean legeak aplikatzen dituztenek uzten dituzten zirrikituetatik lege horien helburuek alde egin badezakete? XIX. mendearen erdialdean, legegilearen borondatearen teoria nagusitu zen. Teoria haren arabera, legeak interpretatu behar ziren lege haiek ezarri zituenak une hartan



zuen borondatearen edo asmoaren arabera. XX. mendean, interpretazio objektiboaren teoria sortu zen; hau da, legea interpretatu behar da aplikatzen den unean eta egoeretan duen zentzuaren arabera, eta ez lege horiek ezarri ziren uneko ikuspegia kontuan izanda. Interpretatzeko modu dinamiko bat da hori, araua une bakoitzeko egoeretara eta gizartearen beharretara egokitzea dakarrelako; zoritxarrez, indarkeria matxistaren inguruan hartu diren erabaki judizial batzuk ikusita, bistan dago teoria hori ez dela aplikatzen kasu guztietan.

Beraz, ezinbestekoa da, halaber, generoaren irakurketa bat sartzea Legean, gaur egungo errealitate sozialera egokitzeko. Bestela, biktima zalantzan jartzen jarraituko da, eta erasotzailearen ekintzen larritasuna arinduko da, orain arte bezala gehiegitan jotzen bada emakumeak bere jarrerarekin eragiten dituela gizonezkoen jokabide jakin batzuk, zeinetan ezin baitute ia ezer egin, edo ezer ere ez, gizonezkoen izaera berezi baten aitzakian. Emakumeen jarrera horiek probokatzaile eta/edo desafiatzaile gisa ikusten dira, eta epaile askorentzat (eta gizartearen parte batentzat) sexu-erasoen erantzuleak dira, eta, beraz, eraso horiek justifikatzen dituzte. Baina ez eraso horiek bakarrik; emakumeek hainbat esparrutan jasan ditzaketen bestelako indarkeria matxistak ere justifikatzen dituzte.

Bestalde, aldatutako arauetan tratu txarrak jasan dituzten emakumeen seme-alabak ere biktimatzat hartzen diren arren, une honetan jurisprudenzian bereizi egiten da tratu txarren emalea izatea eta aita on bat izatea; ondorioz, aita on horiei ezin zaie ukatu seme-alabak

ikusteko eskubidea , amak ohartarazi arren arrisku larrian daudela. Gizartea aldaketak eskatzen ari da, familia-epaitegietan oro har ez dagoelako kontzientziaziorik indarkeria matxistak adingabekoei eragin diezaiekeenaren inguruan. Gero eta eragile gehiagok esku hartzen du emakume biktimekin eta haien kargura dauden adingabekoekin (haiek ere biktimak dira), eta esateko dutena aldarrikatzen ari dira.

Arau-aldaketez gainera, **terminologiak** edo emakumeen aurkako indarkeria izendatzeko moduak ere aldaketak izan ditu azken hamarkadetan. Gizartearen aldaketen eta agertoki berrien ondoren, eta aurreiritzi sozialak zirela-eta ezkutuan zeudenak ikusgai egin ondoren, errealitateak izendatzeko moduak zehaztu behar dira.

Termino bat edo beste erabiltzea komenigarriagoa izatearen inguruko eztabaidei esker, gogoeta egiten da, eta gogoeta horietatik beste termino batzuk aterako dira; hala, azterketa horiek bizia hartzen dute, eta pentsamenduz, teoriak eta termino berriz osatutako espiral bat eratzen da, zeina garai eta egoera bakoitzera moldatzen baita. Baina dinamika horretan erritmo desberdinak izaten direnez, batzuetan koherentzia falta izaten da araudien artean; bai eta alderdi garrantzitsuetan ere, besteak beste, biktimatzat **nor** hartu behar den argitu behar denean.

Zentzu honetan, estatu mailan, abenduaren 28ko 1/2004 Legen Organikoak, genero indarkeriaren biktimatzat aintzat hartzen ditu, bikotekideak edo bikotekide ohiarengandik erasotuak diren emakumeak

nahiz eta elkarbizitarik ez izan. Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ordea, emakumeen aurkako biolentzia emakume orok, emakume izateagatik jasandako eraso fisiko, psikologiko, sexual eta sinbolikoa barne hartzen ditu bai esparru publiko zein pribatuan. Lege estatalarekin alderatuz, lege autonomikoaren kontzeptualizazioak **esparru eta forma zabalagoa barne hartzen ditu**, Istanbulko Hitzarmenarekin neurri handiagoan bat eginez.

Azken urteotan, eztabaidatu da egokia ote den ala ez kasu bakoitzean helarazi nahi den indarkeria kontzeptua hobeto azalduko duten terminoak aldatzea edo gehitzea. Definizio horietako bat baino gehiago erabiltzen dira gaur egun, eta, zer nabarmendu nahi den, batzuk egokiagoak dira besteak baino.

Era berean, biktima terminoa ere aldatuz joan da testuinguru horretan, bai gizartean, bai alderdi juridikoan, baina aldaketa horien erritmoa desberdina izan da. Mugimendu feministak ere ekarpen garrantzitsuak egin ditu, eta hainbat genero-identitate eta sexu-aukera ere indarkeria matxistaren biktimatzat hartu ahal izateko aukera ekarri dute.

Ondorio gisa:

- Oro har emakumeen aurkako indarkeriatzat jo behar denaren inguruko definizioak eta, ondorioz, emakume bat biktimatzat jotzea unean uneko testuinguru sozial eta kulturalaren mende dago; hau da, tokia eta denbora aldagaiak sartzen dira.



• Legeak aldatu egiten dira aldaketa sozialetara egokitzeko, baina beti ez dute jarraitzen haien erritmoa. Oro har, mugimendu sozialek egiten duten presioaren ondorioz aldatzen dira arauak. Alderdi juridikoa eta soziala bat ez datozen une horietan, araua oraindik aldatu (edo sortu) ez denean gizartearen eskakizunen ondorioz, baliteke legeen aplikazioa ez izatea justua herritarrentzat (justizia formala vs justizia erreala).

• Arau-aldaketak (lantzea eta promulgatzea) gizartearen errealitate eta beharretara doitzen joan arren, beharrezkoa da arau horiek interpretatzen dituztenek genero-ikuspegia izatea kontuan, eta estereotipoen eragina alde batera uztea; bestela, ezingo da bermatu justizia erreal bat izatea, eta, are gutxiago, erreparazioko esku-hartzeak egitea.

• Legedia desberdinen arteko koherentzia falta ezin daiteke oztopo izan erreparazio- printzipioa garatzeko eta aplikatzeko. Izan ere, termino juridikoaren baitan ematen diren muga eta kontraesanen gainetik, biktima eta biziraule diren emakumeen eta indarkeria matxistaren biktima orenen interesak daude.

• Indarkeria matxistak ez da soilik emakume zisexualen ³ kontrakoa.

3/ Zisexualak: sentitzen duten sexua bat dator jaiotzean ezarri zietenarekin.

/ Zer arau eta gomendio hartu behar dira kontuan?

/ Nazioarteko erakundeak eta gobernuak kezkatuta daude emakumeek emakume izateagatik soilik jasaten duten indarkeriaren errealitateaz. Hori dela eta, zenbait gomendio eta arau idatzi dituzte, gizartean berdintasun handiagoa egon dadin eta ez dadin egon inolako diskriminaziorik edo indarkeriarik emakumeen aurka.

Hortaz, indarkeria matxista mota desberdinak jasan dituzten biktimekin lan egiten denean, hurrengoak hartu behar dira erreferentzia gisa ⁴:

1/ Nazioartea

70eko hamarkadatik aurrera, eta hein handi batean mugimendu feministak garatzearen ondorioz, Nazio Batuen Erakundeak Emakumeen Nazioarteko Urte izendatu zuen 1975, eta, orduz geroztik, beste erakunde askok ere antolatu zituzten emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko ekintzak. 1979an, NBEko batzar nagusiak

4/ Atal hau luzatu egiten da hurrengo tematiketako araudi eta gomendioak bilduz:

- Orientazio sexuala eta genero identitatea.
- Emakumeen aurkako indarkeria sexuala.
- Jazarpen sexuala eta sexuaren araberako jazarpena lan esparruan.
- Emakumeen salerosketa.
- Emakumeen mutilazio genitala.



Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak deuseztatzeko konbentzioaren hautazko protokoloa (CEDAW) onartu zuen, zeina emakumeentzako giza eskubideen nazioarteko gutun gisa deskriba baitaiteke. Horrek mugarrria ezarri zuen arlo honetako gomendioak eta arauak onartu eta argitaratzeari dagokionez, eta estatu kideetan zer bideri jarraitu behar zaion finkatu.

Momentu honetan, indarkeria matxistaren biktima- biziraule erreparazio politikak eratzeko, derrigorrezko eredu da 2011ko maiatzaren 11ko emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren kontrako prebentzio eta borrokarako Europar Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulen Protokoloa), 2014. urtean espainiar Estatuak berretsia.

1.1 / Arauak

1.1.1 / Orokorrak

- 60/147 Ebazpena, 2005eko abendukoa, Nazio Batuen Erakundeko batzar nagusiarena; bertan, giza eskubideen gaineko nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak jasan dituzten biktimek errekursoak jartzeko eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta jarraibideak ezartzen dira.

- 2016/679 ERREGELAMENDUA (EB) 2016ko apirilaren 27koa, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 95/46/CE Zuzentaraua (Datuen Babeserako Erregelamendu orokorra) indargabetzen duena 2016ko maiatzaren 25ean indarrean sartu zena eta 2018ko maiatzaren 25etik aurrera derrigorrez aplikatu beharrekoa.
-

1.1.2 / Emakumeei edo genero-indarkeriari buruzkoak

- Nazio Batuen Erakundea. Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpena. Batzar Nagusiaren 48/104 Ebazpena, 1993ko abenduaren 20koa
 - 2011ko maiatzaren 11ko emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren kontrako prebentzio eta borrokarako Europar Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbul, 2011ko maiatza), espainiar Estatuak berretsita 2014.eko abuztuan.
-

1.1.3 / Orientazio sexual eta/edo genero identitatearen buruzkoak

- Ebazpena, Europar Legebiltzarrarena, 2011ko Irailaren 28koa
 - 11492/13 Jarraibideak, 2013ren Ekainaren 24koak
-

1.1.4 / Indarkeria sexualari buruzkoak

- 2011/36/UE Zuzendaritza Europar Legebiltzarrarena, 2011ko apirilaren 5ekoa, 2002/629/JAI marko erabakia ordezkatzeko duenak
-

Indarkeria sexualen adingabe biktimekin:

- Espainiak 2010ean berretsi zuela haurrak sexu-esplotaziotik eta sexu-abusuetatik babesteko Europako Kontseiluaren Hitzarmena -Lanzaroten izenpetu zen 2007ko urriaren 25ean
 - Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko abenduaren 13ko 2011/92/EB Zuzendaritza ere, adingabeen sexu-abusuen aurkako eta sexu-esplotazioaren eta haur-pornografiaren aurkako borrokari buruzkoa, zeinak Kontseiluaren 2004/68/JAI Esparru Erabakia ordetzen baitu
-

1.1.5 / Jazarpen sexuala eta sexuaren araberako jazarpena lan esparruan buruzkoak.

- 76/207/CEE Zuzendaritza Kontseiluarena, 1976ko otsailaren koa
 - 2006/54/CE Zuzendaritza 2006ko uztailaren 5ekoa
 - Hitzarmena 190, 2019ko ekainakoa
-

1.1.6 Emakumeen salerosketaren buruzkoak

- Protokoloa NBEkoa, 2003koa, Hitzarmena Espaniar estatuak berretsita 2002ko otsailaren 21ean
 - Ebazpena Europar Batasuneko, 2004/2216, 2006ko urtarrilaren 17koa
 - Hitzarmena Europar Kontseiluarena, (Hitzarmena 197.znb.) 2005ko maiatzaren 16koa. Espainiar estatuak 2009ko apirilaren 2an berretsita
 - Ekintza Plana, Nazio Batuen, Ebazpena 64/293, 2010ekoa
-

1.1.7 / Emakumeen mutilazio genitalaren buruzkoak

- Ebazpena, Europar Legebiltzarrarena, (2001/2035 (INI)
 - Ebazpena, Europar Legebiltzarrarena, 2009ko martxoaren 24ekoa, Europar Batasunean praktikatua (2008/2071(INI).
 - Ebazpena, Nazio Batuen Asamblada Orokorrarena, 71/168, 2016ko abenduaren 19koa
-

1.2 / Gomendioak

1.2.1 / Orokorrak

- Adierazpena, delituen eta nagusikeriaren biktimentzako oinarritzko justizia-printzipioei buruzkoa, Nazio Batuen Erakundeko batzar nagusiak onartutakoa (A/RES/40/34, 1985eko azaroaren 29koa)
-



1.2.2 / Emakumei edo genero-indarkeriari buruzkoak

- Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak deuseztatzeko konbentzioaren hautazko protokoloa (CEDAW). 1983an Espainiar estatuak berretsia.
- Beijjinge Adierazpena eta Akziorako Plataforma, 1995
- Nairobiko Adierazpena (2007ko martxoak).
- Eskuliburua ONU Emakumeak, 2012koa
- Recomendación general número 33 de la CEDAW, sobre el acceso de las mujeres a la Justicia. (agosto 2015).
- Gomendio Orokorra CEDAWekoa, 3.zenb., 2015eko abuztukoak
- Gomendio Orokorra CEDAWekoa, 35.zenb., 2017ko uztailaren 19koa

1.2.3 / Orientazio sexual eta/edo genero identitatearen buruzkoak

- Gomendioa Europar Kontseiluarena CM/Rec (2010)
- XOSTENA: “Nacidos libres e iguales: Orientación sexual e identidad de género en las normas internacionales de derechos humanos”. 2012. Nazio Batuen Erakundeko batzar nagusiak.
- TXOSTENA: LUNACEK (2013/2183): “Sobre la hoja de ruta de la UE contra la homofobia y la discriminación por motivos de orientación sexual e identidad de género”. 2014

1A/1 Zer arau eta gomendio hartu behar dira kontuan?

1.2.4 / Jazarpen sexuala eta sexuaren araberako jazarpena lan esparruan buruzkoak

- Gomendia 206, Lanaren Nazioarteko Konferentziakoa, 2019ko ekainekoa

1.2.5 / Emakumeen mutilazio genitalaren buzkoak

- Gomendia CEDAwekoa, 14.zenb., 1990ekoa
- Ekintza Plana, 2005/28, Nazio Batuekoa

2 / Estatukoak

Espainiako estatuan, 2000an hasi ziren emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera bideratutako arauak onartzen. Genero-indarkeriaren errealitatea egoera pribatu gisa ulertzeari utzi zitzaion, eta gizarte osoari eragiten dion errealitate gisa ulertzen hasi; hortaz, Estatuak ez ezik, gizarteak ere esku hartu behar du biktimak defendatzeko, eta emakumeak ez diskriminatzearen alde lan egin.

2.1 / Arauak

2.1.1 / Orokorrak

- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena
- 35/1995 Legea, abenduaren 11koa, indarkeriazko eta sexuaskatasunaren aurkako delituen biktimei laguntza emateari buruzkoa
- 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena

2.1.2 / Emakumei edo genero-indarkeriari buruzkoak

- 1/2004 Legea, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra lortzeko
- 8/2015 Legea, uztailaren 22koa, haur eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena; legearen azken xedapenetako hirugarrenak 1/2004 Lege Organikoa aldatzen du, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa
- 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurriena



2.1.3 / Indarkeria sexualari buruzkoa

- 5/2010 Lege Organikoa, ekainaren 22koa, homnako lege organiko hau aldatzen duena: 10/1995, Lege Organikoa, azaroaren 23koa Zigor Kodearena. XIII.Titulua
- 1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, honako lege organiko hau aldatzen duena: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena. XII Titulua.

2.1.4 / Emakume atzerritarren aurkako indarkeriari buruzkoak

- 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa
- 4/2000 Lege Organikoa, 557/2011, apirilaren 20koa Errege Dekretukoa
- 240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europar Batasunek eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetakoa herritarrak Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzkoa

2.1.5 / Jazarpen sexuala eta sexuaren araberako jazarpena lan esparruan buruzkoak.

- 31/1995 Lege, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen prebentzioari buruzko legeak. 3, 14, 15 eta 16. Artikuluak
 - 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra lortzekoa. 7, 12, 13, 46, 48 eta 62 Artikuluak
 - Lan Arloko Arau Hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartua aldatzea
 - 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. 4, 17, 19, 54 eta 58 Artikuluak
 - 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. 14 eta 95 Artikuluak
-

2.1.6 / Emakumeen mutilazio genitalaren buzkoak

- Lege Organikoa, irailaren 29ko, neurri zehatzak ezarri dituena, herritarren segurtasunari, etxeko indarkeriari eta atzerritarren gizarte-integrazioari buruzko gaian, 149 Zigor Kodearen 149 artikulua aldatzen dena
-
-

2.1.7 / Udalerriei aplikatzen zaizkien estatukoak

- 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena
 - 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa
-

2.2 / Gomendioak

2.2.1 / Orientazio sexual eta/edo genero identitatearen buruzkoak

- Europako Liburu Zuria, Bartzelonako Udala. 2011
-

3 / Autonomia erkidegokoak

Euakal Autonomia Erkidegoan, Espainiako estatuan baino lehen onartu zen berdintasunari buruzko legea. Horrek agerian jarri zuen generoari dagokionez gizarte berdintasunezkoa eta ez-diskriminatzailea lortzeko hartutako konpromiso politikoa.

3.1 / Arauak

3.1.1 / Orokorrak

- 3/2009 Legea, abenduaren 23koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko legea aldatzekoa
 - 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
 - 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa
-

3.1.2 / Emakumeei edo genero-indarkeriari buruzkoak

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, VII. kapitulua
-

3.1.3 / Orientazio sexual eta/edo genero identitatearen buruzkoak

- 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa
 - 9/2019 Legea, ekainaren 27koa, 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa aldatzekoa
-

/ Zer kontzeptu hartu behar dira abiapuntu gisa?




/Azken urteetan, emakumeen aurkako indarkeria matxista eztabaida publikoaren erdigunean kokatu da, hein handi batean ingurune feministek mobilizazio ugari egin dituztelako emakumeek inolako indarkeriarik ez jasateko duten eskubidea aldarrikatzeko; bereziki, jatorria patriarkatuan duen indarkeria ez jasatekoa, patriarkatuak legezkatu egiten baitu emakumeak gizonak baino gutxiago hartzea. Eztabaida horietan, kontzeptu jakin batzuk nahasi egin dira, edo ez dira zehaztasunez erabili, indarkeria matxista genero-desberdintasuna irauarazten eta zabaltzen duten egituren adierazpen larriena dela ez onartzeko.

Adibidez, genero-indarkeria eta etxeko indarkeria edo familia-indarkeria nahasi ohi dira, eta horrek ondorio negatiboak izan ditzake biktimengan, estamentu politikoek biak argi eta garbi bereizten ez badituzte. Ezjakintasunagatik edo nahita bi kontzeptu horiek nahastea ez da soilik alderdi teoriko bat, utz baitaiteke alde batera genero-berdintasuna egiturazkoa den (eta ez familia-sistemako arazoaren ondorioa den) indarkeriaren biktimak babesten dituzten eta haiei eragindako kaltea konpontzen duten arauak idaztean.

Legeak aplikatzen direnean, ezin da galdu haien oinarri diren filosofiaren eta printzipioen indarra, horri esker bidezko tratua eman ahal izango baitaie biktima guztiei.

Kontzeptu horiek eta beste batzuk argitzeko, hurrengo atalean haiek definituko ditugu, haien arteko baliokidetasunak eta aldeak

1A/2 Zer kontzeptu hartu behar dira abiapuntu gisa?



Eskema 1


nabarmenduko, eta zer maila, modu eta esparrutan ager daitezkeen zehaztuko. Esan gabe doa indarkeria diogunean ez garela ari indarkeria generikoaz, baizik eta gida honetan hizpide dugunaz; alegia, tradizionalki generoan oinarrituta dagoen indarkeria edo indarkeria matxista deiturikoaz.

Laburpen gisa, hurrengo ataletan aztertuko ditugun kontzeptuak bildu ditugu eskema hauetan:

1 / Emakumeen aurkako indarkeria matxista: definizioak

Errealitate jakin bati era batera edo bestera deitze hutsak konnotazio batzuk ematen dizkio, eta konnotazio horiek eragina dute hura ulertzeko, sailkatzeko eta baloratzeko moduan; gaur egun, zenbait modutara izendatzen da emakumeek emakume izateagatik soilik jasaten duten indarkeria, eta haren modu guztiak esparru guztietan detektatzeko gai izatea ezinbestekoa da esku-hartzeek arrakasta izan dezaten.

Kontuan izan behar da indarkeriak izendatzeko moduak jada asmo bat adierazten duela. Haiek definituz gero, errazago pentsatuko dugu zer nabarmendu nahi dugun, haiek nola ulertu behar diren, zerk eragiten dituen, nori iraunarazten dituen eta nori egokitzen zaizkion. Gida honetan proposatzen dugun lana egiteko, kontzeptu hauek baliokidetzat hartuko



Eskema 2

ditugu: emakumeen aurkako indarkeria matxista eta generoan oinarrituta dagoen emakumeen aurkako indarkeria.

1.1 / Generoan oinarrituta dagoen indarkeria

Bi arrazoirengatik erabiliko dugu termino hau: batetik, Istanbulen Hitzarmenean ageri delako; eta, bestetik, emakumeek emakume izateagatik soilik jasaten duten indarkeria adierazten duelako. Definizio horrek generoan oinarrituta emakumeen aurka egiten den indarkerian jartzen du enfasia. Eraikuntza sozial gisa ulertzen da generoa; maskulinoa eta femeninoa kategoriak ezaugarri eta berezitasun batzuk izatearekin (edo ez izatearekin) lotzen ditu, eta emakumeak gizonengandik bereizten. Maskulinoa eta femeninoa zer den bereizten dituzten kontzeptu horiek aldatu egiten dira gizartearen eta une historikoaren arabera.

1.2 / Emakumeen aurkako indarkeria matxista

Nahiz eta juridikoki halako kontzepturik ez egon, oso zabalduta daude ingurune feministetan eta hedabideetan. Gipuzkoako Foru Aldundiak honela definitzen du indarkeria matxista 2/2015 Foru Arauan ⁵: «sexu / genero / sexualitate sistemaren heteronormaltasunari aurre egiten dioten gorputzen aurkako kontrol, eraso, ukapen eta inposaketa zuzen,

5/ Gipuzkoako Foru Aldundia: 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako. GFA, 2015.

1A/2 Zer kontzeptu hartu behar dira abiapuntu gisa?

egiturazko eta sinbolikoak, hala nola, transgreditu gabe ere, bere baitan boterearen harremanak jasaten dituzten objektua diren, emakumeen, gorputzen kontrakoak».


Kontzeptu horren arabera, emakumeek soilik ez dute jasaten indarkeria matxista; hortaz, talde hori berariaz aipatzean, emakumeen aurkako indarkeria matxista esango dugu, eta emakumetzat hartuko dira emakume eta neska zisexualak ⁶ eta emakume eta neska transexualak ⁷.

Indarkeria matxista horrek, beste diskriminazio batzuekin batera, zapalkuntza-ardatz desberdinak eragiten ditu era guztietako pertsonengan; hala, zenbait motatako indarkeria matxista sortzen da: emakume arrazializatuen aurkako; beste gaitasun funtzional, sentsorial edo psikiko batzuk dituzten emakumeen aurkako; trans nesken aurkako; lesbofobia; emakume txiroen aurkako; administrazio-egoera ez-erregularrean dauden emakume migratuen aurkako indarkeria matxista instituzionala; landaguneko adineko emakumeen aurkako; etab.

Nahiz eta oraindik ez den arauetan erabiltzen, definizio hori aurrekoak baino zabalagoa da, haiek barnean hartu eta gainditu egiten baititu, ikuspegi feminista eskainiz. Eta ikuspegi horretatik ez dugu ahaztu behar

6/ Zisexualak: sentitzen duten sexua bat dator jaiotzean ezarri zietenarekin.

7/ Transexualak: sentitzen duten sexua ez dator bat jaiotzean ezarri zietenarekin



Eskema 3

badela genero-arauaren eskemak urratzen dituzten eta sexu / genero / sexualitate eskema tradizionalak iraunarazteari uko egiten dioten gorputzengand eragiten den beste era batzuetako indarkeria matxista. Honenbestez, kontzeptu hauen aldeko apustua egiten da Gida honetan.


8.2 eranskinean, taula baten bidez hemen zehaztutako indarkeriaren kontzeptu anitzak eta biktimaren definizioak zehazten dira.

2/Emakumeen aurkako indarkeria matxista: mailak

La clasificación de los niveles de la violencia parte del triángulo propuesto por Johan Galtung para representar la dinámica de la generación de la violencia en conflictos sociales. Según Galtung, la violencia es como un iceberg, de modo que la violencia visible es solo una pequeña parte del conflicto. Solucionarlo supone actuar en todos los niveles de violencia, que según este autor serían tres:

- La violencia estructural, que define como el conjunto de estructuras que no permiten la satisfacción de las necesidades y se concreta, precisamente, en la negación de las necesidades.
- La violencia cultural, la cual crea un marco legitimador de la violencia.
- La violencia directa, visible porque se concreta en comportamientos y actos.

1A/2 Zer kontzeptu hartu behar dira abiapuntu gisa?



Galtungen triangelua

Galtungen triangelua

Triangelu horri berriro heldu, eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren maila guztiak aztertu ditu mugimendu feministak. Diotenez, indarkeria hori ez da gertakari isolatu edo pribatu bat, eta ez dute ezaugarri edo patologia indibidualek eragiten; indarkeria horrek sexu / genero / sexualitate sistema bitarretik sortutako desberdintasunaren egitura batean du jatorria.

Mugimendu feministak soilik ez dio berriro heldu indarkeriaren egiturazko azterketari. Erakunde batzuek ere planteamendu teoriko hori hartu dute kontuan beren politika publikoak diseinatzeko; besteak beste, Arabako Foru Aldundiak ⁸ (AFA), zeinak definizio hauek eskaini baititu sailkapen horretan oinarrituta:


^{8/} Arabako Foru Aldundia: Arabako gizonen eta emakumeen berdintasunerako IV. Foru Plana. (2016-2020)

<p>EGITURAZKO IDARKERIA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Indarkeria maila honetan, ez zaie erantzuten oinarrizko beharrei, baliabide publikoak eta zerbitzuak mugatuta daudelako eta erakundeak koordinatzen ez direlako. • Nekez identifikatzen da; hori dela eta, kaltegarriena da.
<p>INDARKERIA KULTURALA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Indarkeria sinbolikoa da eta diskriminazioek sortzen dituzten estereotipoak justifikatzen ditu. • Hainbat bidetatik ikasten eta zabaltzen da: familia, hezkuntza-sistema, hedabideak, gizarte-harremanak, etab. • Indarkeria zuzena eta egiturazkoa legezkatzen ditu.
<p>INDARKERIA ZUZENA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikusten den indarkeria da; indarkeria-ekintza zehatzek osatzen dute, zeinen ondorioak erraz hauteman baitira, bai kanpotik (kalte fisikoak), bai barrutik (kalte psikologikoak, etab.).

AFArekin definizioetan, egiturazko indarkeria indarkeriari eusten dioten egitura instituzionalera mugatzen da. Hori oso garrantzitsua da, erakundeak ere erantzule egiten baititu indarkeriari eusteaz, eta ez bakarrik genero-desberdintasuna iraunarazten duten egiturei eusteaz (adibidez, zainketa-lanaren banaketa desberdina edo lanaren sexu-banaketa).

Baina, indarkeriaren egiturak aipatu arren, nahitaez aipatu behar da indarkeriaren erantzukizuna hura eragiten dutenei dagokiela, beti,

1A/2 Zer kontzeptu hartu behar dira abiapuntu gisa?




Eskema 4

justifikaziorik gabe. Indarkeriaren egiturak aztertzean, ezin dugu ahaztu hura eragiten dutenek aukera dutela halakorik ez egiteko eta, nahiz eta ondorioak izan, aurre edo uko egin ahal izango diotela. Munduko milaka emakume ahotsa altxatzen ari dira indarkeriaren kontra, beren herrialdeetan ikusten dituzten indarkeria-modu guztien kontra, zenbait gizon bezala, gizonen indarkeriaren aurka borrokatzeko konpromisoa hartu baitute.

Genero-desberdintasuna dakarten egiturak (familia nuklearra, lanaren banaketa sexuala, zainketa-lanak emakumeei egokitzea, alderdi publikoa eta pribatua bereiztea) gizonen menderatzearen egiturekin gurutzatzen dira (indarkeria barnean hartu eta sustatzen duen maskulinitate hegemonikoko eredu bat eraikitzea;⁹ maskulinitate-modu horiek islatzen dituzten gizonak desiragarriak egiten dituzten erakarpen-ereduak sortzea; amodio erromantikoaren izenean sakrifizio eta pairamen gisa emakumeen zainketa emakumeen esku uzten duten harreman-ereduak eskaintzea; sistema legal eta kultural gisa eraso egiten dutenen zigorgabetasuna bultzatzea; indarkeria matxistei arazo sozial gisa uko egitea; indarkeriazko

9/ Maskulinitate hegemonikoa ez da soilik gizonentzako sozializazio-, hezkuntza- eta identifikazio-eredu bat; horrez gain, boterearen eta pribilegioen erreferentzia bat da (nagusiki, emakumeak kontrolatzearena). Eredu horretan, hegemoniari eusten ez dioten beste portaera maskulino batzuk ere sartzen dira (askotan, portaera horiek ere indarkeriazkoak dira). Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra dauden gizonen ere oso zeregin garrantzitsua dute maskulinitate hegemonikoa zalantzan jartzen.




jokabideak naturalizatzea eta normalizatzea; biktimak errudunestea), eta elikatu eta atzeraelikatu egiten dituzte, eusteko eta emakumeak kontrolatzen jarraitzeko indarkeria matxistak behar dituen sistema patriarkal eta kapitalista batean.

Puntu honetan **inguruneko indarkeria** kontzeptua gehitu daiteke, presente dagoen indarkeria (eta honenbestez, potentzialki izateduna) bezala aintzakotzat hartuz, zein giro batzuetan sozialki ulergarria edota justifikatuak izan daitezkeen emakumeen aurkako erasoak, batez ere izaera sexualekoak barne hartzen dituena. Herriko jaietan ematen diren eraso sexualen kasuan, gizon talde batzuek gertaera hauekiko permisibitatea egon daitekela aurreikusten dute. Honek, emakume batzuegan egoera batzuk intseguritate eta arrisku egoera bezala hautematea eragiten du eta beraien mugimendu askatsuna eta jardunbidea baldintzatzen du: biolentzia erreala da baina neurgarria izateko zailtasun handikoa.

3 / Emakumeen aurkako indarkeria matxista: moduak eta esparruak

Indarkeria matxista oro har haren adierazpen batekin (fisikoa) edo eremu zehatz batekin (bikote heterosexualak) nahasten dituen testuinguru batean, garrantzitsua iruditzen zaigu nabarmentzea zer modutara ager daitekeen indarkeria eta zer esparrutan gertatu ohi den.

1A/2 Zer kontzeptu hartu behar dira abiapuntu gisa?



Esquema 5


Halaber, azpimarratu behar da gizarteak ez dituela berdin ikusten modu eta esparru guztiak, eta denak ezin direla jaso lege-adierazpen batean. Azkenaldian, adibidez, artearen edo kirolaren arloan diharduten emakumeek adierazi dute diskriminatu egiten dituztela sortzeko edo jokatzeko soldatei edo baldintzei dagokienez, baina, horrez gain, indarkeria ere jasaten dutela diskriminazio-modu horiek zalantzan jartzen dituztenean.

Horrela, istorio edo gertaera zehatz bakoitzak bi eskema hauek elkartzera behartzen gaitu:

Besteak beste, bikoteak edo bikotekide ohiak hainbat eratako indarkeria eragiten du. Gaur egungo legerian, 1/2004 Lege Organikoak, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriak buruzkoak, horrela definitzen du eremu hori, eta bikote heterosexualera mugatzen du.

Kontuan izango da, indarrean dauden inplikazio juridikoengatik, baina zaharkituta dago, eta errealitateak eta mugimendu feministaren proposamenek gainditu egin dute; izan ere, ikusi dugun bezala, proposamen horietan argi geratzen da hainbat gertakariren bidez eta toki, era eta maila askotan adierazten dela emakumeen aurkako indarkeria matxista.

Horrek guztiak agerian uzten du definizioak aldatu egiten direla gizarteak ohartu ahala emakumeen aurkako **diskriminazio-egoerak** daudela, nahiz eta hasieran halakoak ez ikusi **emakumeen aurkako indarkeria**



Eskema 6

gisa. Gero, errealitate hori beste era batera ikusten hasten da (alegia, emakumeen aurkako indarkeria gisa), eta, azkenik, emakumeen aurkako indarkeriak **giza eskubideak urratzen dituela** esaten da. Eskema honetan ikusten da prozesua.

4 / **Biktimak eta bizirauleak: definizioa eta motak**


Dindarkeria kontzeptuarekin gertatu den bezala, biktima kontzeptua ere aldatuz joan da urteen poderioz, indarkeriarenaren bilakaerara egokitzeko. Bi kontzeptuek lotura estua dute, biktimak hauetako bat jasan dutelako baitira biktima:

- 1º Diskriminazioa.
- 2º Indarkeria, hainbat esparrutan eta eratara.
- 3º Giza eskubideen urraketa.

Gaur egun, kontzeptu hauek argitu beharra dago:

Bi kontzeptu horiek ez dute elkar baztertzen, baizik eta prozesu bateko continuum batean kokatzen dira, espafial dinamikoa eratuz. Prozesu horren helburua da autonomia bera lortzea; horretarako, biktimek eurek banako eta talde gisa ahaldundu behar dute, eta inguruneak erreparazioa eskaini behar die. Prosezuan, burututako pauso bakoitzean biktimaren izatea gutxitzea eta biziraule izatea edo honetara hurbiltzea billatzen da.

1A/2 Zer kontzeptu hartu behar dira abiapuntu gisa?



Indarkeriaren aurrean emandako erantzunek, direnak direla, aukera ematen diete indarkeriari aurre egiten dabiltzan emakumeei bizirik irauteko. Alde horretatik, funtsezkoa da haien biziraule-izaera aitortzea. Bizirik irautea eta biktima izatea ez dira modu uniboko edo sekuentzialean gertatzen diren egoerak; biktimizatzen duen eraso baten aurrean, integritate fisiko eta psikologikoa babesten dituzten mekanismoak aktibatzen direlako dira indarkeria matxistaren bizirauleak, baina biktimizazio horrek, beste ondorio batzuen artean, ahuldu egiten ditu bizirik irauteko estrategia horiek.

Biktimak bere integritatea babesteko eta bizirauteko helburuarekin burutzen dituen ekintzak, berriro biktima bihurtzea ekar ditzazke; adibidez, biolentzia egoerak errepikatu diren historietan, eraso fisiko baten aurrean irmotasunez erantzuteak, erasotzaileak gogortasun handiarekin erasotzea ekar dezake (momentuan edota hurrengo erasoetan), bere autoritatea eta gailentasuna zalantzan jarria izan direla sentitzeagatik.

Indarkeria matxistaren esparruan, emakume biktima subjektu pasibo gisa ikusi da, zeinak ez baitu erreakzionatzeko batere gaitasunik (edo ia batere ez). Definizio hori ez dago ezein legetan jasota, baizik eta ikuspegi patriarkalak ekarri du; izan ere, ikuspegi horren arabera, emakumeak dira jasaten duten indarkeriaren erantzuleak, haien ezaugarri guztiak negatiboak direlako.


Aurrekoaren arabera, hauek jotzen dira biktimatzat:

BIKTIMATZAT	• Gizarte-arauak ezarritakoa ez den beste sexu- edo genero-orientazio
JOTZEN DIREN	eta -identitate bat duten eta indarkeria matxista jasaten duten
PERTSONAK	pertsonak
	• Biktima bihur litezkeen inguruneko pertsonak
	• Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak
	• Emakume izateagatik soilik edozein eratako indarkeria jasaten duten emakumeak

Hori esanda, hau gehitu behar dugu:

- Administrazioek genero-indarkeriaren biktima guztien **eskubide guztiak bermatu** behar dituzte; berdin dio zein den pertsona horien jatorria, erlijioa edo egoera pertsonala edo soziala.

1A/2 Zer kontzeptu hartu behar dira abiapuntu gisa?



- 1/2004 Lege Organikoaren arabera, bikkideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria jasan duten emakumeak soilik babestu behar dira¹⁰; hortaz, beste emakume asko babesik gabe geratzen dira.
- 3/2009 Legeak, abenduaren 23koak, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko legea aldatzekoak, 1/2004 Lege Organikoan ageri den biktimaren kontzeptua aldatzen du, eta emakume biktimaren adingabeen seme-alabak ere sartzen, nahiz eta oraindik egokitzapen asko egin behar diren haien erabateko eskubidea onartzeko eta genero-indarkeriaren biktima gisa dituzten beharrei erantzuteko.
- Istanbulerako Hitzarmenak emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria aipatzen ditu; beraz, **biktimaren kontzeptua** zabaltzen du, eta ez ditu hartzen biktima gisa emakumeak bakarrik. Indarkeria mota eta esparru guztiak konbinatu egiten dira, eta **hainbat indarkeria-egoera** sortzen.

10/ Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa: Estudio para el intercambio de buenas prácticas e instrumentos legales en la lucha contra la violencia de género entre Noruega, Islandia y España con referencia a la normativa existente en los países de la Unión Europea. Madrid. 2015eko ekaina

• **Biktimatzat jotzeko:**

- eskubide urratu batetik dator. Maila guztietan, berehalako eta zuzeneko forman kalteak eragiten dituena eta eskubideen urraketa hori jasan duenarengan ondorioak uzten ditu.
- ezin daiteke erlazionatu erantzun, portaera, jarrera edota elkar erlazio eta portaera jarraibideekin. Hau da, biktima batek ez ditu eraso baten aurrean izandako erantzunak justifikatu behar, bere erantzunek ez baitute biktima bihurtzen. Arreta, eraso jasatean jarri behar da, eta biktimaren erantzunak normala ez den egoera batean ematen diren bizirauteko mekanismo erantzun normalak direla onartu behar da.
- Ikuspuntu juridiko eta/edo administrativo batetik, ez da zertan identifikatu indarkeria eragin duen pertsona, ezta zertan harreman berezirik egon ere haren eta biktimaren artean. Erreparazio-neurriren bat jasotzeko, agintariek ez dute zertan identifikatu indarkeria eragin duena.

-
- **Zuzeneko eta zeharkako biktimak daude;** norbaiti zuzenean urratu zaizkio eskubideak, baina, hura ez ezik, inguruko pertsona batzuk ere hartzen dira kontuan, haien eskubideak zeharka urratu baitira. Hauek izan daitezke zeharkako biktimak: hurbileko familia, zuzenean biktimaren ardurapean daudenak eta biktimari laguntzean edo eskubideak urra ez zitezen saiatzean kalteren bat jasan izan lezaketen pertsona guztiak (adibidez, biktimak defendatzen dituzten abokatuek edo biktimei laguntza medikoa ematen dieten pertsonak ere tratatu txarrak
-

jasan ditzakete, beldurrarazi edo atxilotu egin ditzakete, etab.). Arau guztiek ez dizkiete eskubide berberak aitortzen zuzeneko eta zeharkako biktimei.

- Badira genero-indarkeria jasateko arrisku handiagoa edo zerbitzuak eskuratzeko zailtasun handiagoak dituzten emakumeen talde jakin batzuk, eta egoera horiek kontuan hartu behar dira kalteak erreparatzeko prozesu osoan zehar.
- Bestalde, **kalteak edo galerak** zerbait egitearen ondorioa izan daitezke, baina baita **ezer ez egitearen ondorioa** ere; biktimen edo biktima posibleen eskubideak behar adina ez zaintzeagatik sortutako edo areagotutako indarkeria-egoerak ere badira estatuen erantzukizuna. Adibide gisa, Ángela Gonzálezen alabaren kasua aipa dezakegu. Aitak tratu txarrak ematen zizkien biei, eta, azkenean, alaba hil zuen (gero, bere buruaz beste egin zuen). Kasu hartan, Auzitegi Gorenak aitortu zuen Estatuak ez zuela ondo jokatu, ez zuelako bermatu adingabearen segurtasuna; ondorioz, kalte-ordaina eman behar izan zion biktimari ¹¹.

Gida honetan, oro har, biktima terminoa (beti sistema patriarkalak eragindako indarkeria motari lotuta) indarkeria matxista jasaten duten emakumeei dagokie funtsean, arreta-sistema haientzat diseinatu baita; hala ere, ez dugu ahazten indarkeria bikotekideak edo bikotekide ohiak

11/ <https://womenslinkworldwide.org/files/2997/cronologia-caso-angela-gonzalez.pdf>

2 atala

/ Erreparazio printzipioa



/ Erreparazio-printzipioa?

/ Emakumeen aurkako indarkeria forma desberdinetako araudi eta gomendioak aurkeztu ondoren eta esparru honetako kotzeptu batzuk zehaztu ondoren, erreparazio printzipioekin aurrera egin nahi da bai indarkeria matxistaren prebentzioan zein biktimekin esku hartzeari dagokionez.

Erreparazio-printzipioa gatazka armatuko inguruneetan giza eskubideak errespetatu ez dituzten egoeretan sortutako kontzeptu bat da. 80ko eta 90eko hamarkaden amaieran, **justizia trantsizionalaren** ikuspegia zabaldu zen, Latinoamerikan eta Ekialdeko Europan izandako aldaketa politikoei eta justizia-eskaerei erantzuteko asmoz (hala ere, ikuspegi hori Bigarren Mundu Gerraren ondoren izandako Nurenbergeko epaiketen harira ere hasi zen nabarmentzen).

ICTJ (International Center for Transitional Justice) zentroaren arabera, “gatazka- eta errepresio-garaiak atzean utzi nahi dituzten herrialdeek giza eskubideak masiboki edo sistematikoki urratu dituzten egoerei aurre egiteko erabiltzen dituzten moduei justizia trantsizionala esaten zaie. Egoera horiek hain dira larriak eta hain eremu zabala hartzen dute, ezen ohiko sistema judizialak ezin baitie erantzun egokia eman.” Hala ere, gaur egun ez da mugatzen salbuespenezko egoera politiko eta sozialetara.

Kontzeptu horren osagarri gisa, **justizia errestituzioaren** kontzeptua sortu da. Haren arabera, ekintza kriminalak eta hura eragin dutenek



prozesuaren erdigunean egoteari uzten diote, eta biktimei eta eragindako kalteari ematen zaie lehentasuna; erreparaziorako eskubidea aipatzen hasten dira. Juridikoki, Luis M. Cruzek dio “erreparazioen helburua dela (...) legez kanpoko ekintza gertatu ezean egongo litzatekeen egoera berean kokatzea kaltetutakoa”¹. Alabaina, maila horretan geratuz gero, justiziak neurri aringarriak ezarri besterik egiten ez duela pentsatuko litzateke, eta, horrez gain, erreparazio eraldatzailea ere behar da, haren neurriek indarkeria matxista alda dezaten. Hortaz, zeharkakotasuna izan behar da haren ezaugarri nagusia, eta kontuan hartu beharrekoa biktimekin esku hartzeko fase guztietan. Egun, justizia **erreparatzailea** edo **justizia eraldatzailea** ere esaten zaio.

1/ Cruz, Luis M.: “El Derecho de reparación a las víctimas en el Derecho Internacional. Un estudio comparativo entre el Derecho Internacional de responsabilidad estatal, y los principios básicos de reparación de víctimas de Derechos Humanos”. UNED. 2010



Eskema 7

Zer paradigma nagusitzen dira justizia erreparatzailean?


Justizia erreparatzailean, egia, justizia eta erreparazioa paradigmatik nagusitzen dira. Beraz, Nazio Batuen Erakundeko batzar nagusiaren² arabera, inori giza eskubideak urratuz gero, pertsona horrek hauek jasotzeko eskubidea du: (Eskema 7):

Beheko grafikoan, justizia erreparatzailea sortzeko prozesua ageri da, eskematizatuta

Ikuspegi feminista ez dago soilik indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeei aplikatutako justizia erreparatzailean, baina ezinbestekoa da kalteak erreparatzeko esku-hartzea ahalduzaren bidez gauzatuko dela bermatzeko. Ikuspegi hori hartu da, adibidez, Nairobiko Adierazpena idazteko.

Indarkeria matxistaren biktimentzako erreparazio printzipioa aplikatzeak hurrengoak dakar:

2/ Nazio Batuen Erakundeko batzar Nagusia: Giza eskubideen gaineko nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak jasan dituzten biktimiek errekursoak jartzeko eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarriko printzipio eta jarraibideak. 60/147 Ebazpena, 2005eko abenduaren 4koa.



Eskema 8

- Biktimarekin **Zuzeneko arreta/esku hartze prozedura** (gizarte zerbitzuetan batez ere): Biktima bakoitzari egiten dio erreferentzia (seme alabak eta emakumearen bizi diren beste senitarteko batzuk barne hartzen dira) eta honenbestez, kasu bakoitzaren berezitasunen arabera moldatutako denbora eta prozedura desberdinak hartu beharko dira kontuan era berean, ezin daiteke ahaztu emakumea bere prozesuaren subjektu aktibo dela. Emakumearen ahalduntzea bilatzen da emakume biktima izatetik biziraule izatera igarotzeko. Estatuak beraz, biktima bakoitzari bere beharrizan eta nahien arabera erreparazioa bermatzeko arduraduna da, Giza Eskubideak bermatzeko arduradun den bezala.
- Prebentziotik burutu beharreko lana: Estatuak eta biztanleria estereotipo sexista gabeko eta gainontzeko generokideekin, emakumeek emakume izateagatik jasaten dituzten erasoak berriro ez errepikatzea bermatuko lukeena. Funtsezkoa da biolentzia gabeko kultura ezartzea.
- Erreparazio sinboliko eta sozialean: biktima izatearen aitortpen soziala eta Egiaren zabalkudea, alde batetik, biktima- bizirauleen gogobetetasuna dakar publikoki horrela aintzakotzat hartzeak; eta bestetik, prebentzio funtzioa egiten du jendartean errealtate hau ikustera emateak eta bestetik, komunitatearen erantzuna eskatzen du.

Honez gain, erreparazioaren zeharkakotasunetik biktimekin maila desberdinetan esku hartzea ahalbidetzen du (indibiduala, kolektiboa eta publikoa), esparru desberdinetan (sozial, sinboliko, ekonomiko, juridikoa)



eta kasu zehatzetan, eragindako kalteari arreta jarriz (eraso sexual, sexuaren araberako lan jazarpena eta abar.).

Hurrengo puntuetan jasandako indarkeriaren izaera kontuan izanik, biktimekin esku hartzeko maila desberdinetako aktuzio eta erreparaziorako esku hartze mota.

/ Zer da erreparazio-printzipioa?



1/ Definizioa eta ezaugarriak


Erreparazio printzipioa biktima guztiek eragindako kalteen erreparaziorako duten **eskubidea** da (indarkeria matxistaren biktimak izan edo ez); eskubide hau biktima izateagatik bereganatzen da eta erreparazio printzipioa zeharkakoa izan behar da prozedura eta aktuzio maila guztietan.

Erreparazio-printzipioa zer den zehaztu nahi denean edo aplikatzeak zer suposatzen duen jakiteko, definizio bat baino gehiago aurkituko ditugu. Gida hau prestatzeko, guztiak elkartzea erabaki da, printzipioaren osagai nagusiak bil daitezten.

Laburbilduz, erreparazio-printzipioak esan nahi du emakume bizirauleei arreta ematen dieten zerbitzu publikoek ekintzak bideratzea maila guztietan jasandako kalteak arintzeko; esan nahi du, halaber, indarkeriak emakumeengan utzitako ondorioei arreta jarriko zaiela bermatzea, eta neurriak hartzea emakumeen eskubideak urratzea ekarri dituzten egoerak berriro ez errepikatzeko.

Oinarritzko zer printzipio hartu behar ditu kontuan erreparazio printzipioa?

2A/1 Zer da erreparazio-printzipioa?



Eskema 9

Estatu Batuetako Batzar Nagusiak, erreparazio printzipioak barne hartu behar dituen hurrengo bost neurri orokorrak zehazten ditu³ :

1/ Leheneratzea

2/ Kalte-ordaina

3/ Errehabilitazioa

4/ Gogobetetzea

5/ Berrito ez gertatzeko bermeak

Beheko grafikoetan, emakumeen aurkako indarkeriaren egoerei aplikagarriak zaizkien printzipioak zehazten dira:

1/ Leheneratzea

Ikuspuntu feministatik, ulertzen da pertsonen arteko indarkeria-adierazpenak iceberg-aren punta direla eta indarkeria egiturazko eta sinboliko batek eusten diela. Hau da, gizonek eskubidetzat hartzen dituzte patriarkatuak ezarri dizkien pribilegio faltsuak, eta, horretaz gain, eraso zehatz bakoitzaren atzean kalte egiteko nahia dago. Beraz, emakumeekin

3/ Nazio Batuen Erakundeko batzar nagusia: "Giza eskubideen gaineko nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak jasan dituzten biktimek, baliabideak jartzeko eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipio eta jarraibideak. 60/147 Ebazpena, 2005eko abenduaren 4koa."

EKINTZAK

1/ LEHENERATZEA

Ahal dela, giza eskubideen

nazioarteko arauen ageriko

urratzea edo nazioarteko zuzenbide

humanitarioaren urratze larria egin

aurreko egoerara itzuli behar da

biktima..

erlazionatzeko bide hori aukeratzen dutenen erantzukizun individuala ere badago.

Alde horretatik, **Leheneratzea** kontzeptuaren definizioarik zorrotzena (emakumea eskubideak urratu aurreko egoerara itzultzea) ez da kasu honetarako aplikagarria, ezta desiragarria ere. Biktimen bizitzen zenbait esparrutan leheneratzea gerta daiteke, baina indarkeriaren ondorioek, berekin dakartzaten bizitza-aldaketa eta aldaketa jakinez gainera, ezinezkoa egiten dute biktimak aurretiaz zuen egoerara bueltatzea, eta gainera, ikuspuntu feministaren helburua indarkeriaren egiturazko oinarria eraldatzea da. Hala ere, Estatu Batuetako Batzar Nagusiak erreparazio printzipioak barne hartu behar dituen elementuak adierazteko, hurrengo taula gehitzea erabaki da.

- Askatasuna berrezartzea, maila guztietan
- Giza eskubideak erabiltzea
- Familia-bizitza eta herritar-bizitza
- Ondasunak berreskuratzea
- Lehengo lanera itzultzea
- Bizitokira itzultzea

2A/1 Zer da erreparazio-printzipioa?

Kalte-ordaina modu egokian eta urratzearen
larritasunarekiko eta kasuan kasuko
inguruabarrekiko proportzioan eman behar
da, giza eskubideen nazioarteko arauen
ageriko urratzeen edo nazioarteko zuzenbide
humanitarioaren urratze larrien ondorio
diren galera ekonomikoki ebaluagarri guztiak
kontuan hartuta

2/ KALTE-ORDAINA

2/ Kalte ordaina

- Kalte fisiko edo mentala
- Aukeren galera (enpleguari, hezkuntzari eta gizarte-prestazioei dagokienez)
- Kalte materialak eta diru-sarreraren galera
- Kalte moralak
- Hauen gastuak:
 - Laguntza juridikoa
 - Medikamentuak
 - Zerbitzu medikoak
 - Zerbitzu psikologiko eta sozialak

3/ Rehabilitación

- Arreta sanitarioa eskuratu ahal izatea
- Ahalduntzea eta autonomia garatzen dituzten errekurtsoertarako sarbidea
- Arreta psikologikoa eta juridikoa eskuratu ahal izatea
- Beharrezko giza baliabideak, harrerazkoak eta ekonomikoak eskuratu ahal izatea
- Justizia eskuratu ahal izatea

3/ ERREHABILITAZIOA

Biktimak errehabilita daitezten lortzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu behar dira.

4/ GOGOBETETZEA

Biktimak gogobete daitezten lortzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu behar dira..

4/ Gogobetetzea

- Indarkeria interpersonal egoerek jarrai ez dezaten neurri eraginkorrak hartzea
- Gertaerak egiaztatzea eta egia jendaurrean eta osoki ezagutaraztea*
- Biktima- biziraule eta hari hertsiki loturiko pertsonen duintasuna, izena eta eskubideak berrezarriko dituen adierazpen ofizial bat egitea edo erabaki judizial bat hartzea.
- Oroipen, imenaldiak eta oroitzen publikoak-bizirauleei, erailak izan diren emakumeei, beraien familia eta inguruari-ospakizunak
- Erresistentzia adierazitako hisotioen txertatzea material didaktikoetan
- Zehapen judizialak edo administratiboak aplikatzea erantzuleei
- Jendaurrean barkamena eskatzea, gertaerak aitortuta eta erantzukizunak onartuta.

*Baldin eta horrek kalte gehiago ez badakar eta biktimaren, haren familiakoen, lekukoen edo biktimari laguntzeko edo urratze gehiagorik ez gertatzeko esku hartu duten pertsonen segurtasuna eta interesak arriskuan jartzen ez baditu.

5/ BERRIRO EZ GERTATZEKO BERMEAK

Gertatutakoa berriro gerta
ez dadin bermatzeko
beharrezkoak diren neurriak
hartu behar dira.

ESTRATEGIA
INTEGRALA

5/ Berriro ez gertatzeko bermeak

- Prozedura guztiek prozesuko bermeak eta ekitate-neurriak betetzea
- Botere Judizialaren indartzea eta independentzia
- Prozesuan parte hartzen duten profesionalak portaera-kodeak eta arau etikoak bete ditzaten sustatzea
- Emakumeenganako indarkeriaren kontrako legeen berrikusketa eta beharrezko erreformak
- Emakumeen aurkako indarkeria-egoerak prebenitzeko, zaintzeko eta konpontzeko mekanismoak sustatze
- Gizarteko sektore guztiak balioen arloan hezteak.
- Erreparazio-prozesuan parte hartzen duten profesionalak babestea.

Istanbulleko Hitzarmenaren ⁴ arabera, "...emakumeen aurkako indarkeria mota guztiei aplikatuko zaie; besteak beste, etxeko indarkeriari, edota emakumeei modu desproporzionatuan eragiten dienean. (...) eta bake-garaietan nahiz gatazka armatuko garaietan aplikatuko da"; hortaz, emakumeen aurkako indarkeria ere hartzen du barnean, giza eskubideak urratzen baititu.

4/ Europako Kontseilua: emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren kontrako prebenzio eta borrokarako Europar Kontseiluaren Hitzarmena. 2. artikulua, 1. eta 3. paragrafoak. Istanbul, 2011ko maiatza.

2/ Kalteak erreparatzeko esku hartzea


Emakume bizirauleentzako arreta erreparatzaileak esan nahi du erasoek eragindako berehalako eta ez berehalako ondorioei arreta eskaintzea: osasunean, ekonomian, lan-esparruan, afektibitatean, justizia-eskubidean eta abarretan. Eta arreta-sistemak eta baliabideak behar dira indarkeria horren ondorioen jarraipena egiteko.

Dimentsio personaleko ondorioak izan arren, badute dimentsio soziala ere. Izan ere, inongo biztanleriak ez du onartu behar beren herritar emakumeen eskubide-urraketa zigorrik gabe gelditzea. Horregatik, ezinbestekoa da herritar guztien parte-hartzea sustatzea biktimen gogobetetzea eta aintzatespena lortzeko.

Indarkeria matxistaren esparruan, emakume biktima, subjektu pasibo bezala ulertua izan da eta bere kabuz jarduteko gaitasun eskas edo nulua duen pertsona bezala. Definizio hau ez da Eskubidean oinarritzen edota babesten, baizik eta ikuspuntu patriarkal batean, zeinek emakumeak, jasandako indarkeriaren arduradun bihurtzen dituen eta erasoak emakumeen ezaugarriekin lotzen dituen, guztiak negatiboak direlarik.

Honengatik ezinbestekoa da biktima bizirauleak bere erreparazio prozesuaren subjektu aktibo bezala aintzakotzat hartzea.

2A/1 Zer da erreparazio-printzipioa?



Esku hartze honek, emakume bakoitzaren ezaugarriak izan behar ditu oinarrian. Hau da, bere identitate eta egoera definitzen duten faktoreak izan behar dira kontuan, hurrengoak bilduz: Sexu/genero/sexualitate esleipena nola bizi duen, non bizi duen, zein den bere jatorria, zer motatako familia duen, ama den heinean bizi duen egoera, seme- alaben adina eta abar. Hots, ikuspuntu **Interseksionala** beharrezkoa da, biktimak adierazitako beharrian eta prioritateak modu egokian arreta eskaintzeko, baita aurre egiteko erabiltzen dituen estrategiak eta bere errebeldia mekanismoak eta indarkeriarenganako ukapena. Hau da, bizi izandako indarkeriari aurre egitea ahalbidetzen dizkion mekanismoak.

Esku hartzearen zeregin honetan, integritatea ezin bestekoa bihurtzen da, indarkeriak mindutako esparru guztiei jarri beharreko arreta bezala ulertua: fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, soziala, lan arlokoa eta abar.

Indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko, erreparazioak hauek egin behar ditu ⁵.

/ Indarkeriak emakumeengan, seme- alabengan, familia eta bere inguruarengan duen eragina onartzea

/ Eskubideen ikuspegia

/ Erabateko erreparazio-arreta

/ Ahaldunduz eskubideak leheneratzea

/ Erreparazio sozial publikoa

5/ Sakonago aztertuko ditugu gida honetako hurrengo ataletan.



<p>INDARKERIAK</p> <p>EMAKUMEENGAN,</p> <p>SEME- ALABENGAN,</p> <p>FAMILIA ETA BERE</p> <p>INGURUARENGAN</p> <p>DUEN ERAGINA</p> <p>ONARTZEA</p>	<p>Garrantzitsua da emakumeak eta haien seme-alabak biktimatzat jotzea (legez dagoeneko halakotzat hartzen dira), baina baita beste senide batzuk, lan-inguruneko pertsonak, etab. ere, prozesuan zehar biktima bihurtu baitaitezke. Ez ditugu ahaztu behar gizarte-arauak ezarritakoa ez den beste sexu- edo genero-orientazio eta -identitate bat duten eta indarkeria matxista jasaten duten pertsonak.</p>
<p>ESKUBIDEEN</p> <p>IKUSPEGIA</p>	<p>Biktima baliabideen hartzaile/erabiltzaile gisa ez ikustea, eta berak ere bere burua hala ez ikustea, baizik eta biktima bihurtu den eta eskubideak berreskuratu behar dituen emakume gisa.</p>
<p>ERABATEKO</p> <p>ERREPARAZIO-ARRETA</p>	<p>Ezinbestekoa da arreta-prozesu osoan kontuan hartzea erreparazioa dela helburua, zeharka lan eginez; arreta-protokoloek bost printzipioak hartu behar dituzte barnean esku hartzeko prozesu osoan zehar.</p>
<p>AHALDUNDUZ</p> <p>ESKUBIDEAK</p> <p>LEHENERATZEA</p>	<p>Administrazioek lana erraztu behar diete biziraule biktimen elkarteei eta biktimekin ildo horretatik lan egiten duten beste era batzuetako elkarteei, indarkeria eragin duen egoera desagerrarazteko gai izan daitezzen.</p>
<p>ERREPARAZIO SOZIAL</p> <p>PUBLIKOAK</p>	<p>Egiaren printzipioa kontuan hartuta, administrazioek (besteak beste, udalerriek) ildo horretan lan egiteko eskumenak dituzte (adibidez, memorialak egiteko, kaleen izenak aldatzeko, etab.).</p>

/ Zer esparrutan aplikatu daitezke erreparazioak?

1/ Esku-hartze mailak

Lehen aipatu ditugun erreparazioaren bost osagaiak hiru esku-hartze mailatan banatzen dira: indibiduala, kolektiboa eta publikoa; hau da:

- **Maila indibiduala:**

Leheneratzea

Kalteak erreparatzeko esku-hartzea edo errehabilitazioa

Kalte-ordain ekonomikoa

- **Maila kolektiboa:**

Leheneratzea

- **Maila publikoa:**

Leheneratzea


Gogobetetzea

Berriro ez gertatzeko bermea

Beste bi osagai gehi daitezke:

- **Maila kolektiboan:** Emakume biktimen / Biziraule emakumeen elkarteak

- **Maila publikoan:** Aitorpena, gogobetetzearen printzipioari lotuta.



1.1 / Esku-hartze indibiduala

Biktima giza eskubideak urratu aurreko egoerara itzultzea ⁶ez ezik, gertatutakoa gainditzea ere badakar, ahalduntzearekin erlazionatutako zenbait prozesuren bidez; une oro, eskubideak urratu direla izan behar dugu gogoan, zeinak leheneratu egin behar baitira.

Arreta-prozesu osoan erreparazioa izan dadin helburua, garrantzitsua da **emakume biktimei sistema publikoan sartzeko bide gehiago eskaintzea**, indarkeria-egoeretatik atera ahal izateko.

Bide horiek ezin dira izan soilik gizarte-zerbitzuak edo polizia-zerbitzuak, eta ziur egon behar dugu ezein **zerbitzutan ez direla estigmatizatutako** emakumeak, bizimodu edo ezaugarri pertsonal estereotipatuetan oinarritutako biktimaren kontzeptua abiapuntutzat hartuta. Ezinbestekoa da biktimekin zuzenean lan egiten duten pertsonak generoaren arloko prestakuntza zabala izatea.

Esku-hartze indibidualetan, **biktimen datu pertsonalen pribatasuna bermatzeari** buruz legeriak dioena bete behar da; hala ere, horrek ez du

^{6/} Erreparazio eraldatzailearen kontzeptua sustatu nahi da justizia leheneratzailea edo errestituzioa gaindituta; izan ere, azken horren helburu bakarra da biktima eskubideak urratu aurreko egoerara itzultzea, nahiz eta egoera hori diskriminatzailea izan



esan nahi biktimari baimena eskatu eta zerbitzu batetik bestera bideratzen lagunduko ez denik irtenbide bat aurkitze aldera.

1.2 / Esku-hartze kolektiboa eta komunitarioa

Ikuspegi sozialetik, komunitateak parte hartu behar du biktima erreparatzeko prozesuan; komunitateak indarkeria matxistaren aurkako borrokan dagokion erantzukizuna hartu behar du, arazo kolektibo bat baita.

Asoziazionismoa sustatu behar da, **biziraule emakumeei laguntzeko bide gisa ulertuta**; haren bidez, leheneratzeko prozesuaren parte gisa emakumeen ustez egokiena den moduan lagundu behar zaie.

Ikuspegi feministatik, emakumeentzako arreta-zerbitzu guztiek eraldaketa soziala ekarri behar dute, eta esku-hartze osoari aplikatu behar zaio ikuspegi hori. Zerbitzuek ez dute zertan publikoak izan (emakumeen elkarteak edo ahalduntze-eskolen elkarteak, emakumeen etxeak, etab. izan daitezke), eta biziraule emakumeak komunitatean txertatzea izan behar dute helburu, autonomia eta ahalduntzea landuz. Asoziazionismoak ez ditu administrazioen hutsuneak betetzen soilik, baizik eta jarrera errebindikatzailea handitu ere egiten du.

Beharrezkoa izan liteke kaltetutako kolektiboekin esku hartzea (besteak beste, familiak eta hurbileko pertsonak edo eskola-komunitatea),

indarkeria-egoerak biktimaren harremanetako eta erreferentziako ingurune sozialetan zer eragin izan duen kontuan hartuta, indarkeria nola bizi izan duten jakiteko, biktimarekiko eta kaltetutako pertsonetikiko elkartasuna aktibatzeke eta guztiek elkarri laguntzeko, eta komunitateetako loturak eta elkarbizitza leheneratzeko.

1.3 / Esku-hartze publikoa

Erreparazioaren ikuspegitik, ezagutarazi egin behar dira **biziraule emakumeen esperientziak**, haien ekintza kolektiboak eta hildako emakumeen aldeko omenaldiak eta oroitzapen-ekitaldiak. Era berean, berriro ez gertatzeko bermearen printzipioa bete dadin lan egin behar da; horretarako, prozesu osoan zehar esku hartzen duten profesionalak behar bezala prestatuta eta sentsibilizatuta egon behar dute, eta, behar izanez gero, arlo horretako arauak aldatu edo sortu behar dira.

Horrez gain, honelakoak ere behar dira:

- **Sentsibilizazio-ekintzak**, oro har herritarrei nahiz talde zehatzei zuzendutakoak, berdintasunezko eta indarkeria matxistaren aurkako balioak eta jarrerak sustatzeko, zalantzan jar daitezten emakumeen eta gizonen arteko botere-banaketa desberdinean oinarritutako gaur egungo ereduak iraurarazten dituzten estereotipo eta egiturak. . Matxista ez den biztanleria hezi beharra dago biolentzia gabeko kultura batean.
-



Eskema 10

- Indarkeria **prebenitzeko esku-hartzeak** ezartzea, nola orokorrak hala arrisku handiagoa duten edo ahulagoak diren eta eragin handiagoko ingurune edo testuinguruetan bizi diren taldeei zuzendutakoak.
- Berriro ez gertatzeko printzipioa bermatzeko erasotzaileekin neurri zehatzak. Indibidualki eta taldeka egindako saioen bitartez, matxismotik eta patriarkatuatik sortutako portaerak aldatzeko, eta errespetua eta berdintasunetiko portaera forma berriak sortzeko gai izan daitezenez gero. Eraikitzeo deseraikitzea beharrezkoa da.

2/ Kalteak erreparatzeko esku-hartzearen ezaugarriak: erreparazio motak

Kalteak erreparatzeko esku-hartzeek aktuazio printzipio hauek hartu behar dituzte kontuan: (Eskema 10)

Jarraian, printzipio horietako bakoitza garatuko dugu labur-labur:

- **Emakumeak erdigunean jartzea:** Emakume biktimak prozesu osoaren subjektu aktiboak dira; hortaz, haiek hartu behar dituzte erabakiak, bai prozedurarekin berarekin erlazionatutakoak, bai prozeduraren fase bakoitza denboran banatzeko moduarekin erlazionatutakoak. Kontuan izan behar da intersektionalitatearen ikuspegia; hau da, indarkeriaren bizipena eta kontzientzia emakumearen bizitzako hainbat alderditan

oinarrিতта eraikitzen direla, eta diskriminazioa edo indarkeria eragin dezaketen eta kontuan izan behar diren beste faktore batzuk ere integratzen dituztela (genitalitatea, adina, etnia, dibertsitate funtzionala, jatorria, administrazio-egoera, sexu-orientazioa, itxura fisikoa, menpekotasunak, gizartean baztertuta geratzeko arriskua, etab.).

Ikuspegi hori kontuan hartuz gero, esku-hartzea ezaugarri horietara guztietara egokitu behar da, ezaugarri horiek bereizten baitituzte istorioak emakumeen egoera eta ezaugarrien arabera.

- **Zeharkakotasuna bultzatzea:** Bizirik ateratako emakumeentzako arretan esku hartzeko prozesuko fase guztiak biltzen dituen prozedura gisa hartu behar da erreparazioa; besteak beste, larrialdiko arreta eta hari erantzuteko martxan jartzen diren zerbitzu eta baliabideak, sendatu denean eta bizimodu normalizatuari berriro ekin nahi dionean duen laguntza, etab.
 - **Berriro biktima ez bihurtzea:** Ahalegin guztia egin behar da esku-hartze osoan zehar eta esparru guztietan emakumeak berriro biktima bihur daitezen saihesteko, ezin daiteke biktimari arrera ematen dieten profesionalen mala praxiagatik, biktimari min gehigarri bat eragitea onartu.
 - Gertatutakoagatik biktimak **ez errudunestea:** Biktimak artatzen dituztenek ezin dituzte emakumeak egin genero-indarkeriako gertakarien
-



erantzule. Erasotzailearena izango da beti erasoaren erantzukizuna. Biktimak indarkeria horri erantzuteko moduak ez du justifikatzen tratu iraingarria ematea. Bizitza da garrantzitsuena, eta, erasoaren ezaugarrien arabera, emakumeek ahal duten bezala defendatu behar dute beren burua, bizirik iraun ahal izateko. Ezin bestekoa da biktimarekin batera estrategia egokienak identifikatzea, azken hauek indartuz bere ahalduz eta autonomia prozesua helburutzat izanik. Estrategia hauek, berriro biktima ez bihurtzearen printzipioari egiten diote erreferentzia.

Eragindako kalteei arreta jarritz, indarkeri matxistaren biktima mota zehatzak identifikatu daitezke, erreparazioa esparru desberdinetan kokatzeko. Esparruan bertan eta biktima motaren araberrako esku hartze desberdinak azalduko dira jarraian:

Gainera, 6.2 puntuko, 3a eta 3b taeuletan, atal honetan landutakoa garatzen da, tokiko mailan martxan jarri ahal diren esku hartze adibide desberdinak batuz.

2.1 / Esparruan bertan oinarritutako indarkeria matxistaren biktimarekin esku- hartzea

2.1.1 / Erreparazio soziala eta sinbolikoa

Se trata de un nivel de reparación colectivo y público.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista ezin da hartu kasu isolatu gisa; globalki esku hartu behar da, eta gizarte-eragile guztien konpromisoa lortu (alde batera utzita justiziak emakume biktimari irtenbide bat eman dion ala ez, justiziara jo bada), hura eragin duten ideia matxistak desagerrarazi ahal izateko.

Erreparazio sinbolikoak egia jakiteko eskubidearekin du zerikusia, eta biktimak aitortzeko guneak sortzearekin; gogobetetzearen printzipioari lotuta dago, eta honela definitzen da: “biktimei edo komunitate osoari ematen zaien prestazio oro, zeinak ziurtatu egiten baitu memoria historikoa babestea, biktimari gertatutakoa berriro ez gertatzea, gertatutakoa publikoki onartzea, jendeari barkamena eskatzea eta biktimen duintasuna berrezartzea”⁷; hau da, biktimen duintasuna berrezarri nahi du, eskubideak urratu direla aitortu (agerian jartzea) eta gertatutakoa ahaztuko ez dela bermatu. Nahiz eta berez gatazka belikoko testuinguruan idatzi zen, definizio hori indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei ere aplika dakieke, baina bien arteko desberdintasunak kontuan izanik: emakumeen aurkako indarkeria forma desberdinek, gerra gaiak ez bezala, ezin daiteke denbora tarte jakin batean finkatu, izan ere, ez du hasiera eta amaiera zehatzik, egiturazko indarkeria delako.

7/ Kolonbiako Errepublikako presidentetza. “Ley 1448 de 2011 por la cual se dictan medidas de atención, asistencia y reparación integral a las víctimas del conflicto armado interno y se dictan otras disposiciones”.

2.1.2 / Erreparazio ekonomikoa / ondarezkoa

Erreparazio indibidualari dagokio, eta era guztietako indarkeriari aplikatu daioke, ez bakarrik ekonomikoari.

Hauek biltzen ditu:

- Erasotzaileak kalte-ordain ekonomikoa ematea (bide penala edo zibila): zerbitzu juridikoetara deribatzea. Kasu honetan, eskubide gisa ulertu behar da, eta bide horretatik aholkatu, askotan biktimek eurek ez baitute nahi izaten kalte-ordaina eskatzeko eskubidea erabili, gizarte-inguruneak onura materialak eta ekonomikoak lortu nahi dituztela pentsatuko duelakoan.
 - Gizarte-laguntza ekonomikoak eskuratzea: erasotzailearengandik banandu ondoren oinarrizko beharrei (elikadura, etxebizitza, hezkuntza – adingabeak ardurapean izanez gero –, etab.) aurre egin behar dieten emakume biktimek kasuan; emakume horietako askok ez dute lanik edo ezin dute erabili bikoteak aurreztutakoa. Gehienetan, bestelako indarkeriarik egon ez denean, oinarrizko gizarte-zerbitzuak jartzen dira lehenik biktimekin harremanetan, eta zer aukera dituzten (ez-baztertzatzaileak) eta nola esku hartuko den azaltzen.
-
-
-

- Hala badagokio, erasotzaileak hartutako ondasunak itzultzea: Lan-inguruneko indarkeria ekonomikoaren ⁸ kasuan ere, kalte-ordaina izan ohi da erreparazio-metodo nagusia, gogobetetzearekin batera. Administrazioen erantzukizuna da biktimei beren eskubide ekonomiko eta laboralen berri ematea, batzuetan, zenbait emakumeren egoera berezia dela-eta (bizileku- edo lan-baimenik ez duten etorkinak, maila kultural txikia dutenak, etab.), biktima ezin hobeak bihurtzen baitira enpresa batzuentzat.

2.1.3 / Reparación Judicial

NBEren arabera ⁹ legediak aitortu behar du “emakumeen aurkako indarkeria diskriminazio-mota bat dela, emakumeen eta gizonen arteko botere-erlazio historikoki desberdinen adierazpen bat eta emakumeen giza eskubideen urraketa bat dela”; halaber, ikuspuntu zehatz eta diziplina anitzekoa izan behar dela dio: “emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak tipifikatu behar dira, prebentzioaren, babesaren, ahalduntzearen eta bizirik atera direnak laguntzearen inguruko alderdiak barne hartu


^{8/} Enpresa batzuek langileengan eragiten duten indarkeria da: lan-eskubideak ukatzen dizkiete, eta horrek eragin negatiboa du haien diru-sarreretan (adibidez, kontraturik formalizatzen ez bada, ordaindu gabeko aparteko orduak egin behar badituzte, gizonetako lankideek baino soldata txikia jasotzen badute, etab.).

^{9/} NBE Emakumeak: “Manual de Legislación sobre la violencia contra la mujer”. 2012

behar dira (sanitarioa, ekonomikoa, soziala eta psikologikoa) , zigor egokiak jarri behar zaizkie delituen egileei, eta irtenbide juridikoak izan behar dira bizirik ateratzen diren biktimentzat”.

Ikuspegi hori aintzat hartuta, Espainiako estatuan horretarako epaitegi espezifikokoak dauden arren, oraindik ere hutsune handiak daude, bai emakume biktimen arretari dagokionez, bai biktimei erreparazioa emateko printzipioari dagokionez.

Lehenago esan dugunez, 1/2004 Lege Organikoak bikote barruan edo bikote izandakoaren barruan egin dena bakarrik onartzen du genero-indarkeriatzat. Hala, emakumeen aurkako indarkeria jasaten duten emakume asko suposizio horretatik kanpo geratzen dira. Gainera, lege horren arabera sexu-indarkeria ez dago genero-indarkeriaren baitan, “sexu-askatasunaren” aurkako delituenetan tipifikatzen baita; beraz, delitu horien biktimek ez dute sarbiderik baliabide jakin batzuetara (errehabilitazio integrala, etab.), eta legeak genero-indarkeriaren biktimatzat aitortzen dituzten biktimek bai. Baina arazo nagusia da epaileek ez diotela kasurik egiten NBEk esandakoari; hots, emakumeen aurkako indarkeria ez da kontuan hartzen giza eskubideak urratzearen ikuspegitik (Istanbuleko Hitzarmenean ere hala jasotzen da, eta estatuak sinatu eta berretsi zuen hitzarmen hori), eta are gutxiago ikuspegi feminista batetik. Prestakuntza egoki bat, eta, batez ere, lehenbailehen egin beharrekoa, funtsezkoa da, ez bakarrik biktimei eragindako kaltea



erreparatzearen eta haien behar guztiak asetzearen lehentasunezko ikuspuntutik, bai eta indarreko legeak betetzearen ikuspuntu hutsetik ere.

Beraz, beharrezkoa da generoaren ikuspegitik egitea legearen irakurketa. Estereotipoek testigantzak lausotzea, frogen irakurketa subjektiboak eta abar onartzen badira, diskriminaziozko epaiak emango dira halaber, justizia errealki gabeak. Epaizten diren egitateak bakarrik baloratu behar dira, biktimaren egoera eta jarrera pertsonalak alde batera utzita, eta ez da onartu behar informazio-mota horrek (partziala izaten da askotan) epaia emango duenaren objektibotasuna ilundu dezan, objektibotasuna beharrezkoa baita: Indarkeria-egoera kroniko batean murgildua egoteak edo izaera sexual edo sexistako eraso bat jasateak ez dakar berekin portaera jakin bat garatzea. Hots, ez dago biktima nor den edota biktimak nola jokatu behar duen zehazten duen profilik eta portaera hau ez da epaitu behar dena.


Erasotzaile berak biktima berari eragiten dion indarkeria continuum batean hartzearen ikuspuntuari jarraitu behar zaio, eta gertaera horiek ez dira epaitu behar banan-banan. Kontuan izan behar da, halaber, biktimak eragin negatiboak izaten dituela osasunean, bizitza sexualean, familiako eta gizartearekiko bizikidetzan eta beste alderdi batzuetan, ez baitira beti kontuan hartzen erreparazioa mugatzeko garaian.

Emakume biktimekin esku hartzean, salaketaren ondoren martxan jartzen den prozedura judiziala izan ohi da prozesu osoaren muina, eta

Kode Penalaren ikuspegitik legea urratu duenari zigorra ezartzea da helburua, baina ez da lehenesten biktima erreparatzea, zeina prozesu osoaren lekuko hutsa bihurtzen baita. Indarkeria matxistako kasuetan, erasotzailea, sistema judizialak ezarritako zigorra bete ondoren ere, arrisku potentziala izan ohi da erasoak jasan zuen emakumearentzat; halako kasuetan, bistakoa da legeak dioena betetzeak ez duela hobetzen emakumearen bizitza, eta ez dakarkiola erreparaziorik. Hori dela eta, hauek egin behar dira erreparazio-prozesuan:

- Prozesu osoan biktimari entzutea, eta haren interesak ulertzea eta errespetatzea.
- Haren segurtasuna, ongizatea eta duintasuna lehenestea.
- Zigortutako erasotzailea egitea gertatutakoaren erantzule, eta kaltea erreparatzea; prozesuaren helburua ez da justiziak dioena betetzea soilik, baizik eta biktimarekin konplitu ere egin behar da. Erasotzaileak kontuak eman behar ditu.

Honaino iritsita, justizia sozialaz hitz egin behar da (eta ez bakarrik justizia penalaz). Erreparazio-prozesuak ez du zertan etorri estamentu judizialeatik; komunitateak berak ere ezar dezake biktima leheneratzeko prozedura, eta bai biktimak bai erasotzaileak bete beharko dute hartzen den erabakia. Hau, bide posible bat izan daiteke betiere, biktimak bide hau hartzeko erabakia libreki hartu izan baduen; erreparazioa prosedimendu judizialik gabe ere eman daiteke.



Bitartekaritzari dagokionez, ulergarria da a priori prozedurarik egokiena ez izatea genero-indarkeriako kasuetan, alde batek boterea baitu bestearengan; beraz, ez dago berdintasunik. Bitartekari-lana egiten duenak egoera hori konpentsa lezake, baina oso prestakuntza eta sentsibilizazio zehatzak izan behar dira horretarako. Bitartekaritza inoiz ezin da inposatu.

Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoak **“genero-larrigarria”** figura juridikoa ekarri zuen, zeina aplikatu behar baita emakume baten aurkako delitua egin duenak biktima emakumea izateagatik eta biktimaren gainetik dagoela garbi uzteko asmoarekin egin duela egiaztatzen den kasu guztietan, erasotzailea eta biktima elkarrekin bizi diren edo harreman sentimental bat duten kontuan izan gabe. Lege horren hitzaurreko XXII. tituluaren arrazoitzen denez, generoa diskriminazio-kausa gisa sartzen da, kontzeptu horri Istanbulerako Hitzarmenean ematen zaion definizioa aintzat hartuz (hots, “gizarte jakin batentzat gizonetzkoek edo emakumezkoek berezko dituzten paper, portaera edo ekintzak”, *“sexuaren erreferentziak jasotzen dituenek bestelako diskriminaziozko ekintzen arrazoibidea izan daiteke”*).

Geroagoko epaitegi batzuetan, jurisprudentzia finkatu izan da genero-larrigarria ahaidetasun-larrigarriarekin bateraezina izateari dagokionez.

JUSTIZIAGARRITASUNA

ERABILGARRITASUNA

ESKURAGARRITASUNA

Estatu Itunaren 146. neurrian (biktimei justiziaren esparruan laguntza eta babesa emateari egiten dio erreferentzia), kaltea erreparatzeko eskubidea aitortzen da, eta adierazten da beharrezkoa dela “sistema judizialean izan daitezkeen akatsak aztertzea, eta eragindako kaltea erreparatzeko eskubidea aitortzea, aplikatu beharreko araudiarekin bat etorritik. Zabarkeria judiziala frogatuta dagoen kasuetan, Estatuak kaltearen erreparazio ekonomikoa eta ikerketa –berriro gerta ez dadin– bere gain hartzea”. Beraz, neurri horretan oinarrituta legeak aldatzen direnean, aldaketa bat izango da erreparazio-printzipioa aplikatzearen aldetik.

Nola bermatzen da emakumeek eskuratu ahal izatea? Osagaiak.

CEDAWren 33. gomendioaren arabera, sei osagai hauek bermatzen dute emakumeek justizia eskuratu ahal izatea:

JUSTIZIAGARRITASUNA

Emakumeek justizia mugarik gabe eskuratu ahal izatea, baita beren eskubideak aldarrikatzeko gaitasuna eta ahalordea izatea ere.

ERABILGARRITASUNA

Dagokion estatuan (nola hiriguneetan hala landaguneetan eta urrutiko tokietan) auzitegiak eta beste organo kuasijudizial batzuk (edo bestelakoak) ezartzea, baita haiek mantentzea eta finantzatzea ere.

**JUSTIZIA-SISTEMEN
KALITATE ONA**

BALIABIDEEN APLIKAZIOA

KONTU-EMATEA

ESKURAGARRITASUNA

Justizia-sistemak (nola ofizialak hala kuasijudizialak) seguruak izatea, ordaindu ahal izatea eta emakumeentzat fisikoki eskuragarriak izatea, baita haien beharretara moldatzea eta behar horietarako egokiak izatea ere (besteak beste, diskriminazio-modu interseksionalei edo konposatuei aurre egiten dietenak).

**JUSTIZIA-SISTEMEN
KALITATE ONA**

Sistemaren osagai, guztiek eskumenari, efixizientziari eta inpartzialtasunari buruzko nazioarteko arauak gordetzea, eta genero-kontuak emakume guztientzat kontuan hartuko dituzten baliabide egoki eta eraginkorrak eskaintzea, gero eta emakume gahiagok eskatzen baitute justizia.

**BALIABIDEEN
APLIKAZIOA**

Justizi-sistemek emakumeei babes bideragarria eta jasan duten kalte orenen erreparazio esanguratsua eskaintzea

KONTU-EMATEA

Justiziak behar bezala funtzioatzen duela zaintzea, aurreko bost printzipioen arabera jardun dadin (alegia justiziagarritasuna, erabilgarritasuna, eskuragarritasuna, kalitate ona eta baliabideen aplikazioa)

2.2 / Indarkeri matxistaren biktima mota zehatzekin esku hartzea

2.2.1 / Sexu-indarkeriaren biktimen erreparazioa.

Indarkeria sexualen emakume biktimak, legearen arabera ez direla genero indarkeriaren biktima bezala aintzakotzat hartuko gogoan hartu behar da. Ondorioz, biktima hauek, ez dituzte genero indarkeriaren biktimei zuzendutako baliabide guztiak eskuragarri. Honengatik, indarkeria mota hau indarkeria matxistaren detekzio, arreta eta prebentzio protokoloetan barne hartzea berebizikoa da.

Emakumeen aurkako sexu-indarkeria honela laburbildu daitezke, haren motak eta esparruak kontuan hartuta:

• Indibiduala (biktima):

- Ezezagunek une zehatz batean egindako sexu-erasoak (erasotzaile kopurua edozein dela ere)
- Hauek eragindako sexu-indarkeria:
 - Bikotekidea edo bikotekide ohia.
 - Familia-ingurunea.
 - Gertuko ingurune soziala.
 - Lan-ingurunea.

Kasu honetan, bikote edota bikote kide ohiak eragindako erasoak salbu, Pertsona bat baino gehiagok eragindako indarkeria jasan dezake biktimak..

• **Kolektiboa** biktima): abusu jarraituak dira::

- gatazka armatuko egoeretako botere-estrategia.
- Emakume eta nesken salerosketa.

Emakumeen aurkako indarkeria sexuala mota eta esparru anitzak aintzat hartuz hurrengo eran eskematizatu ¹⁰ daiteke:

Kasu guztietan, erasotzaileak boterea duelako egiten du eraso (botere fisikoa, emozionala, laborala edo bestelakoa). Esku hartzean, faktore horiek egoera jakin horretan konbinatzeko modua hartu behar da kontuan; adibidez, maila hierarkiko handiagoko norbaitek emakume langile bati lan-xantaia eginez eragiten duen sexu-indarkeria jarraituak kautelazko neurriak jaso beharko ditu, hala nola lantokian biktima eta erasotzailea banatzea.

Sexu-indarkeriaren biktimekin esku hartzean erreparazio-printzipioa aplikatzeko, hauek egin behar dira:

• **Erabateko sorospena eta informazioa:** Administrazioek erabateko sorospena bermatu behar diete biktimei (alegia, laguntza eta arreta sanitarioa, psikologikoa eta juridikoa), baita dauzkaten eskubideei eta


10/ Puntu honetan, Indibiduak eta Kolektibo kontzeptuek, biktimari egiten diote erreferentzia eta ez indarkeria eragiten duen pertsona edota pertsonengan.

bideratu beharreko prozedurei buruzko informazio zehatza ere, ahalik eta ongien senda daitezzen eta beren eskubideak berreskura ditzaten.

Istanbuleko Hitzarmenak ¹¹ estatuei eskatzen die “behar diren legegintza-neurriak edo bestelakoak har ditzatela bortxaketen edo sexu-indarkeriaren biktimei larrialdiko laguntza emango dieten zentroak sortzeko; zentro horiek egokiak, irisgarriak eta behar bestekoak izan behar dute, eta, bertan, azterketa medikoa eta mediko-forentsea egingo zaie biktimei, traumatismoarekin erlazioatutako laguntza emango, eta aholkuak eskainiko”. Sorospen egokia bermatzeko, krisialdietako zentro horiek eguneko 24 orduetan egon behar dute zabalik, urte osoan zehar, eta beren zerbitzuak biktimen inguruneke senide eta pertsoneri ere eskaini.

- **Larrialdiko arreta sanitarioa eta azterketa forentsea:** Berehala eman behar dituzte zainketa medikoak profesionalek, zeinek prestakuntza egokia izan behar dute, eta biktimaren intimitatea errespetatu behar dute une oro. Ez dute areagotu behar biktimaren trauma; horrela, prozedura judizialean erabiliko diren proba guztiak biltzeko egin beharreko azterketa medikoak prozesuko bermeak gordez eta biktima erabat errespetatuz egin ahal izango da. Gainera, administrazioen erantzukizuna da biktimei oinarritzko baliabideak berehala eskuratu ahal

11/ Europako Kontseilua: Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren kontrako prebentzio eta borrorakaro Europar Kontseiluaren Hitzarmena 25. artikulua. Istanbul. 2011



izango dituztela bermatzea; esaterako, haurdunaldi-testa, premiazko kontrazepzioa, sexu-transmisioko gaixotasunak detektatzeko probak eta haien tratamenduak, baita GIBaren aurkako tratamendu prebentiboa ere.

- **Poliziaren jarduna eta tratua:** Arreta sanitariokoe bezala, segurtasun-indar eta -kidegoetako profesionalek ere etengabeko prestakuntza jaso behar dute, biktima errespetuz tratatuko dutela ziurtatzeko, haren intimitatea eta integritatea bermatuz eta, batez ere, hura errudunetsi gabe. Prozesua jokabide-kode horiei jarraikiz gauzatzen dela ziurtatu behar dute administrazioek, baita prozeduren inguruko xehetasunak eman ere, ardurarik gabe jokatz gero.

- **Justizia-administrazioaren esparruko jardunak eta tratua:** Sexu-indarkeriaren biktimek eskubidea dute prestakuntza espezifikoa duten abokatuen laguntza jasotzeko eta prozesu penalean alderdi gisa agertzeko; administrazioak bermatu behar du biktimek eskubide horren berri badutela.

Genero-indarkeriaren biktimen kasuan (1/2004 Lege Organikoaren arabera), ofiziozko txanda bat eman diezaiekete profesional espezializatuak; aldiz, sexu-indarkeriaren biktimei, praktikan, ez zaie ematen berehalako arreta salaketa aurkezten dutenean, eta, askotan, segurtasun-indar eta -kidegoek ez diete esan ere egiten legezko zer eskubide dagozkien.

Bestalde, psikologia forentsearen ikuspegitik, arlo horretan diharduten profesionalak erabat prestatuta egon behar dute, biktimaren trauma handitu ez dadin eta prozesu penalean erabili beharreko informazioa biltzeko prozesua bizktimarekin zuzenean, biktima errespetatuz eta erabateko objektibotasunez, gauzatu dadin.

Prozedura judiziala aktibatzekotan, hurrengo premisak izan behar dira kontuan:

- Biktima izatea ez **du harremana izan behar** erantzun, portaera, jarrera edota elkar erlazio eta portaera jarraibideekin. Hau da, biktima batek ez ditu eraso baten aurrean izandako erantzunak justifikatu behar, bere erantzunek ez baitute biktima bihurtzen. Arreta, erasora mugatu behar da, eta biktimaren erantzunak normala ez den egoera batean ematen diren bizirauteko mekanismo erantzun normalak direla onartu behar da.
- Bizi izandako traumagatik, erasoaren ondoren biktimak berataz espero ez den bezala jokatzek ez du esan nahi biktima ez denik; batez ere, indarkeria sexuala ematen denean non emakumeak eraso jasan ondoren izan beharreko jokamoldearen gaineko estereotipoek emakumearen aurka egin dezketen. Cayo Julio César parafraseatuz “*biktima ez da solik izan behar, bazik eta itxura ere eman behar du*”, ez da onargarria indarkeria sexualen auzia- jartzen duenak sinisgarritasun desberdina izatea beste edozein motatako prozedimendu judizialean egoten dena baino.

- Biktimaren historial sexuala **garrantzirik** gabekoa izan behar da kasurako.
- Salaketaren **atzerapenaren kontrako inferentzirik** ez egotea; hau da, emakumeak momentu berean salaketa ez jartzeak ez du sententzia ezarriko duenarengan aurretiaz eragin behar, atzerapenak gertatutako adierazitako gertaeren baten bateko faltsutasuna dela suposatuz.

Guzti honengatik, 24 orduko Krisi Zentroak eratzea, arreta integral eta puntu honetan barne hartutako indarkeria sexualeko mota eta honen esparru guztiak biltzen dituen protokoloak izatea beharrezkoa da erabateko erreparaziorako esku hartzea gauzatu dadin. Indarrean sartutako 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurriena, arabera, udal entitateek eskumen zuzena dute genero indarkeriaren aurkako ekintzak burutzeko beraz, udalek, beraien aukera eta beharren arabera mota honetako arreta zentroak era ditzakete.

2.2.2 / Adingabe biktimen erreparazioa. Indarkeria sexualen biktima adingabeak

Hasteko, esan behar dugu oro har genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak babesteko sistemak babestu beharrekotzat jotzen dituela haien seme-alabak, eta ez genero-indarkeria jasatearen ondorioz urratu

2A/2 Zer esparrutan aplikatu daitezke erreparazioa?



zaizkien eskubide batzuen titular gisa; adingabeak ere erreparatu ahal izateko, ikuspegi hori aldatu behar da, eta eskubideak dituzten genero-indarkeriaren biktima gisa hartu behar dira, EstatuPaktuak barne hartzen dituen bezala.

Adingabeen integritateari eraso egiten dioten sei indarkeria mota bereizten ditugu ¹²:

- Indarkeria instrumentala: Aitak edo amaren bikotekideak egindako erasoak, ama kontrolatzeko modu gisa eta haren aurkako indarkeria gisa.
- Zuzeneko familia-indarkeria, zeinak eragin zuzena baitu haurrengan. Talde honetan sartzen da hauren aurkako sexu-abusua.
- Esposizio bidezko indarkeria, genero-indarkeria dagoen etxebizitza batean bizitzearen ondoriozkoa.
- Eskola-jazarpen matxista, adin berekoek egindakoa.
- Nerabeen kontrola eta haien aurkako genero-indarkeria.
- Ziberjazarpena.

12/ Abusu sexualak hurrengo kuadroaren lehen bi ataletan egongo lirateke.

Zer egin dezakete toki-administrazioek egoera horiei aurre egiteko?

Save the Children erakundeak ekintza hauek ¹³ aipatzen ditu, besteak beste

GENERO-INDARKERIAREN ADINGABEKO BIKTIMAK ARTATZEKO UDALAREN ESKU-HARTZE POSIBLEAK	Borondate instituzional publikoaHaurren eskubideen ikuspegia erabiltzea prozeduran.
	Egoeraren diagnostikoa egitea; hauek aztertzea:Esku hartzen duten profesionalen trebakuntza espezifikoa bermatzea.
	Adingabeetan genero-indarkeriazko egoerak prebenitzeko eta garaiz detektatzeko sistema eraginkorrak ezartzea hezkuntzan eta osasungintzan.
	Biktimekin zuzenean lan egitean nola joka litekeen.Haurrentzako berariazko gune fisikoak sortzea, haien beharretara egokituak, osasun-gizarte- eta polizia-sisteman.
	Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea.

13/ Geuk egina, argitalpen honetan adierazitakoaren arabera: En la violencia de género no hay una sola víctima. Atención a los hijos e hijas de mujeres víctimas de violencia de género. Save the Children. 2011

GENERO-INDARKERIAREN ADINGABEKO BIKTIMAK ARTATZEKO UDALAREN ESKU-HARTZE POSIBLEAK	<p>Udalerriko emakumeen elkarteak, alderdi hauei dagokienez: Biktima diren haurrentzako baliabide psikoterapeutikoak eskaintzea.*</p> <p>Udaleko politikari eta teknikariek eta zuzenean esku hartzen duten langileek zer prestakuntza-/sentsibilizazio-maila izan behar duten azaltzea: gizarte-zerbitzuak, polizia-zerbitzuak, arreta psikologikoko foru-zerbitzuak (eta, hala badagokio, udal-zerbitzuak), arreta juridikoko foru-zerbitzuak (eta, hala badagokio, udal-zerbitzuak)... Berreskuratze-programak eta familiei laguntzeko programak diseinatzea lotura afektiboak eta guraso-trebetasunak hobetzeko.</p>
--	--

Abusu edo eraso sexualak adingabekoei.

Sexu-abusu eta -erasoak adingabeei egiten zaizkien kasuetan, toki-administrazioek jarraian zehazten direnak egin behar dituzte:

- Adingabearen tutoreari aholku eman egingo diren prozedura judizialen inguruan, betiere Zigor Kodearen 191. artikulua araberako sexu-abusuzko delituak daudenean eta biktima adingabea denean. Nahikoa

*Nahiz eta gaur egun baliabide psikoterapeutikoak bigarren mailako zerbitzu gisa eskaintzen diren (askok zalantzan jarri dute ez ote liratekeen buru-osasunaren esparruan sartu behar), udalek hasieratik eskaini ditzakete.

izango da Fiskaltzaren salaketa; hau da, ofizioz jardun ahal izango da fiskalaren salaketa dagoenean, eta, horrenbestez, ez da beharrezkoa adingabeak aitortzea eta egitateak berrestea. Hala ere, fiskalak batzuetan ez du ikusten ofiziozko prozedura aktibatzeko adina zantzu.

- Abusuak edo erasoak biktimaren zuzeneko senideren batek eta/edo harekin bizi den edo gertukoa den pertsona batek egin dituenean, bermatu beharko dute (udaltzaingoak, familiarekin batera harrera-etxe batera eramanda, etab.) erasotzaileak ez izatea adingabearekin interakziorik izateko aukerarik urruntze-agindua ematen den artean; urruntze-agindua eman ondoren, baita adi egon beharko da erasotzaileak agindu hori urratu nahi badu.
 - Biktima adingabeentzat egokitutako espazio fisikoak sortzea sistema sanitarioan, sozialean eta polizialean.
 - Zerbitzu psikoterapeutikoak eskaintzea adingabearentzat eta haren senideentzat; komeni da saio horietan aztertzea ea abusu gehiago dagoen familia-inguruneko beste adingabe batzuekin.
 - Adingabearekin zuzeneko tratua dutenek (osasan-zerbitzuak, udaltzaingoa eta/edo Ertzaintza, psikologoak, gizarte-zerbitzuak, etab.) prestakuntza espezifikoa eta hurrekiko sentsibilitate berezia dutela bermatzea; ulertu beharko dute adingabeek egoera ulertzeko, komunikatzeko eta bestelakoetarako gaitasun-maila desberdina dutela,
-

SEXUAREN ARABERAKO LAN ESPARRUKO JAZARPENA

“Sexuan oinarritutako jazarpena da pertsona jakin batek sexuarekin zerikusia duen edozein jokabide, xede nahiz ondore dituen pertsonaren duintasunaren aurka egitea eta larderiakoa, apalesgarria eta ofentsakoa den ingua sortzea”.

JAZARPEN SEXUALA LAN ESPARRUAN

“Sexu - izaerako jokabide bat sortzea ahozkoa edo fisikoa xede nahiz ondore izateagatik pertsonaren duintasunaren aurka egitea, batez ere, larderiako, apalesgarria edo ofentsakoa de ingurua sortzea”.

Eskema 11

helduekin alderatuta. Erasotzailea biktimaren gertuko pertsona bat denean, ohikoa izaten da biktima errudun sentitzea erasotzailearekin zuten “sekretua haustearren”.

- Feminizidio kasuetan, laguntza integrala ematea familiei, umezurtz geratu diren adingabeen arduradunak direnez.

2.2.3 / Jazarpen Sexuak eta Sexuaren Araberako Biktimei erreparazio Lan Esparruan

Beharrezkoa da termino hauen arteko bereizketa egitea, honetarako, 3/2007ko Lege Organikoa, Emakumeen eta eta berdintasun erginkorrerako legean adierazitako definizioak azaltzen dira 7.1 eta 7.2 artikuluetan. (Eskema 11)

3/2007 Lege Organikoak ez ezik, Langileen Estatutuak ere sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena kontratuko falta gisa aitortzen ditu, eta diziplinazko ekintzak egin daitezke haiek gauzatzen dituztenen aurka. Biktimen ikuspuntutik, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean jotzen da biktimaren osasunari eragin diezaieketen laneko arriskuak direla.

Aipatutako lege organikoaren 48.1 artikulua arabera, enpresek “sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena saihesten duten lan-baldintzak bultzatu beharko dituzte, eta haiek prebenitzeko eta jazarpen horiek

jasan dituzten salaketa edo erreklamazioak bideratzeko prozedura espezifikoak egin beharko dituzte”. Beraz, enpresen betebeharra da prebentzio-neurriak ezartzea eta jazarpena gertatzen denerako beharrezko mekanismoak ezartzea. Hau da, gai horren inguruko jardute-protokoloak landu behar dituzte; horretaz gainera, funtsezkoa da enpresek konpromiso-maila altua izatea emakumeen eskubideak urratzen dituzten egoera horiek desagerrarazteko (emakume eta langile direnez).

Askotan, egoera salatzeak ekar diezazkiekeen ondorio negatiboen beldur izaten dira biktimak. Hori dela eta, jazarpena prebenitzeko eta sexu-jazarpeneko eta/edo sexuagatiko laneko jazarpeneko egoerak daudenean jarduteko barne-prozedurak bizkorra eta eraginkorra izan behar du, eta, batez ere, jazarpena jasan duten pertsonen helarazi behar die erakundearentzat garrantzitsuak direla, eta arazoa desagerrarazteko eta biktimari erreparazioa emateko behar diren neurriak hartuko dituela.

Erreparazio horretan, bost printzipio hauek bermatu behar dira:

- **Lehengoratzea:** Sexu-jazarpena izaten denean, batzuetan, gertaerak salatu ondoren, prebentzio-neurri gisa eta enpresako protokoloari jarraituta, biktima beste lantoki batera edo beste lanpostu batera lekualdatzen da. Egoera horrek behin-behinekoa izan behar du, eta bestelako erantzun-mota batzuk ezinezkoak direnean bakarrik egin behar da. Biktima ahalik eta lasterren jarri behar da jatorrizko lantokian eta lanpostuan, eta jazarpena egin duenari jarri beharko zaizkio neurri

1/ LEHENGORATZEA

2/ KALTE-ORDAINKETA

3/ ERREHABILITAZIOA

egokiak. Sexuagatiko jazarpenaren kasuan, zeharkako diskriminazioaren biktima izateagatik ukatu zaizkion eskubide guztiak itzuli behar zaizkio.

- **Kalte-ordainketa:** Jazarpen-egoerak eragindako kalte moralak, ondorio ekonomiko posibleak (depresioak eta/edo lanpostuan aritzeko beldurrak eragindako bajak, produktibitatea jaisteak nominan izandako ondorio negatiboak, etab.) eta laneko aukerak galdu izana ordaindu behar zaizkio biktimari; eta, halaber, biktimak enpresatik kanpo beharrezkotzat jo dituen zerbitzu profesionalak: zerbitzu psikologikoa, juridikoa, etab
- **Errehabilitazioa:** Justiziarako sarbide bizkorra bermatzea, eta biktimak nahi izanez gero, gertakariak dagokien epaitegietan salatzeako aukera errespetatzea, eta sarbide librea izatea osasuneko profesionalengana, psikologoengana, abokatuengana, etab.
- **Ordaina:** Dagozkion zigorrak ezartzea erasotzaileari, eta enpresak biktima gisa aitortzea biktima, halako moldez non, dena delakoagatik gainerako langileek egoeraren berri izango balute, enpresaren betebeharra izango baita biktimari ez egotzea gertatutakoaren errua desinformazioen eta/edo genero-estereotipoen ondorioz.
- **Berriro ez gertatzearen bermea:** Beharrezko neurriak hartzea (lanpostuz edo sailez aldatzea, txanda aldatzea, kaleratzea, etab.) erasotzaileek ez dezaten aukerarik izan jazarpen-ekintzak errepikatzeke.

4/ ORDAINA

5/ ERRIRO EZ GERTATZEAREN BERMEA

Gaur egun, dauden lan-egoeren ondorioz, enpresa eta administrazioek arreta berezia jarri behar dute emakumeak biktima nagusi izaten diren kasuen inguruan; izan ere, nagusiengandik errepresaliak jasotzeko arriskua dutenez –lanpostua galtzeraino–, emakume askok ez dute jazarpena salatzen, ez enpresan, ez laneko ikuskaritzan, ez epaitegian.

Ondorioz, jazarpena gerta daitekeen edo gertatu den lan-egituraren arduradunek bermatu behar dituzte bere mende erakundean eta zuzendaritzan lan egiten duten pertsonen lan-eskubideak eta funtsezko eskubideak, eta kalteak saihestu behar dituzte, prebentzio-kultura batetik (ez errepiatzeko bermea). Ez bada hala gertatzen, biktimaren aurrean erantzun beharko dute, eta erreparazio-printzipioa bete beharko dute beti, kontuan izan gabe biktimak jazarpena egin duenaren aurka beste bide batzuetatik salaketa jartzeko erabakia hartzen duen edo ez.

Jardute-protokoloak onetsi, martxan jarri eta aplikatzea; erreparazio-printzipioa aintzat hartu beharko da beti, erreparazioaren berme bat baita biktimentzat.

Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da enpresak/administrazioak kasuen segimendua egiteko esleitzen dituzten pertsonak bertaratzeko aukera izatea eta gaiaren inguruko sentsibilitatea eta oinarritzko prestakuntza

izatea, biktimei tratamendu egoki bat eta aplikazio justu bat bermatzeko protokoloak eta/edo indarrean den legediak aurreikusten dituen kasuetan¹⁴

2.2.4 / Solerosketaren biktime izan diren emakumeen erreparazioa

Palermoko Protokoloak honela definitzen du pertsonen salerosketa: “pertsonak erakartzea, garraiatzea, lekuz aldatzea, hartzea edo jasotzea, mehatxatuz edo indarkeria edo behartzeko beste modu batzuk, bahiketa, iruzurra, engainua, botere-abusua edo kalteberatasun-egoera erabiliz, edo ordainketak edo onurak emanez edo jasoz beste pertsona bat mendean duen pertsona baten baimena lortzeko, ustiapen-helburuekin. Ustiapenak, gutxienez, hauek hartzen ditu barnean: prostituziotik eta bestelako sexu-ustiapen batzuetatik, lan edo zerbitzu behartuetatik, esklabotzatik edo antzeko jardunetatik, zortasunetik eta organoen erauzketatik eratorritakoak”. Emakumeen kasuan, prostituzioa eta edozein motatako sexu-ustiapena izaten da helburua.

Gizakiak ustiapen-helburuekin salerostea giza eskubideen urratze larri bat da, eta, sarritan, beste eskubide batzuen urraketa dakar berekin, hala nola askatasunerako eskubidea, generoagatik baztertuta ez izateko eskubidea,

^{14/} Hala adierazten da, esate baterako, Lanaren Nazioarteko Erakundearen: “Convenio C19 sobre la violencia y el acoso”, 11. artikuluko b) eta c) ataletan.

osasunerako eskubidea, etxebizitza duin bat izateko eskubidea, tratu gizagaberik ez jasateko eskubidea, etab.

Salerosketaren biktima diren emakumeak zaugarritasun-egoera larrian egoten dira, etengabe bere eskubideak urratzeaz gainera, agiririk gabe egoten direlako herrialde ezezagun batean, hango hizkuntza eta legeak ulertu gabe; beraz, nekez joaten dira bere borondatez polizia-etxeetara edo bestelako zerbitzuetara laguntza eskatzera. Funtsezkoa da halako kasuak ikerketa polizialen bitartez edo osasun-zentroyen eta antzekoen bidez atzematea, tratulariek hermetismo handiz jokatzen baitute.

Kasu horietan, erreparazioak biktimen zuzeneko esku-hartzeari egiten dio erreferentzia, prebentzioari baino gehiago. Prebentzioa herrialdeetako botere legegileek eta betearazleek zehaztuko lukete, delitu horiek gogor zigortzeko eta desagerrarazteko; hala ere, zaila da helburu hori lortzea, pertsonen salerosketa baita, drogen eta armen trafikoaren atzetik, legez kanpoko negozioetatik irabazi gehien ematen duena mundu mailan.

Beraz, erreparazioaren inguruko zuzeneko esku-hartzeari dagokionez, biktimak askatu ostean, plan bat diseinatu beharko da biktimarekin adostuta eta haren nahi eta lehentasunak kontuan izanda. Horretarako, beharrezkoa da:

- Lehenik eta behin, ostatuaren eta mantenuaren alorreko behar premiazkoenez arduratzea.

- Babes poliziala ematea, izan daitezkeen errepresalietatik babesteko: arriskuaren ebaluazioa.¹⁵
- Laguntza mediko eta psikologikoa ematea.
- Lege-aholkularitza ematea herrialdean duen egoera administratiboaren inguruan eta erasotzaileen aurka har daitezkeen neurrien inguruan. Puntu horretan, adierazi behar da estatuko legedian mekanismo batzuk aurreikusten direla egoera irregularrean dauden biktimei babes legala emateko:
 - Gordelekua eta babes subsidiarioa arrazoi humanitarioengatik “Ez Itzultzea”¹⁶ ren printzipioa aplikatzea ez errepikatzearen printzipioa bermatzeko.
 - Aldi baterako bizilekurako baimena ematea arrazoi humanitarioak direla eta.
 - Aldi baterako bizilekurako baimena ematea agintariekin elkarlanean aritzearren.
 - Sareak desegiteko elkarlanean aritzeagatiko baimena.

15/ EAEn, “Barne-koordinazioko protokoloa, suspertzeko eta gogoeta egiteko aldiari dauden sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimei laguntzeko” protokoloaren arabera, delitua aztertzeaz

16/ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, ez itzultzearen printzipioa erabatekoa da. Beraz, salerosketaren biktimak jatorrizko herrialdera itzuliz gero haien biziaosotasuna edo askatasuna arriskuan badaude, estatuko agintariak ezin dituzte jatorrizko herrialdeetara itzuli.

- Haien jatorrizko herrialdeetara itzultzen laguntzea, erabakitzen duten denboran eta moduan.

2.2.5 / Genitalen mutilazioaren eta ezkontza behartuen biktima izan diren emakumeen erreparazioa

Istanbulko Hitzarmenaren arabera, emakumeen genitalen mutilazioa (aurrerantzean, EGM) eta ezkontza behartuak genero-indarkeria dira; beraz, estatuak delitu gisa jaso behar dituzte bere sistema juridikoetan. Gainera, NBEk dio ¹⁷ legeetan ezarri behar dela “ezinezkoa izatea emakumeen aurkako indarkeria justifikatuko duen ohitura, tradizio eta erlijiozko iritziak argudiatzea”.

Korrelazio bat dago EGMren eta ezkontza behartuen artean, neskatoei erritua egiten zaien unetik aurrera jotzen baita ezkontzeko adinako heldutasuna dutela. Beraz, baliabide gutxiko familiek horretan aukera bat ikusten dute neskatoaren senar izango denarengandik dote bat jasotzeko; trukerako txanpon soil gisa ikusten dira neskatoak. Ondorioz, ohitura hori murriztuko balitz, ezkontzera behartzen diren neskatoen kopurua murriztuko litzateke. Zoritxarrez, ohitura hedatua da Saharaz hegoaldeko herrialdeetan, zeinetan emakumeek bere senar, aita edo anaien mende baitaude erabat.

17/ NBE Emakumeak: “Manual de Legislación sobre la violencia contra la mujer”. 2012

Espainiako estatuan, 80ko hamarkadan hasi ziren EGM kasuak detektatzen, Afrikako herrialde horietatik iritsitako migratzaileen familiak berriro elkartzen hasi zirenean. Pixkanaka, jardute-protokoloak ari dira ezartzen osasun-zentroetan, gizarte-zerbitzuetan eta ikastetxeetan, esku-hartze eraginkor bat egin ahal izateko. Arrisku-egoera bat detektatzen bada, dagokion epaitegira helarazi behar da informazioa, neurri egokiak har ditzaten.

EGMren aurkako borroka konplexua da, eta emakumeen ahalduzuekin batera joan behar du. Gure udalerrietan bizi diren neskatok eta haietako batzuen amek mendebaldeko ohiturak barneratuak dituzten arren, aitona-amonen eta gainerako senideen eraginak arrisku-faktorea areagotzen du; izan ere, ohikoa izaten da oporretan jatorrizko herrialdeetara bidaiatzea, eta han mota horretako errituak egitea neskatok. Sarritan, familiak ez dakite legeak erritu horiek zigortzen dituenik.

EGMren biktimen erreparazioan, aurreko kasuetan bezala, funtsezkoa da prebentzio-lana (familia-inguruneke hezkuntza, arrisku-egoerak detektatzeko protokoloak sortu eta aktibatzea zerbitzuetan, eta abar). Dagoeneko EGM jasan duten emakumeekiko esku-hartzean, esku-hartzeak integratu izan behar du, eta barne hartu behar ditu, batez ere, kirurgia konpontzailea, arreta psikologikoa eta ohitura hori legitimatzen duen ingurunearekiko erlazioak berrezartzea.

Bestalde, ezkontzera behartzen diren emakumeen kasuan (adingabeak izan nahiz ez), estatuko araudiek ez dituzte onartzen ezkontza horiek,



baina haien tradizioen arabera baliozko ezkontzak egin daitezke, nahiz eta hemen ez diren legezkoak alderdi zibiletik. Egoera horietan, osasun-zentroek, ikastetxeek eta gizarte-zerbitzuek adi egon behar dute halako zantzuren bat dagoenean, eta ahalik eta lastarren esku hartu behar dute zantzurik txikiena dagoenean.

2.2.6 / Biziraule diren beste biktima batzuen erreparazioa

Indarkeria matxistaren biktimekin lan egitean, erreparazio-printzipioak biziraule diren beste biktima batzuk ere hartu behar ditu kontuan:


- **Familia-ingurunea:** Baliteke beste senide batzuek ere (adibidez, amona, aitona, izeba eta osaba) indarkeria matxistaren eragina jasatea. Kasurik muturrekoenetan (bikotekideak emakumea hiltzen duenean), senideek arduratu behar izaten dute adingabeez, eta komunitatearen erabateko babesa jaso behar dute, ez bakarrik ekonomikoa. Udaletako gizarte-zerbitzuek behar horiei erantzun behar diete lehenik (laguntza psikologikoa, sanitarioa, etab.); horretarako, zerbitzuak koordinatu behar dituzte, eta biktimei dauzkaten eskubideen eta bideratu beharreko prozeduren berri eman.

- **Lan-ingurunea:** Lehen esan dugun bezala, Nazio Batuen Erakundeko batzar nagusiaren ¹⁸ arabera, biktimatzat jotzen dira, halaber, “arriskuan zegoen biktimari laguntzeko edo biktima ez bihurtzeko esku hartzean kalteak jasan dituzten pertsona guztiak”. Kasu batzuetan, biktimaren lankideak ere biktima bihurtu dira, biktima erasotzailearengandik defendatu edo babestu behar izan dutelako eta, kalte fisikorik izan ez duten arren, sufrimendu psikologikoa edo antsietatea jasan dituztelako.

Familia bezala, lan-ingurunea ere oso garrantzitsua da biktimari behar duen babesa eta erreparaziorako tresnak eskaintzeko; biktimarengan sinestea, haren egoera ulertzea, hari entzutea, hura aholkatzea eta, zenbaitetan, erasotzailearengandik babestea zama handia da (gutxienez psikologikoa), eta komunitate osoak lagundu behar du, lan-ingurunea barne. Testuinguru horretan, esan gabe doa enpresak lanpostuan mantendu behar duela biktima haren egoeraren berri izatean; izan ere, nahiz eta gauza jakina izan, gehienetan kaleratu egiten da biktima zuzendaritza-taldeak zer gertatzen ari den jakin bezain laster.

- **Eskola-ingurunea:** Adingabeen zuzeneko biktimei dagokienez, hezkuntza-ingurunearekin elkarlanean jardun behar da, askotan gelakideak ere biktima baitira, testuinguru horretan bizi behar dutelako.

18/ Nazio Batuen Erakundeko batzar nagusia: “Declaración sobre los principios fundamentales de justicia para las víctimas de delitos y del abuso de poder” (A/RES/40/34, 1985eko azaroaren 29koa)



Eskema 12

Haien heldutasun-maila kontuan hartuta ondo ulertzeko moduan azaldu behar zaie zein den egoera, zer ondorio izan litzatekeen, etab. Era berean, irakasleak, laguntzaileak, etab. ere biktima izan litezke. Halakoetan, nagusiki arreta psikologikoa eman ez esku hartzen da.

Azkenik, laburpen gisa, esku-hartze mailak eta atal honetan azalduko erreparazio motak erlazioatuko ditugu beheko eskeman:

3^a parte

/ Erreparazio printzipioaren aplikazioa.

Udal aktuzioetan barne
hartzea



3A/

/ Erreparazio printzipioaren aplikazioa.

Udal aktuzioetan barne hartzea

/ Istanbulko Hitzarmenak ezarri zuenetik indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat dela, eta estatuen ardura denez herritarren artean eskubide horiek bermatzea (1993an Vienan egin zen Giza Eskubideen Munduko Konferentziaren 5. puntuan zehazten denez: “estatuen beharra da, edozein motatako sistema politiko, ekonomiko eta kulturalak dituztela ere, giza eskubide eta funtsezko askatasun guztiak bultzatu eta babestea”, indarkeria matxistaren biktimei behar duten laguntza emateko BETEBEHARRA dute estatuek. Erreparazio-printzipioa, eskubide gisa, ekintza horietan sartzen denez, arreta horretan printzipio horren osagai guztiak hartu behar dira aintzat.

Komenigarria da aipatzea, Giza Eskubideen urraketen biktime guztiak erreparaziorako eskubidea dutela; alabaina, indarkeria matxistaren biktimek ez dira beste indarkeria batzuen biktime bezala aintzakotzat hartuak izaten. Ondorioz, haiek erabat berreskuratzea bermatzeko eskuragarri jartzen zaizkien baliabideek ez dituzte beti lortzen erreparazio-helburua betetzea.

Toki-administrazioei dagokienez, indarkeria matxistaren biktimeen eskubide guztiak bermatu BEHAR dituzte, giza eskubideen urraketaren biktime direnez. Istanbulko Hitzarmenaren 7 artikuluan, 3. puntuan, hau jasotzen da: “artikulu honi jarraituta hartzen diren neurrietan, dagokien eragile guztiak hartu beharko dute parte, hala nola gobernu-agentziek, parlamentuek eta agintari nazionalak, eskualdekoek eta tokikoek,



giza eskubideen alorreko erakunde nazionalak eta sozietate zibileko erakundeek”.

Espainiar estatuan, araudiak Istanbulko Hitzarmenean zehaztutakora moldatzeko, ondorio horietarako Estatu Ituna sinatu ostean eta abuztuaren 3ko 9/2018 Legegintzako Errege Dekretua, genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurriena, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea aldatzen duena argitaratu ostean, udalen eskumenak ¹ dira “gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko eta genero-indarkeriaren aurka egiteko jarduerak”. Ez da zehazki aipatzen erreparazio-printzipioaren aplikazioa, baina berdintasunarekiko konpromisoa dagoen bitartean eta egiturazko indarkeria matxista bat dagoela eta mota horretako indarkeriaren biktime izateak giza eskubideak urratu izana dakarrela aitortzen den bitartean, urrats garrantzitsu bat egin da printzipio horren aplikazioan eta udala aitzindari izateko bidean. Alderdi horretan, nahiz eta oro har ia ez den diseinatu politika publikorik indarkeria matxistaren biktimei erreparazioa ematearen ikuspegitik, ibilbide eta esperientzia garrantzitsuak lortu dira alor horretan, bai berdintasun-zerbitzuen aldetik, bai gizarte zerbitzuen aldetik –udalekoak, foralak eta autonomikoak– .

1/ Udalaren eskumenak autonomia-erregimenean eta udalaren ardurapean egiten dira, eta gainerako administrazio publikoekiko koordinazioan zuzendu behar dira programazioa eta jarduerak.

Honenbestez, Udal Administrazioetatik zehaztu behar diren helburua hurrengoak dira:

- Biktimei beraien errekonferazio integralean laguntzea, maila sozial eta sinbolikoan bere biktima izatea aitortzea.
- Gertarak berriro ez gertatzeko bermea.

Helburu horiek betetzeko esleitzen diren baliabideak udalerrri bakoitzaren tamainaren eta egoeren arabera izango dira. Pentsatzekoa da probintziako hiriburuetan udalerrri txikietan baino baliabide gehiago izango dituztela alor guztietan; baina udalerrri txikietan lehentasunezko helburu gisa ezar daitezke adierazi ditugunak, eta, baliabide gutxiago izan arren, hiriburu handietan bezain emaitza onak izan ditzakete.

Funtsezkoa da politikariek konpromiso erreal bat izatea, eta konpromiso hori aurrekontu-partida egokietan eta zuzeneko arretako langileetan islatzea. Langile horiek kopuruz nahikoak izan beharko dute, sentsibilitatea izan beharko dute, eta udalerrriaren tamainaren eta beharren arabera prestakuntza izan beharko dute. Ezinbestekoa da, halaber, udal-arloen arteko koordinazioa eta udalaz gaindiko beste erakunde batzuekiko koordinazioa, eta biktimari ez eragitea sufrimendu gehiago.

Ahalduntzea ardatz duen ikuspegi feminista da erreparazio egoki bat bermatuko duen hirugarren zutabea. Biktima ez da ikusi behar zerbitzuen erabiltzaile soil gisa, baizik eta eskubideak dituen pertsona gisa; eta

laguntza/errehabilitazioa/kalte-ordainketa jasotzean nahi dituen prozedura, erritmo eta denborak biktimak markatu behar ditu, ez estamentuek eta zerbitzuek.

BABESA biktimak zehazten duen toki, modu eta momentuan eskaini behar da.

Gaur egun oraindik legez garatu ez den arren, Estatu Itunaren 2. ardatzean (“Erakundeen erantzuna hobetzea: koordinazioa. Sareko lana”) udalek gauzatzeko neurri batzuk jasotzen dira, besteak beste, tokiko laguntza-unitateak sortzea (73. eta 74. neurriak), biktimei laguntza eta babesa emateko behar duten une guztietan, betiere zeharkako ikuspegi batetik. Gizarte-zerbitzuetako, osasun-zerbitzuetako eta kasu bakoitzean behar den laguntza juridikoa emateko ardura duten erakundeetako langileek osatu behar dituzte unitate horiek, eta estatuko segurtasun-indar eta-kidegoekin eta emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko epaitegiekin lankidetzan aritu beharko dute. Praktikan, krisialdiko zentroak dira, eta, udalerrri bakoitzaren (edo mankomunitatearen) ezaugarrien arabera, baliabide gehiago edo gutxiago izango dituzte, motaz eta kopuruaz ari garela.

Bistakoa da zer-nolako garrantzia duen biktimari arreta ematen dioten zerbitzuen artean koordinazio eraginkorra izateak, kontuan izanda batzuetan protokoloak (udalekoak, mankomunitatekoak, Ertzaintzarenak, Osakidetzakoak, etab.) kontraesanean egoten direla aplikazio-eremuei,

jarduerari eta bestelako alderdi batzuei dagokienez. Beraz, funtsezkoa da parte hartzen duten eragile guztiak koordinatu eta zuzenduko dituen figura, sail edo zerbitzu bat izatea, zeinak genero-ikuspegia izango baitu, eta, horrenbestez, ikuspegi orokor bat ere bai. Horri esker, lehentasunak ezarriko ditu, eta, hala, administrazioek bideratzen dituzten baliabide materialak eta giza baliabideak ahalik eta gehiena aprobetxatuko dira. Ardura hori berdintasun-sailak edo -zerbitzuak izan beharko du, zeharka lan egiten duelako, beste sailen eta udal baliabideen funtzionamendua ezagutzen duelako, udalerriko errealitate sozialaren berri duelako, etab; eta, halaber, ekintza prebentiboak eta azterketa sozialeko ekintzak martxan jartzeko ahalmen operatiboa duelako.

/ Zer betebehar dituzte estatuak eta toki-administrazioek erreparazio-printzipioa aplikatzean?

/ Estatuak behean ageri diren eskubide guzti-guztiak bermatu behar dizkiete indarkeria matxistaren biktima diren emakumei, arreta egokia izan dadin.

Tabla 1/ Derechos de víctimas de violencia machista (según normativa estatal)

DELITU BATEN BIKTIMA GISA ²	OINARRIZKO ESKUBIDEAK:
	<ul style="list-style-type: none"> • Ulertzeko eta ulertua izateko eskubidea. • Agintari eskudunekin lehen harremana izan orduko informazioa jasotzeko eskubidea. • Salatzaille gisa dagokion eskubidea. • Auzi penalari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea. • tzulpena eta interpretazioa izateko eskubidea. • Laguntza- eta babes-zerbitzuak eskuratzeko eskubidea.
<p>2/ Honen arabera: 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena.</p>	<p>PROZESU PENALEAN PARTE HARTZEKO ESKUBIDEAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Prozesu penalean aktiboki parte hartzeko eskubidea. • Eskubideez baliatzeko egindako gastuak eta ordaindu behar izan dituen prozesuko kostuak berreskuratzeko eskubidea. • Justizia errestauratiboko zerbitzuak erabiltzeko eskubidea. • Doako justizia izateko eskubidea. • Prozesuan konfiskatu zaizkion ondasunak berreskuratzeko eskubidea

3A/1 Zer betebeharrak dituzte estatuak eta toki-administrazioek erreparazio-printzipioa aplikatzean?


DELITU BATEN BIKTIMA GISA	BABESA JASOTZEKO ESKUBIDEA <ul style="list-style-type: none">• Ikerketa penalak dirauen bitartean babesa jasotzeko eskubidea.• Arau-hauslea biktimarekin harremanetan jartzea saihesteko eskubidea.• Intimitatea babesteko eskubidea.• Zer babes-behar berezi dauden ezagutaraziko duen ebaluazio indibiduala jasotzeko eskubidea.• Tartean adingabeak eta behar bereziak dituzten pertsonak egonez gero babes-neurriak eta neurri bereziak aplikatzeko eskubidea.
--------------------------------------	---

GENERO- INDARKERIAREN BIKTIMA GIS³	INFORMAZIOA, GIZARTE-LAGUNTZA OSOA ETA LAGUNTZA JURIDIKOA JASOTZEKO ESKUBIDEA <ul style="list-style-type: none">• Biktimaren egoera pertsonalaren arabera informazioa eta aholkularitza jasotzeko eskubidea.• Dagozkion eskubideei eta dauden errekurtsoei buruzko informazio zehatza eskuratzeko eta informazio hori modu irisgarri eta ulergarrian jasotzeko eskubidea.• Gizarte-laguntza osoa jasotzeko eskubidea; hau da:<ul style="list-style-type: none">- Biktimentzako informazioa.- Arreta psikologikoa.- Gizarte-babesa.- Emakumearen eskubidei buruzko erreklamazioen segimendua.- Familia-unitatearentzako hezkuntza-babesa.- Berdintasuneko balioen arloko prestakuntza prebentiboa, garapen pertsonala ahalbidetzeko eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko gaitasunak hartzeko.- Prestatzeko eta laneratzeko babesa.• Laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea.
--	---

	LAN-ARLOKO ESKUBIDEAK ETA GIZARTE-SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK <ul style="list-style-type: none">• Lanaldia murrizteko edo berrantolatzeke, geografikoki mugitzeko, beste lantoki batera aldatzeko, lan-harremana eteteko baina lanpostua gordetzeko eta lan-kontratuaz azkentzeko eskubidea.• Genero-indarkeriaren biktimentzako enplegu-programa espezifikoeetan sartua izateko eskubidea.
--	---

3/ Honen arabera: 1/2004

Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriak buruzkoa	ESKUBIDE EKONOMIKOAK: <ul style="list-style-type: none">• Gizarte-laguntzak jasotzeko eskubidea.• Babes ofizialeko etxebizitza eta adinekoentzako egoitza publikoetako plaza lehentasunez eskuratzeko eskubidea.
---	--



Erreparazioaren bost osagaiak kontuan hartuta eskubide horiek betetzen direla ziurtatzeko, hauek egin behar dituzte administrazio publikoek:

- Klase politikoak (Estatukoa, Autonomia Erkidegokoa, udaletakoa...) benetako konpromisoa hartzea arlo honetan onartu diren arau lotesleak betearazteko.
- Esku hartzen duten eragile guztiek batera (epailletza, segurtasun-indar eta -kidegoak, gizarte-zerbitzuak, Osakidetza, emakumeen etxean, tokiko kolektibo feministak, emakumeentzako arretarako zentroak/ elkarateak, abokatuak, osasun-arloko profesionalak, psikologoak, etab.) elkarlanean aritzeko eta informazioa trukatzeko guneak sortzea, eta haietako bakoitzaren eginkizunak zehaztea. Horrek, gainera, biktimei laguntzen dieten elkarleen lana errazten du, babesa eskaintzen baitaie beren prozesuarekin jarraitzeko ohiko zerbitzuez gain zerbitzu paraleloak erabiltzea erabakitzen duten emakumeei.
- Bai biktimak artatzeko, prebenitzeko eta erreparatzeko eginkizunean esku hartzen duten profesionalak bai politikariek ikuspegi feministako prestakuntza espezifikoa dutela bermatzea.

Neurri handiagoan edo txikiagoan, toki-administrazioek arazorik gabe gauza ditzakete ekintza horiek guztiak.

3A/1 Zer betebeharrak dituzte estatuak eta toki-administrazioek erreparazio-printzipioa aplikatzean?

Erreparaziorako eskubidea aplikatzean toki-administrazioek dituzten betebeharrak eta eskumenak behetako taulan ageri dira, arau aplikagarriak aintzat hartuta.

ARAUAK	BETEBEHARRAK
7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.	
4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.	1. Foru- eta toki-administrazioek, beren eskumenera eremuan, etxeko tratu txarren biktimek dituzten aldi baterako babes- eta bizileku-premiei erantzuteko harrera-baliabide nahikoak izango direla bermatuko dute. 2/ 20.000 biztanletik gorako udalerririk guztiek eta kopuru hori gainditzen duten mankomunitateek (eratuta daudenean edo sortuko direnean) harrera-pisuak izan behar dituzte, etxeko tratu txarren biktimek dituzten aldi baterako babes- eta bizileku-premia larriei erantzuteko.
Istanbuleko Hitzarmena (2011)	Emakumeak babestea eta haien aurkako indarkeria mota guztiak saihestea, jazartzea eta desagerraraztea.
2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.	Printzipio gidaria: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna
27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.	
7/1985 Legea aldatzea: 9/2018 Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presakoa neurriena	

ESKUMENAK

Berez beste herri-administrazio batzuei badagozkie ere, udalerriek haien jardura osagarri batzuk egin ditzakete, bereziki, hezkuntzari, kulturari, emakumearen sustapenari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumena babesteari buruzkoak.

Foru- eta toki-administrazioek zera bultzatuko dute: akordioak eta protokoloak garatu, zehaztu eta administrazio bakoitzaren errealitateari egokitu dituzten lankidetzak-akordioak eta protokoloak har daitezela beren lurralde-eremuan.

Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.

Toki-erakundeek eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartzen ez den beste edozein jardura, zerbitzu edo prestazio garatu ahal izango dute tokiko komunitatearen intereserako, baldin eta, lege honetan azaldutakoaren arabera, bikoiztasun-egoerarik sortzen ez bada eta erakundearen ogasun osoaren finantza-jasangarritasuna arriskuan jartzen ez bada.

Gizarte-zerbitzuak eskaini, aukera-berdintasuna sustatu eta emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen eta genero-indarkeriaren aurka borrokan jardun dadin.

3A/1 Zer betebeharrak dituzte estatuak eta toki-administrazioek erreparazio-printzipioa aplikatzean?

Hortaz, udalerriek aurrekontu nahikoa izan behar dute genero-berdintasuna sustatzeko eta indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko. Nahiz eta artikulua horietan ez den berariaz aipatzen erreparazio-printzipioa, zeharka aplikatu behar dela uste denez, emakume biktimekin esku hartzean une oro printzipio hori aintzat hartzen dela ziurtatu behar dute udalek. Beraz, toki-administrazioek, zeinak herritarrengandik hurbilen baitaude, erreparazioaren osagaiak bermatu behar dituzte. Udal Administrazio guztiek, herritarrengandik gertuen dauden erreparazioaren osagai guztiak bermatu behar dituzte.

Esparru politikoak sustatu behar du esku-hartze publikoa, ekintza-programak eta aurrekontua izan ditzan.

/ Nola txertatu erreparazio-printzipioa tokiko ekintzetan?



1 / Gomendio orokorrak

/Legeetan egin diren azken aldaketek zenbait ahalmen eta betebeharrak ezartzen dizkiete udalei indarkeria matxistaren biktimak artatzeari dagokionez, justizia erreparatzailearen printzipioei jarraikiz.

Esku hartu behar duten gainerako eragileekin modu koordinatuan lan egin ahal izateko, biktimentzako arreta-protokoloak prestatu behar dira, zeinetan erreparazio-printzipioa txertatu behar baita, ikuspegi feministarekin; protokolo desberdinak egotikotan (udaleko, udaletako, gaindikoa, Osakidetzakoak, Ertzaintakoak), elkarren arteko koordinazioa beharrezkoa da. Horrez gainera, indarkeria saihesteko eta biktimei arreta emateko ordenantzak onartu behar dira.

Udal sailek genero-indarkeriaren biktimentzako arretari dagokionez, eskumena dute gizarte-zerbitu eta hala badagokio polizia aurrekontu eta beharrezkoak diren giza baliabideak eskaintzea biktimei arrera eraginkorra bermatzeko; edonola ere, toki-korporazioak ere jardun daitezke geroago ageri diren esparruetan, hurrengo ataleko taulan ikusten denez.

Indarkeria matxistaren inguruko tokiko politikek, klase politikoaren konpromezuak zehaztu eta martxan jarriko diren politiketan inplikaturako oinarritzko esparruen konpetentziak zehaztu behar dituzte.



2/ Udalen esku-hartzean erreparazio-printzipioa garatzeko jarraibideak

Indarkeria matxistaren biktimekin lan egitean erreparazio-printzipioa aplikatu ahal izateko, udalek zer urrats egin behar dituzten planifikatu behar da. Nola ez, printzipio hori aplikatzeko uste osoan oinarritutako benetako borondatea izan behar da. Berdintasun Zerbitzuen esku hartzeak jarraitu beharreko pausu guztietan, berariazkoa da erreparazioa zeharka lantzea bermatzea.

Jarraian, zer urrats egin behar diren eskematizatu dugu, eta bi tauletan bildu erreparazio-printzipioari dagokionez udalek gauza litzaketen ekintzen adibide batzuk. Adibide hauek udaleriarren idiosinkraziara moldatu beharko dira (udalerrria, balibideak, beharrianak eta abar.)

<p>1/ BORONDATE INSTITUZIONAL PUBLIKOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesuaren arduradunak aukeratzea eta elkarren arteko koordinazio-moduak • Zer sail eta zerbitzuek esku hartuko duten finkatzea. • Inplikaturik dauden zerbitzu edo sailentzako behar beste baliabideak izatea.
<p>2/ EGOERAREN DIAGNOSTIKOA EGITEA HAUEK AZTERTZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Udaleko politikari eta teknikariek eta zuzenean esku hartzen duten langileek zer prestakuntza-/sentsibilizazio-maila izan behar duten azaltzea: gizarte-zerbitzuak, polizia zerbitzuak, arreta psikologikoko (eta, hala badagokio, udal-zerbitzuak), arreta juridikokoak... • Udalerriko emakumeen elkarteak, alderdi hauei dagokienez: <ul style="list-style-type: none"> · Biktimekin zuzenean lan egitean nola joka litekeen · Udal-sailekin zer komunikazio dagoen.
<p>3/ EKINTZAK DISEINATZEA ETA MARTXAN JARTZEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Udal-langileei (teknikariak eta politikariak) eta biktimekin zuzenean lan egiten dutenei (profesionalak eta elkarteetako kideak) prestakuntza ematea • Koordinazio-figurak/-mahaiak ezartzea, bai udal artekoak, bai udal barrukoak (batez ere, biktimei era batera edo bestera laguntzen dieten udalez gaindiko erakundeekin eta emakumeen elkarteekin)
<p>4/ SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hobetzeko iradokizunak • Zainketa-sistemak eta programen monitoretza diseinatzea.

Zer egin behar dute Udaletxeek?



3A. Taula/ toki-administrazioek erreparazio-modu desberdinetan gauzaten dituzten ekintzak: adibide orientagarriak

EMAKUMEEN	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta sanitarioa eskuratzen laguntzea.
INTEGRITATEA	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta psikologikoa eskuratzen laguntzea.
BABESTERA	<ul style="list-style-type: none"> • Erreparazio- printzipioa bermatuko duten esparru honi buruzko protokoloak eta ordenantzak idaztea eta onartzea.
ZUZENDUTAKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Biktimen beharrei erantzungo dieten harrera-baliabideak ahalik eta bizkorren bermatzea. • Erasotzaileei bideratutako sentsibilizazio/berreziketa programak ezartzea.
EMAKUMEEN	<ul style="list-style-type: none"> • Emakume biktimak bil daitezen sustatzea.
AHALDUNTZEA	<ul style="list-style-type: none"> • Ahalduntze-eskolak, Emakumeen etxeak, txoko feministak etb. sortzea,
ETA AUTONOMIA	<ul style="list-style-type: none"> emakumeen autonomia ahalbidetzeko.
LORTZERA	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa ematea, laneko eskubideez baliatzeko, laguntza eta baliabide
ZUZENDUTAKOAK	<ul style="list-style-type: none"> ekonomikoak eta etxebizitza eskuratzeko, etab.
SOCIALAK ETA SIMBOLIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Hirigintzako ekintzak egitea (kaleen izenak, monumentuak, etab.), indarkeria matxistaren errealitatea ikusarazteko. • Egun jakin batzuetan jardunaldiak, manifestazioak, etab. antolatzea, biktimak gogora ekartzeko. • Herritarrentzat sentsibilizazio-tailerrak egitea, ikuspegi feministatik lan egiteko; hau da, indarkeria matxistaren kontrako balioak abiapuntutzat hartuta. • Komunitatearekin (auzoa, eskola, etab.) egin beharreko esku-hartzeak programatzea, elkarbizitza leheneratzeko eta egia onartzeko.
EKONOMIKOAK ETA ONDAREZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ikuspegi judizialek dagozkien eskubide guztien berri ematea emakumeei. • Prozesu judizialak dirauen bitartean emakumeei laguntzea eta babesa ematea. • Emakumeen eskubideak errespetatzen ez dituzten arauak aldatzeko gizarte-mugimenduak bultzatzea. • Lanbide ofizinak dauden udalerrietan: lan munduan sartzeko ibilbideak bermatzea, formazio egokia, diru- laguntzak etb. Indarkeria biktimen lanbide tutoreekin harreman jarraia.
JUDIZIAL	<ul style="list-style-type: none"> • Ikuspegi judizialek dagozkien eskubide guztien berri ematea emakumeei. • Prozesu judizialak dirauen bitartean emakumeei laguntzea eta babesa ematea. • Emakumeen eskubideak errespetatzen ez dituzten arauak aldatzeko gizarte-mugimenduak bultzatzea.

SEXU-DELITUEN	<ul style="list-style-type: none"> • Laguntza sanitarioa eta psikologikoa eskuratzen laguntzea.
BIKIMEKIN EGIN	<ul style="list-style-type: none"> • Dauden aukerei eta jarduteko moduari buruzko aholkularitza juridikoa eskuratzen laguntzea.
BEHARREKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Krisi-zentroak ezartzea, udal-mailakoak edo mankomunatuak. • Biktimentzako arreta-protokoloak idaztea.
ADIN TXIKIKO	<ul style="list-style-type: none"> • Indarkeria matxista eta/edo abusu sexualen prebentzio eta antzemate sistema goiztiar eraginkorra ezartzea.
BIKIMEKIN EGIN	<ul style="list-style-type: none"> • Adingabeen arteko abusu sexualen prebentzio programak antolatzea, hezkuntza zentroetan, gaztegunetan eta abar. • Adingabeko biktimentzako espazio fisiko zehatzak eraikitzea, beraien beharrezanetara egokituak osasun sistema, sozial eta polizialaren barruan. • Arreta psikologikoa eta sanitarioa eskuratzen laguntzea. • Ohiko etxebizitza utzi behar izan duten adingabeek beren beharretara egokitutako harrera- edo ostatu-baliabideak eskuratuko dituztela bermatzea. • Emakume biktimentzako arreta-protokoloetan adingabeak sartzea.
LAN ESPARRUAN	<ul style="list-style-type: none"> • Udalerriko enpresek sexu-jazarpeneko protokoloak onar ditzaten sustatzea.
SEXUAL ETA/EDO	<ul style="list-style-type: none"> • Biktimei beharrezko asistentzia profesionala eskaintzea (abokatutza, psikologikoa eta abar.)
SEXUAREN ARABERAKO	<ul style="list-style-type: none"> • Sexuaren araberako diskriminazio eza bermatzea (ordainsariak, lanpostuz igotzeko aukera, formazioak eta abar)
JAZARPENAREN	
BIKIMEKIN	
EMAKUMEEN	<ul style="list-style-type: none"> • Beraien oinarrizko beharrezanek berehalak artatzeko baliabideak eskaintzea.
MUTILAZIO	<ul style="list-style-type: none"> • Posibleak diren errepresalien aurrean babes poliziala erraztea.
GENITALAREN	<ul style="list-style-type: none"> • Asistentzia mediko eta psikologikoa eskaintzea.
BIKIMEKIN (EMG)	<ul style="list-style-type: none"> • Aholkularitza judiziala erraztea (biktima egoera lehenestea “egoera irregularrean” dagoen pertsonen aurrean) • Jatorrizko herrialdeetarako itzulera erraztea.
EMAKUMEEN	<ul style="list-style-type: none"> • Prebentzioko entitate desberdinekin koordinazio protokoloak ezartzea.
SALEROSKETEN	<ul style="list-style-type: none"> • Asistentzia psikologikoa eskaintzea.
BIKIMEKIN	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta medikoa eta zirujararako sarbidea erraztea.
BIZIRIK ATERATAKO	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta psikologikoa ematea.
BESTE BIKTIMA	<ul style="list-style-type: none"> • Arreta eta informazio juridikoa ematea.
BATZUEKIN EGIN	<ul style="list-style-type: none"> • Biktimen eta bizirik ateratakoen senide eta hurbilekoentzako laguntza-taldeak sor daitezen sustatzea.
BEHARREKOAK	

3/ Berdintasun zerbitzu eta sailen zeregina udal esparruan erreparazio printzipioa barne hartzeko

Gida honetan zehar zerbitzu eta sail hauek indarkeria matxistaren gainean egin dezaketena adierazten joan den arren, atal honetan berauen zeregin eta ardurak zehaztasun handiagoarekin adieraziko dira.

Berdintasun zerbitzu edo sailak, udal ekintzen funtzionamendurako zeharkako egiturak direla izan behar da kontuan, izan ere, berdintasun printzipioa udaleko gainontzeko esparruetan bermatzearen arduradun dira. Era berean, erreparazio printzipioa zeharkakoa denez, berdintasun zerbitzu edo sailak dira erreparazio printzipioaren aplikazioa esku hartzeetan eta indarkeria matxistaren prebentzioan gauzatu dadin arduratzen direnak. Honen bestez, udal Plenoetan onartutako beharrezko medioak martxan jarriko dituztenak eta honetan esku hartzen duten agente desberdinak koordinatuko dituztenak.

Beste alde batetik, indarkeria matxista ez dela kasu puntualen batura ulertzea ezinbestekoa da bazik eta, egiturazko indarkeria batetik eratorritako errealitatea dela, zeinek erreparaziorako neurri integralak ezarri aurretik diagnostiko eran analisi orokorra egitea suposatzen duen. Zerbitzu eta sail hauek berdintasunaren aldeko lan ibilbide eta esperientziak, ekintza hauen gidaritzarako gai ez ezik, berebizikoak bihurtzen ditu.

Halaber, aintzat hartu beharra dago, sail hauek emakumeen ahalduntzeari bideratutako duten esperientzia, zein ikuspuntu feminista bateko erreparazioa gauzatzeko funtsezko elementua den. Honengatik, berdintasun sail eta zerbitzuen erantzukizuna helburu hau betetzeko justifikatua dago.

Hau da, erreparazio-printzipioak berekin dakar administrazio publikoaren maila guztietan zeharka lan egiteko estrategia integral bat aplikatzea, eta, udalerrri mailan, udal-egitura guztiek indarkeria matxistaren prebentzio-politikak berdintasun-sailen eta gainontzeko sailen ekarpenetatik gauzatzea. Ikuspuntu integral horrek barne hartzen du, orobat, biktimei ematen zaien arreta erreparazioaren perspektibatik berrikustea.

Honenbestez, erreparazio printzipioa jarraituz hurrengok dira beraien ardura nagusiak:

- Esku hartzeko mailaren arabera (errehabilitazioa eta kalte-ordaina):

Prozesuen jarraipena eta koordinazioa:

- Esparru anitzen artean/ udal zerbitzuen artean
- Esparru anitzen artean/udal zerbitzu eta udal barrukoa
- Zuzenean esku hartzen duten agente ezberdinak
- Emakumeen ahalduntzean lan egiten duten, emakume bizirauleen elkarteak, emakumearen etxean, elkarte feministak eta abar.



• **Prebentzio mailak** (berriro ez erreparatzearen bermea): prebentzio ⁴ ekintzen ideagintza, planifikazioa eta koordinazioa.

- Formazio/sentsibilizazio akzioak hurrengoei bideratuak:


- Politikariak eta tokiko teknikariak.
- Gizarte zerbitzuetako langileak
- Osasun- langileak
- Udaltzaingoa
- Hezkuntza zentroetako langile eta ikasleak
- Biztanleria orokorrean

- Emakumeen alduntzera bideratutako akzioak..

• Aitorpen sinboliko eta soziala (gogobetetzea): indarkeria matxistaren errealitatea ikustera emateko akzioak.

Hurrengo koadroan zerbitzu hauen eskematizatzen dira erreparazioaren elementu desberdinetan arreta jarritz.

4/ APA-k (American Psychological Association), "maskulinitate hegemonikoa" arrisku faktore bezala aintzakotzat hartzeak, egiturazko indarkeria prebentziotik deuseztatu behar dela indartzen du du. Informazio gehiago http://www.infocop.es/view_article.asp?id=7890



4/ Udalen jardunbide egokiak

Ez da berria erreparazio-printzipioa aplikatzea indarkeria matxistaren biktimekin eta bizirauleekin esku hartzean. Udal batzuk gaiarekin erlazionatutako ekimenak ari dira jartzen martxan. Egia da, batzuetan (bereziki, 5.000 biztanle baino gutxiagokoetan), lehenik gizarte-zerbitzuak emango dituzten oinarritzko langileak egotea bermatu behar dela.

Jarraian, erreparazio-printzipioa aplikatzeko toki-administrazioen zenbait esperientzia eta jardunbide egokiak adibide batzuk bildu ditugu.

4.1 / Plan, protokolo eta ordenantzekin erlazionatutakoak

Kontuan izanda erreparazio-printzipioaren ezaugarrietako bat zeharkakotasuna dela, planak, protokoloak eta ordenantzak prestatzean ikuspegi hori barneratu behar da. Adibide hauen bidez, printzipio hori era horretako dokumentuetan nola txertatu azalduko dugu. Laburpen-taula bakoitzean, harremanetarako pertsona ageri da, interesatuta egonez gero informazio gehiago nori eska dakiokkeen jakiteko.

A) Indarkeria matxistaren kontrako Tokiko I. Plana. Basauri, 2017-2020

Salaketa publikoa, memoria eta erreparazioa biltzen dituen ardatz bat du, zeinaren helburua baita herritarrak indarkeria matxistaren aurkako




borrokan inplika daitezen lortzea eta Basaurin 0 tolerantzia jarrera sustatzea. Helburu hori erdiesteko, zenbait ekintza gauzatu behar dira, eta ekintza horiek hiru printzipio hauen arabera antolatzen dira:

- **Salaketa publikoa:** ezinbestekoa da eraso eta erailketa matxistak salatzea, eta horien aurrean «0 tolerantzia» jarrera agertzea. Salaketa publikoa eraginkorra izango da, bakar-bakarrik, herritarrekin, gizarte-mugimenduekin eta herriko elkarteekin lotuta egonez gero. Gainera, udalerriko gizarte-eragileek konpromisoak hartzea ezinbestekoa da, salaketa eraginkorra izan dadin.
- **Memoria:** iragana, orainaldia eta etorkizuna lotzen ditu memoriak, eta aukera ematen digu gizarte-errealitatei esanahi berria emateko eta errealitate horiek duinago egiteko. Indarkeria matxistaren biktimak ahanzturan erori ohi dira, ez ohi dute dagokien aitortza lortzen. Gauzak horrela, justizia sozialak eskatzen du indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeen memoria kolektiboa, eta eraildakoen memoria historikoa berreskuratzeko. Memoria indibidualetik kolektibora igarotzeak onura dakarkio memoria kolektiboari eta, beraz, herritarren sentiberatzeari eta kontzientzia harrarazteari ere bai. Memoria protetikoa bidez (Alison Landsberg) bizipenak eta errealitate sozialak inskribatzen ditugu; horiek bizi ez baditugu ere, identitatea eta kide izatearen sentimendua eratzen dute, eta, horrek, beste behin, herritar oroien sentiberatzean eta kontzientzia harraraztean laguntzen du.

Basauriko Udala / udalen jardunbide egokien laburpen-aula

	HELBURUA	Herritarrek indarkeria matxistaren aurkako borrokan inplikatzeko lortzea da eta, 0 tolerantzia jarrera sustatzea.
	PRINTZPIOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Salaketa publikoa: ezinbestekoa da eraso eta erailketa matxistak salatzea, eta horien aurrean “0 tolerantzia” jarrera agertzea. • Memoria: indarkeria matxistaren biktimak ahanzturan erori ohi dira, ez ohi dute dagokien aitortza lortzen. Gauzak horrela, justizia sozialak eskatzen du indarkeria matxista pairatu duten edo pairatzen duten emakumeen memoria kolektiboa, eta eraildakoek memoria historikoa berreskuratzeko. • Suspertzea: indarkeria matxista pairatu duten, edo pairatzen ari diren emakumeen prozesu pertsonalak piztean datza, beren bizi-proiektuak berreraiki ditzaten.
	HARREMANA	igualdad@basauri.eus 946 124 107



Esquema 13

B) Vitoria-Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Plana ⁵

IV. Planak ikuspegi feminista eta giza eskubideak ditu oinarri, Istanbulerako Hitzarmenean jasotakoari jarraikiz, eta, aurkezpenean diogen bezala, pentsamolde heteropatriarkalaren ondoriozko diskriminazio guztiak hartzen ditu barnean, zeinek era guztietako pertsoneri eragiten baitiete, ez bakarrik emakumeei ⁶. Planaren izenburuak berak hori adierazten du.

Lau ildo estrategiko daude:

- 1/ Berdintasuna udal-gobernuaren ereduari.
- 2/ Zainketen ekonomia feminista.
- 3./ Ahalduntze feminista.
- 4./ Indarkeria matxistarik gabeko hiria.

Laugarren ildo horretan sartzen da, esplizituki, erreparazio-printzipioa, eta bi ildo estrategiko lotzen zaizkio, zeinek helburu estrategiko eta operatibo hauek baitituzte: (Eskema 13)

^{5/} Vitoria-Gasteizko Udala: Vitoria-Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Plana. 2018-2021.

^{6/} Ikus 2.1 puntua.:

Vitoria-Gasteizko Udala/ udalen jardunbide egokien laburpen-taula

	HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Gai honi dagokionez, erakundearen barruko eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzea. • Indarkeria matxistaren biktimak aitortzea eta beren erreparazioari laguntzea.
	ILDO	<ul style="list-style-type: none"> • berdintasuna udal-gobernuaren eremuan.
	ESTRATEGIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zaintzen ekonomia feminista. • Ahalduntze feminista. • Indarkeria matxistarik gabeko hiria.
	HARREMANA	igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org 945 16 13 45

C) Indarkeria matxistatik bizirik ateratako biktimen artatzerako esku-hartze eta erakundeen arteko koordinazio protokoloa eta Indarkeria matxistatik bizirik ateratakoen eta biktimen artatzerako eta erantzun publikorako akordio politikoa. Andoaingo Udala (2018)

Protokoloaren arabera, “biktima da bere giza eskubideen urraketa bat sufritzen duen eta jasaten dituen indarkeria ekintzak generoan oinarritzen diren pertsona fisiko oro. Ekintza hauek emakumeei ondorengoak eragiten dizkiete edo eragin ahal dizkie: izaera fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoko kalteak nahiz pairamenak, ekintza hauek gauzatzearen mehatxuak, hertsatzeak nahiz bizitza publiko edo pribatuan askatasuna arbitrarioki kentzea barne”.

Giza eskubideak eta ikuspegi feminista kontuan hartuta prestatu da protokoloa, eta nabarmentzen du oso garrantzitsua dela erakunde guzti-guztiek errespetatzea biktima edo bizirik ateratako bakoitzaren protagonismoa esku hartzeko prozesu osoan, hura baita eskubideen titularra.

Berriaz aipatzen da ikuspegi hauek hartu behar direla:

- **Erreparaziokoa** emakumeei eta adingabeei arreta ematean, eta, aurrerago, beste era batzuetako indarkeria matxista (lesbofobia, homofobia, transfobia...) pairatzen dutenak ere artatzeko konpromisoa.
- **Ahalduntzekoa.**
- **Zeharkakoa** arreta-prozesu osoan.

Hiru esku-hartze maila ezartzen ditu:

- **Indibiduala**, zeinak erreparatzailea izan behar baitu, errehabilitazioa ahalbidetu, kalte-ordain ekonomikoa aurreikusi, eta eskubideak leheneratzea bideratu.
- **Kolektiboa**, zeinak bizirik ateratzen diren emakumeen taldeei laguntza eta babes eman behar baitizkie, eurek nahi duten bezala. Asoziazionismoa bereziki garrantzitsua da maila honetan.
- **Publikoa**, zeinak aitorpena (bizirik ateratakoen esperientziak ezagutaraztea, omenaldiak egitea, etab.) eta gogobetetzea (esparru politikoak giza eskubideen arloko adierazpenak egitea) bermatu behar baititu, eta berriro ez gertatzeko bermea bultzatu, ekintza hauen bidez:
 - Udalerriko instantziek erasotzaileak gaitzesteko konpromisoa hartu
 - Erasotzaileekin lan egiteko neurri zehatzak hartu.
 - Epaitegiarekin bitartekaritza-lanak egin, halakorik berriro ez gertatzeko eskubidea gutxienez bermatuko duten babes aginduak lortzeko.
 - Behar den babes poliziala izan.

Lau printzipio gidari hauek ezartzen ditu:

- Asistentzia osoa eta pertsonalizatua
- Segurtasuna eta babesa
- Ahduntzea eta erreparazioa
- Adingabeen babesa

Ezinbestekoa da esku-hartzean zerbitzuak ematen dituztenek koordinatuta lan egitea, printzipio horiek bermatzeko.

Protokoloa argitaratu zenean, Indarkeria matxistatik bizirik ateratakoen eta biktimen artatzerako eta erantzun publikorako akordio politikoa onartu zen, eta erantzun instituzionalari buruzko irizpide hauek ezarri:

- Erantzun sendoa
- Errespetuzko erantzuna
- Inpunitatea gelditzea
- Berbiktimizazioa saihestea

Erantzunak printzipio hauei jarraitu behar die:

- Biktimei zuzendutako lehentasunezko arreta
 - Erantzun bizkor, koordinatu eta eraginkorra
 - Erasotzaileak arbuizatzea
 - Informazio konfiantzazkoa
 - Informazio konfidentziala
 - Prebentziozko jarduera
-

Andoaingo Udala / Indarkeria matxistatik bizirik ateratako biktimen artatzerako esku-hartze eta erakundeen arteko koordinazio protokoloa

	IKUSPEGIA	<ul style="list-style-type: none"> • Erreparatzailea • Ahalduntzekoa • Zeharkakoa
	ESKU HARTE	<ul style="list-style-type: none"> • Indibiduala
	MAILAK	<ul style="list-style-type: none"> • Kolektiboa • Publikoa
	PRINTZIPIO	<ul style="list-style-type: none"> • Asistentzia osoa eta pertsonalizatua
	GIDARIAK	<ul style="list-style-type: none"> • Segurtasuna eta babesa • Ahalduntzea eta erreparazioa • Adingabeen babesa
	HARREMANA	berdintasuna@andoain.eus 943 30 08 30

Indarkeria matxistatik bizirik ateratakoen eta biktimen artatzerako eta erantzun publikorako akordio politikoa

	ERANTZUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Biktimei zuzendutako lehentasunezko arreta
	ERAIKITZEKO	<ul style="list-style-type: none"> • Erantzun bizkor, koordinatu eta eraginkorra
	OINARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> • Erasotzaileak arbuizatzea • Informazio konfiantzazkoa • Informazio konfidentziala • Prebentziozko jarduera
	ERANTZUNAREN	<ul style="list-style-type: none"> • Erantzun sendoa
	EZAUGARRIAK	<ul style="list-style-type: none"> • Errespetuzko erantzuna • Inpunitatea gelditzea • Berbiktimizazioa saihestea
	HARREMANA	berdintasuna@andoain.eus 943 30 08 30

D) Emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Udal Ordenantza. Urdulizko Udala (2018)

Hauek egiteko beharra aipatzen du ordenantzak:

- Istanbuleko Hitzarmenak udal-eskumenei dagokienez ezarritako gidalerroak txertatzea, eta klase politikoak konpromiso sendoa hartzea.
- Emakumeekin esku hartzen dutenek koordinatuta lan egitea.
- Emakumeen elkarteek eta erakunde feministek gai honetan duten eginkizuna ulertzea.
- Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako Zerbitzu propioa eta alkatetzaren menpekoa sortzea, zeinaren xedea izango baita emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea ordenantzaren lurralde-eremuan.

Dagozkion artikuluei erreparatuta:

IV. kapitulua indarkeria matxistari buruzkoa da; honela definitzen du: “heteroen arauak hausten dituzten pertsonen kontrako kontrol moduak eta ekintzak, erasoak, gaitzespenak, zuzeneko inposizioak, indarkeria estrukturala eta sinbolikoa, baita emakumeen kontrakoak ere. Indarkeria matxistaren baitan, indarkeria matxista (genero-indarkeria, sexu erasoak, laneko sexu jazarpenera, ziber jazarpenera...), transfobia, lesbofobia eta homofobiaren kontrako beste indarkeria mota batzuk ere sartzen dira». Era berean, honela definitzen du indarkeria sexista: «pertsonei

kontrako kontrol moduak eta ekintzak, erasoak, gaitzespenak, zuzeneko inposizioak, indarkeria estrukturala eta sinbolikoa, gizonek emakumeen kontra eginikoa erlazio hierarkikoen eta desberdinen baitan”.

Ikusten denez, Vitoria-Gasteizko Berdintasunerako IV. Plana bezala, hau ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren ildo beretik doa indarkeria matxista generikoaren eta indarkeria sexistaren definizioei dagokienez.

48. artikulua araber, Udalak, bere eskumenen arloan, konpromisoa hartzen du bere gain Istanbuleko Hitzarmenean eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen VII. kapituluaren xedatuta dauden betebeharrak arretaz betetzeko. “Horrez gain, bere gain hartuko du erakunde arteko akordioetan, protokoloetan, programetan, planetan eta indarreko gainerako araudietan edo udalez gaindiko erakundeek etorkizunean onartu eta aurreikusitako ekintzak gauzatzea, betiere IV. kapitulu honen gaiari badagozkio”.

50. artikulua, “Prebentzioa eta sentsibilizazioa” izenekoak, dio hauek bultzatu beharko dituela Berdintasunerako Zerbitzuak, udalaren sail batzuen laguntzarekin:

- **Indarkeria** matxistei aurre egin behar dieten emakumeak ahalduntzeko prozesu kolektiboak (leheneratzea, errehabilitazioa, berriro ez gertatzeko bermea).

- **Herritarren mobilizazioa**, indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurkako taldeko gaitzespena agerraraz dezaten jendaurrean (gogobetetzea).
- **Ikastetxeetako prebentzio-programak** (berriro ez gertatzeko bermea).
- **Jendaurreko ekintzak** indarkeria sexistako kasuetan, udalerriko emakumeen elkartean eta talde feministen laguntzarekin (gogobetetzea).

51. artikulua, “Arreta integralerako eta koordinaturako eskubidea” izenekoak, diotenaren arabera, Udalak “koordinazioko mekanismoen hobekuntza edota sorrera bermatuko du, baita Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko sailen, Ertzaintzaren [Osakidetzaren] eta indarkeria matxistari aurre egiten dioten gainerako erakunde autonomikoen, foralen eta tokikoen arteko koordinazioa ere”. (leheneratzea, errehabilitazioa, gogobetetzea eta berriro ez gertatzeko bermea).

Urdulizko Udala / emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko udal ordenantza

	<p>HAUTEMANDAKO BEHARRAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Istanbulleko Hitzarmenak udal-eskumenei dagokienez ezarritako gidalerroak txertatzea. • Emakumeekin esku hartzen dutenek koordinatuta lan egitea. • Emakumeen elkarteek eta erakunde feministek gai honetan duten eginkizuna ulertzea. • Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako Zerbitzu propioa eta alkatetzaren menpekoea sortzea, zeinaren xedea izango baita emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea ordenantzaren lurralde-eremuan.
	<p>LAN-ILDO NAGUSIAK</p> <p>Prebentzioa eta sentsibilizazioa: Hauek bultzatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Emakume biktimak ahalduntzeko prozesu kolektiboak. • Herritarren mobilizazioa, indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurkako taldeko gaitzespena agerraraz dezaten jendaurrean. • Ikastetxeetako prebentzio-programak. • Jendaurreko ekintzak indarkeria sexistako kasuetan, udalerriko emakumeen elkarteekin eta talde feministen laguntzarekin. <p>Arreta osoa eta koordinatua:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Barne-koordinazioko nahiz esku hartzen duten eragileen arteko koordinazioko mekanismoen hobekuntza edota sorrera bermatzeko betebeharra.
	<p>HARREMANA berdintasuna@uribekosta.org 946 57 92 82</p>

**E) Indarrean dauden protokoloetan erreparazio-printzipioa txertatzea.
Durangaldea (2018)**

Durango eskualdeko udalerrri desberdinetatik Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekiko esku-hartzean erreparazio-printzipioa txertatzearen beharraz jabetuta, eta giza eskubideen ikuspegitik hori oso garrantzitsua dela jakinda, beharrezkotzat jo zen zenbait aldaketa egitea Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurrean Jarduteko eta Koordinatzeko II. Protokoloan, helburu hauek kontuan hartuta:

- Erreparaziorako eskubidearen esparrua protokoloan sartzea.
- Protokoloa sinatu duten erakundeetako teknikari guztientzat lan-saioak egitea, eskubide hori zer den ondo jakin dezaten eta gai izan daitezen beren esku-hartze esparruan gai honekin erlazionatutako ekintza zehatzak proposatzeko.
- Politikariei erreparazioaren arloko ekintza zehatz batzuk aurkeztea, II. Protokoloari (2017) eranskin gisa gehi dakizkion.

Hainbat erakundetako ordezkariak (Durango, Elorrio, Berriz, eta Abadiño udalak, Osakidetza, Ertzaintza eta Mankomunitatea) elkarlanean aritu izatea eta ikuspegi globala eskaini izatea prozesuaren indarguneetako bat izan da, baita proposamen guztiak parte-hartzaileek eurek egin izatea ere.

Durungaldea /Indarrean dauden protokoloetan erreparazio-printzipioa txertatzea

- HELBURUAK**
- Erreparaziorako eskubidearen esparrua indarrean dagoen protokoloan sartzea.
 - Protokoloa sinatu duten erakundeetako teknikari guztientzat lan-saioak egitea.
 - Politikariei erreparazioaren arloko ekintza zehatz batzuk aurkeztea, hurrengo protokolei gehi dakizkien.

- LAN-METODOLOGIA**
- Hainbat erakundetako ordezkariak Durango, Elorrio, Berriz eta Abadiño udalak, Osakidetza, Ertzaintza eta Mankomunitatea elkarlanean aritzea eta ikuspegi globala eskaintzea.
 - Estamentu politikoak onartu egin zituen lan-mahaiek ezarri zituzten eta Protokoloaren eranskina osatzen duten neurriak/ekintzak.

HARREMANA berdintasuna@durango.eus
946 03 00 42

Era honetako protokoloak egin dira, orobat Aiarako Kuadrillan (2019ko martxoan onartua).

Tresna horiek prestatzeko prozesuetan nabarmendu da zenbait ekimenetan zaila izan dela eskualde-mailako protokoloak egitea, oso udalerrri desberdinak biltzen dituztelako; hori dela eta, ahaleginak batzeko eta, aldi berean, tokiko prozesuak errespetatzeko modurik onenaren bila jarraitzen dute.

4.2 / Laguntza-zerbitzuak zabaltzearekin erlazionatutakoak

Zenbait udalek, aukera bazegoela ikusita, baliabide espezializatuak ugaritu dituzte (batez ere, taldeko arreta psikologikoa), haien ustez beharrezkoak direlako indarkeria arazo indibiduala soilik ez delako ideia indartzeko.

Horren haritik, adibidez, Tolosako Udalak eskaintzen duen taldeko arreta dugu, zeina Tolosaldeako eskualdeko beste udal batzuek ere erabiltzen baitute.

Zerbitzu espezifiko batetik haratago, emakumeen autonomiaren aldeko zerbitzu bat sortu zuen Andoaingo Udalak 2019ko maiatzean, bere protokolo printzipioekin bat etorritik.

Zerbitzu horren helburua da ikuspegi feminista garatzea, era guztietako indarkeria matxistaren biktimei eragindako kaltea erreparatzeko eta haiek ahalduzkoak, haien familia- eta gizarte-sarea sustatu, sostengatu, aitortu eta indartuko duten ekimenen bidez.

Helburu hori erdiesteko, lan-ildo hauek proposatzen ditu:

- Indarkeria-egoeratik irteteko (batez ere, gizarte-zerbitzuen bidez indarkeriarekin erlazioa daitezkeen ez-espezifikoak detektatuz) emakumeek laguntza-ibilbideei hasiera emateko erabil ditzaketan sarbideak ugaritzea.

- Beren egoeragatik, indarkeria moduagatik, ezaugarri pertsonalengatik edo beste edozein egoeragatik foru-eskumeneko zerbitzu espezializatuak erabiltzeko zailtasunak dituzten emakumeei laguntzea, baita baliabide horiek eskaintzen duten denbora agortu duten baina oraindik laguntza behar duten emakumeei ere.
- Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa ez den beste era bateko indarkeria matxista jasan duten edo jasaten ari diren emakumeei laguntzea; horretarako, emakumeen familia-, lan- eta gizarte-inguruneari ere laguntzea, jarraibideak eskaintzeko, zer zalantza, kezka eta frustrazio dituzten jakiteko, eta sostengu hori sendotzeko, horrek aukera emango baitie emakumeei bakarrik ez ateratzeko indarkeria-egoeratik, baizik eta prozesua ulertzen duen ingurunearen laguntzarekin.
- Babes zerbitzuen jardunbide egokia izan ez arren, punto honetan gehitzen da Elorrioko Udalak hartutako ekimena, zeinetan indarkeria matxistari biziraule den emakumeari egazkin txartela ordaintzen dion bere jatorriko herrialdera bueltatzeko eta erasotzailea ekiditeko helbururarekin, berriro ez errepikatzearen bermean oinarrituz.

4.3 / Emakume biktimen edo bizirik ateratakoen elkarteei laguntzarekin erlazionatutakoak

Leheneratze-prozesu horretan, garrantzi berezia dute bizirik ateratako emakumeen elkarteek, oso lagungarriak baitira biktimen ahotsa aurkitzeko, indarkeria-egoeratik irteteko, biktimek elkar ulertzeko eta elkarri beste era batera begiratzeko; izan ere, emakume bakoitzak istorio desberdin bat du, baina arazoa ez da emakume horietako batzuen arazo pertsonal eskusiboa.

Erakundeek ahalegin guztia egin behar dute gune horiek funtsak eskuratu ditzaten, diru-laguntzen bidez, elkarte edo erakunde bakoitzak emakume askori laguntzeko darabilen ikuspegi espezifikoari eutsi ahal izateko. Gaur egun, emakume askok ez dute erakunde publikoekin harremanetan egon nahi, eta beren behar eta helburuen arabera arreta eta erreparazioa jasotzeko eskubide berbera dute.

Azken azterlanen arabera, bizirik ateratako emakumeek eta emakumeen elkarteek berdintasun-kontseilu lokaletan parte hartzen dutenean beren esperientziak hitz egiteko, ahalmen handiagoa dute sistema kritikatzeko eta erantzunik ez jasotzeko.

Jarraian, jardunbide egokien hiru adibide ageri dira.

3A/2 Nola txertatu erreparazio-printzipioa tokiko ekintzetan?

VITORIA-GASTEIZKO UDALA ETA BIZIRIK ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Aspalditik, Vitoria-Gasteizko Udalak bizirik ateratako emakumeen Bizirik elkartearekin lankidetzan dihardu, eta laguntza eta baliabideak eskaintzen dizkie bizi izan dituzten indarkeria-egoerak ahalduntzearen bidez gainditzeko. • Udaltzaingoarekin koordinatuta, familia-indarkeriako talde bat sortu zen. Talde horretan, emakumeek ahalduntze feministako ikuspegia duten zenbait jarduera egiten dituzte, baita bizirik ateratako emakumeentzako lana bilatzen jardun ere, hori baita haien oztopo nagusietako bat tratu txarren emalearengandik urrun bizimodu berri bati hasiera ematean. • 2019an elkarte berri bat eratu da, Goiztargi Emakumeak, Bizikeko parte hartzaileek eratua.
---	---

BASAURIKO UDALA ETA ZURE ONDOAN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Basauriko Udalak eta Zure Ondoan elkarteak, Emakumeen Etxearekin elkarlanean, lan garrantzitsua egiten dute bizirik ateratako emakumeentzako arretari dagokionez; besteak beste, aholkularitza juridikoa eta psikologikoa ematen dute. Elkarteak batez ere laguntza eskaintzen die emakumeei, indarkeria matxistaren biktima gisa edo indarkeria matxistako egoera batetik bizirik ateratako emakume gisa izan duten antzeko esperientzia eta enpatia abiapuntutzat hartuta. • Laguntza emateaz gain, sentsibilizazio-programak jartzen dira martxan, herritarrentzat, pentsamendu feministaren bidez indarkeria matxista desagerrarazteko asmoz.
---	--

AYUNTAMIENTO ARRASATEKO UDALA ETA INDARKERIA MATXISTATIK BIZIRIK ATERATAKO EMAKUMEEN ELKARTEA	<ul style="list-style-type: none"> • 2003an, Udalaren Berdintasun Sailak Emakume Txokoa sortu zuen, emakumeak elkartzeko, trebatzeko eta ahalduntzeko gune bat; bertan, hainbat zerbitzu eskaintzen dira, hala nola ahalduntze-eskola bat (Arrasate Jabetze Eskola). • Batez ere zerbitzu horiek egiten dute lan bizirik ateratako emakumeekin, elkartearekin lankidetzan, eta lankidetzat, babes profesionala eta orientazioa eskaintzen dizkiete.
--	---

4.4 /Onarpen sozialarekin erlazionatutakoak

Komunitateak indarkeria matxista dagoela onartzea eta hura ikuspegi feministatik aztertzea funtsezkoa da erreparazio-prozesuan. Lehenik, zergatia ulertu behar genuke emakume askok bizi dituzten eta, tamalez, oraindik ere bizi dituzten era guztietako indarkeria-egoerak ikusarazteko. Gertakari horiek zer diren ulertzeak (alegia, emakumeek emakume izateagatik soilik jasaten duten benetako indarkeria gisa) erraztu egiten du berriro ez gertatzeko bermearen printzipioa betetzea, baita gogobetetzearena ere.

Onarpen sozialarekin erlazionatutako zenbait ekitaldi antolatu dira udalerrietan hildakoak izan direnean, baina bizirik ateratakoen ahotsa biltzea duela gutxiko kontu bat da, eta Emakunderen Volar filmean ikus dezakegu. Udalerrri askotan erabili da gizartea eta profesionalak sentsibilizatzeko.

Bertha Gaztelumendiren Volar filmean (2017), 9 emakume agertzen dira; adin, lanbide eta jatorri desberdinak dituzte, baina guztiak izan dira indarkeria matxistaren biktima. Guztiak bizirik atera dira, eta egoera horretatik ateratzeko prozesua nolakoa izan den eta nolakoa izaten ari den azaltzen dute; beren bizitzari zentzua eman nahi diote berriro, haien ezaugarri berberak dituzten emakumeen laguntzarekin eta biktimismotik urrunduz.



Erreparazioari eta onarpenari dagokionez, Nagore aipatu behar da. Filmean, Asun Casolak hitz egiten du, Nagore Laffageren amak. Nagore Diego Yllanek hil zuen 2008ko sanferminetan. Filmean ikusten denez, genero-estereotipo sendoek eragin nabarmena izan zuten hiltzailearen epaian: biktima errudunetsi zuten, eta erasotzaileari erantzukizuna kendu. Gizarteari zer gertatu zen erakustea eta onartzea erreparazio modu bat da.

Nagoreren hilketaren harira (homizidio gisa tipifikatutakoa), Lunes Lilas elkarteak sortu zen. Elkarteak Gazteluko plazan elkartzen da astero, bortxaketaren kultura horren aurka protesta egiteko. Kultura horretan, emakumeen jokabide jakin batzuek «justifikatu» egiten dute eraso biktima izatea; erantzukizun osoa haiei leporatzen zaie, eta gizonei kendu, nahiz eta jokabide diskriminatzaileak eta indarkeriazkoak izan.

Onarpen sozialarekin erlazionatutako beste ekimen bat indarkeria matxistaren biktima diren eta izan diren emakumeak ikusgai jartzea da. Ekimen horietako bat Bilboko Udalak egin zuen. 2012tik, Azaroaren 25a izeneko plaza bat dago hirian, indarkeria sexistaren biktima guztiak identifikatuta senti zitezen.

Bizkaiko Emakumeen Asanbladak inaugurazio-ekitaldian adierazi zuenez, helburua zen “esparru publikoan presentzia eta ahalmen handiagoa izatea, memoriaren tokiak balio sinbolikoz betetako gune fisikoak baitira. Gune horietan, gizarte demokratikoak ahalegin guztia egiten du

balioen eta giza eskubideen ikuspegitik guztientzat garrantzitsua zer den nabarmentzen”⁷.

4.5 / EAE kanpoko esperientziak

EAEko udalen esparrutik kanpo, badira esparru horiekin erlazionatutako beste ekimen batzuk ere; azken atalean, ekimen horietako batzuk bildu ditugu. Era guztietako ekimenak dira, nola erakundeenak hala elkarte sozialenak, Estatukoena eta nazioartekoena, eta indarkeria matxistaren biktimak erreparatzeko esparruan ere eragina dute.

4.5.1 / Madrilgo Udala

Madrilgo Udaleko indarkeria matxista prebenitzeko eta biktimei arreta emateko sailaren ustez, erreparazio-printzipioa aplikatzea zailtzen duten gako-elementu batzuk daude, hots:

- Patriarkatuak ikusezin bihurtzea eta minimizatzea indarkeriaren biktima guztiei eragiten dieten inpaktu guztiak, hasiera batean ikusten direnetatik harago. Bada egiturazko indarkeria bat azterketa objektiboa egitea eta besteak beste osasun-zerbitzuetako, gizarte-harremanetako,

⁷ <http://www.vidasolidaria.com/noticias/2012-11-29/nombre-plaza-bilbao-recordara-victimas-1507.html>

eskubide ekonomikoetako eta eskubide sexual eta ugalketakoetako epe ertaineko eta luzeko inpaktuak ikustea eragozten duena.

- Erreparazio-printzipioa bere horretan ez jasotzea Espainiako estatuko araudi loteslean
- Adingabeak praktikan ez jotzea indarkeria matxistaren biktima gisa, eta dituzten eskubideak aintzat ez hartzea.

Azterketa hori egin ostean, Udalak ekintza hauek egin ditu:

- 24 orduko krisialdi-zentro bat sortzea (proiektu-fasean dago): sexu-indarkeriaren biktimezako arreta integraleko zerbitzua izango du; hasiera batean, zerbitzu horrek telefono bidezko arreta bakarrik izango du eguneko 24 orduetan, eta hortik hitzartuko dira ospitaleetara, polizia-etxeetara eta epaitegietara laguntzeko zerbitzuak. Europako estandarrek gomendatzen dute halako zentro bat izatea 200.000 emakumeko, baina Espainiako estatuan gaur egun ez dago sexu-indarkeriaren biktimei zerbitzu guztiak modu integralean eskaintzen dizkien zerbitzurik.
- Psikologoek Elkargoarekiko ituna: Psikologoentzako jarraibide zehatzak ezartzea, babes juridikoarekin, seme-alaben zaintza ukatu ez zaien guraso tratu txar emaleek ez dezaten aukerarik izan bizi izan duten indarkeriaren eraginak gainditzeko ekintza terapeutikoetatik kanpo uzteko bere seme-alabak. Madrilgo Psikologoek Elkargoarekin adostu da ez zaiela irekiko espedienterik egoera horietan dauden adingabeak

artatzen dituztenei. Izan ere, legearen arabera, arreta hori jasotzeko aukera izateaz gainera, arreta hori jasotzeko betebeharra dute. Puntu horretan ere agerian geratzen da arau jakin batzuen arteko inkoherentzia: alde batetik, legeak legezko tutorea babesten du seme-alaben inguruan har ditzakeen erabakien inguruan; bestalde, adingabeek, indarkeria matxistaren biktima gisa, estatuak babestu beharreko eskubide aintzatetsiak dituzte. Ez bada akordio bat lortzen, epaitegietan hartu beharko litzateke erabakia.

- Feminizidio-kasuen ostean krisialdi-batzordeak sortzea: Batzordearen funtzio nagusia da biktimez arduratzea, gertatutakoa ebaluatzea eta zer behar dituen detektatzea, maila guztietako erreparazio bat bermatzeko.

Batzorde bat aktibatuko da udalerrian izaten den feminizidio-biktima bakoitzeko; batzorde horietako bakoitzean, jarraian zehazten diren estamentuetako bakoitza ordezkatuko duen figura bana izango da:

- Indarkeria Matxistaren Prebentzioko eta Biktimen Arretako Zuzendaritza Nagusia (Genero Politiketarako eta Dibertsitaterako Zinegotzigoa)
- Zaharren eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusia (Ekitatea, Gizarte Eskubideak eta Enplegua Zinegotzigoa)
- Madrilgo Erkidegoko Emakumearen Zuzendaritza Nagusia
- Emakumeei Laguntza eta Babesa emateko Udaltzaingoaren Unitatea
- Osasuna, Segurtasuna eta Larrialdiak Saileko bi ordezkarari

Garrantzitsua da seme-alabak biktimatzat aitortzea, biktima gisa eskubide guztiak baitituzte; hala, laguntza psikologikoa eta gizarte-laguntzak jasoko dituzte, eta auzietan Udala pertsonatuko da.

Horretarako, prozesu guztian parte hartzen duten gainerako administrazioekin koordinatu beharko du, maila guztietan. Udalak familiei osoko laguntza emateko KONPROMISOA hartu behar du, eta erreferenziako profesionalen egonkortasuna baliatuko du horretarako.

- Memoriarako eta aintzatespenerako tokia: herritarrek indarkeria matxistaren aurka duten konpromisoa irudikatuko du. Artista profesional baten laguntzarekin, indarkeria matxistatik bizirik atera ziren emakumeen talde batek, bost saiotan, horma-irudi bat diseinatu zuen, zeinean erakusten baita emakume horientzat zer esanahi duen indarkeria matxistako prozesuak gaingitu ahal izateak.

4.5.2 / La Casa Malva. Principado de Asturias

Asturiasko Emakumearen Institutuaren Harrera Etxeen Eskualdeko Sarearen parte da Casa Malva, eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin eta haien seme-alabekin esku-hartze integralak egiteko proiektuaren baitan dago.



Sare horretan, larrialdiko harrera-etxe batzuk daude, urteko 365 egunetako 24 orduetan erabilgarri. Baina Casa Malvaren ezaugarri nagusia da bere burua ez jotzea “babesleku”tzat, hau da, emakumeak erasotzaileengandik ihesi joateko tokitzat. Casa Malvak ikusgai egiten du indarkeria matxistaren errealitatea, batez ere emakume horiei; emakume horien ahalduntzea bultzatzen du, ulertzen baitute ez direla errudunak, eta, beraz, ez dutela ezkutatzeko beharrik.

Berritzailea dela jotzen da, halaber, zenbait eremu eta zenbait gune (dibertsitate funtzionala kontuan hartuta) dituelako: gela gehiagoko edo gutxiagoko apartamentuak, eremu komunak, parkea, ludoteka, etab. Diseinu horrek emakumeen autonomia eta pribatutasuna bermatzen ditu, eta lagungarria da emakume bakoitzak eta haien seme-alabek arreta espezializatua eta diziplina anitzekoa izateko.

Zentroan sartzen direnean –ez da beharrezkoa salaketa irmoa jartzea–, harrera-fasea aktibatzen da: egoera ebaluatzen da, eta, biktimaren nahi eta beharrik kontuan hartuta, esku hartzeko prozedura ezartzen da. Gero egonaldi luzeko fasea dator, eta, horren ostean tutoretzapeko etxebizitzak. Emakume guztiak ez dira igarotzen fase guztietatik, haien egoeraren eta bilakaeraren arabera, guztiak ez baitira beharrezkoak.

Biktimekin esku hartze integrala bermatzeko oinarrizkoak dira:

- Emakumeen ikuspuntu bio-psiko- soziala

- Biktimarekin adostutako fase, momentu eta formetan arreta espezializatua eskaintzea prozesu osoan zehar.
- Aniztasun mota guztiak kontuan hartzen dituen babes integrala
- Adingabekoei bideratutako proiektu zehatza, berezko profesional ekipoa duena.

Beraien errekupeziarako esku hartzea hurrengo esparruetan burutzen da:

- Errekupeziario pertsonala
- Esparru legala
- Formazio- lan esparrua
- Esparru soziala
- Adingabekoen esparrua, hurrengo lantzen da:
 - Errekupeziario emozionala, indarkeria matxistarekiko sinismentan berreraikiz.
 - Integrazioa eta baliabidera moldatzea.
 - Familiako integrazioa.
 - Aisialdia.

Familia-inguruneak duen garrantzia dela-eta, laneko eremua zabaldu zen gero, eta familiako kide guztiak (aitona-amonak, etab.) barne hartu ziren. Gainera, emakumeekiko eta adingabeekiko esku-hartzea modu anbulatorioan ere jarrai daiteke zentrotik joaten direnean.

Biktimekiko esku-hartzea leheneratzeko prozesu global baten moduan ikusten da, arlo indibiduala (biktima bakoitzarekin), arlo familiarra (adingabeekin eta gainerako senideekin) eta arlo soziala barne direla.

4.5.3 / Bartzelonako Udala: Indarkeria Matxistaren Biktimei Arreta eta Harrera Emateko eta Biktimak Suspertzeko Zerbitzua (SARA). Bartzelona Indarkeria Matxistaren Aurka ZirkuituaCircuito Barcelona contra la Violencia Machista.

A) Udal-titulartasuneko zerbitzu anbulatorio bat da SARA, eta indarkeria matxistaren biktima diren Bartzelonako biztanleei eskaintzen dizkie zerbitzuak. Esperientzia horrek berrikuntza bat du, adinez nagusi diren emakumeak artatzeaz gainera biktima hauek ere artatzen baititu:

- Indarkeria matxistaren giroan bizi diren edo bizi izan diren haur eta nerabeak.
 - Indarkeria matxistaren giroan bizi diren edo bizi izan diren seme-alabak, amak, aitak (ez tratu txarren emailea) edo erreferentziazko zaintzaileak eskatuta doazenak zerbitzura
 - Indarkeriaren ondorioz hil diren emakumeen seme-alabak.
- Abusuzko harreman afektibo-sexualen biktima diren nerabeak (bikotearen barruan nahiz harreman esporadikoak) eta bestelako edozein motatako indarkeria matxista jasan dutenak, betiere indarkeria hori ez badute eragiten ez gurasoek ez gurasoen une horretako bikotekideek.
- LGTBI gisa identifikatzen diren eta indarkeria matxista bizi duten edo bizi izan duten pertsonak.
- Indarkeria matxistak zuzenean eragiten dien pertsonen gertuko pertsonak.

3A/2 Nola txertatu erreparazio-printzipioa tokiko ekintzetan?



Zerbitzua eskaintzen duen lagile kopurua 42 pertsonetara igo da, hauek modu distiplinartekoan lan egiten dute eta bakoitzak larrialdietan esku hartzeko gaitasuna du. Hurrengoak bilduz:

- Haurtzaroko hezitzaileak
- Gizarte Langileak
- Emakumeen edota pertsoa helduen psikologoak
- Haurtzaroko psikologoak
- Lan orientazioa
- Abokatutza
- Administrazio lana
- Zuzente eta koordinazioa

Arriskua baloratzeko tresna propio bat du SARAK (RVD-BCN), baina tresna hori eguneratzeko beharra ikusten da, bikote heterosexualetako indarkeriaren kasuan bakarrik balio baitu. Bestalde, eskala hori ez dator bat psikologian eta indarkeria-mota horretan espezializatuta dauden epaitegietako langileen artean erabiltzen diren tresnekin; esate baterako, SARAK inpaktu psikosoziala baloratu nahi du, eta epaitegietan indarkeriazko gertaeraren delituzko inpaktuak aztertzeari ematen zaio garrantzia.

Arriskua baloratzearen inguruko batasun falta hori lehenbailehen konpondu beharreko arazo bat da; horretarako, tresna berriak sortu

beharko dira modu koordinatuan, ikuspegi profesional guztietatik beharrezkotzat jotzen dituzten parametro guztiak barne hartzeko.

SARAREN lan-metodologiaz ari garela, adierazi behar da zerbitzu horrek egiteko garrantzitsua duela egoera larrian dauden biktimak harrera-etxeetara bideratzeko zubi gisa (baliabide publikoak izan daitezke, edo udalarekin hitzarmena duten baliabide pribatuak). Lehenengo fase horren ostean, egonaldi luzea da hurrengo urratsa, emakumeak berme guztiak (pertsonala, familiarra, lanekoa, soziala, etab.) dituen bizimodua berreskuratzea posible den bitartean. SARAK osoko laguntza ematen dio biktimari, eta hari lagun egiten jarraitzen du behar duen guztietan, bai eta dagoeneko zentro espezifiko horietan bizi ez denean ere. Harrera-zerbitzu horiek eta SARAK eskaintzen dituen bestelako zerbitzuak erabili ahal izateko, ez da beharrezkoa alde aurretik salaketa jartzea.

SARA zerbitzura kanpo kontsulta jasotzeko doazen bikatimak, hurrengo zerbitzuak dituzte:

- Maila indibidualean
 - Informazioa eta aholkularitza.
 - Bizitako indarkeriatik errekonstruzio tratamendu pertsonalizatu eta integrala, biktimaren beharrezkoak aintzat hartuz.
 - Beharrezkoa denean, babes zerbitzu edota bestelako indarkeria matxistaren zerbitzu espezifikoetara sarbidea.
 - Lan merkatuan sartzeko zerbitzuak.
-

- Talde mailan
 - Taldeko tratamendua, banakakoaren beharrinak kontuan hartuz.
- Maila sozio- komunitarioan
 - Prebentzio eta sentsibilizazio soziala.
 - Indarkeria matxistan esku hartzen duten beste zerbtzuetako profesionalen aholkularitza eta babesa.

B) Indarkeria Matxistaren kontrako Bartzelonako Zirkuitoa proiektu bat da. Honen helburua erakundeen arteko kolaborazio eta koordinazio sistema mantentzea da, esku hartzen duten agenteen artean, indarkeria matxistaren prebentzioan, detekzioan, atentzioan, errekupeazioan eta biktima diren emakume eta beraien seme alaben erreparazioan.

Esparru sanitario, sozial, polizial, judizial eta hezkuntzan lan egiten duten profesionaleri zuzendua dago, sarean lan egitea eta indarkeria matxista mota guztiei aurre egiteko erantzunkidetasun helburua jarraituz.

4.5.4 / Beste esperientzia batzuk

2019ko urtarrilean, Sevillako Udalak iragarri zuen Ana Orantesi eskainiko diola kale bat. 1997an, Anak senarra salatu zuen jendaurrean telebista-programa batean, eta senarrak hil egin zuen. Haren kasua mugarria izan zen bikote-harreman askotan indarkeria matxista egotearen errealtatearekiko gizarte-sentsibilizazioari dagokionez.

Bestalde, zenbait hiritan (besteak beste, Jaén, Zaragoza, Santiago de Compostela, Almería, etab.), estatuak jarri ziren genero-indarkeriaren errealitatea gogorarazteko. Kasu horietako batzuetan, batez ere talde feministek kritikak egin dituzte, obra horien diseinuak emakumeak berbiktimizatzen dituela ulertu baita.

Casa Museo Hermanas Mirabal museo-etxea 1994an sortu zen, Patria, Minerva eta M.^a Teresa Mirabalen bizilekua izan zen etxean; Trujillok hil zituen hiru ahizpak, 1960ko azaroaren 25ean. Museo-etxea haiek gogorarazi nahi ditu, haien bizitzaren eta defendatu zituzten printzipioen omenez. Museoak zenbait eremu ditu; besteak beste, liburutegi bat. Bizilekuaren lorategietan, panteoi bat dago, non haien hondakinak baitaude. Dominikar Errepublikan ere Mirabal ahizpen oroimenezko obeliskoa dago, 2011n inauguratutakoa.

Indarkeria matxistaren errealitatea agerian jartzen duten azterlanen/txostenen argitalpena

Zenbait erakundek (adibidez, Amnesty International) egin dituzten azterlanetan, emakume askok era guztietako testuinguruetan jasaten dituzten indarkeria matxistako zenbait egoera aipatzen dira. Halako azterlanak egitea neurri erreparatzaile bat da, egoera hori agerian jartzen dutelako, eta egia ezagutarazten..



Emakume biktimen eta bizirik ateratakoen elkarteen jardunaldia

2018an, Bizirik elkarteak, Vitoria-Gasteizko Udalarekin batera, jardunaldi bat antolatu zuen. 2016tik, urtero egiten dute jardunaldi hori indarkeria matxistako egoeretatik bizirik atera diren emakumeen Estatu osoko elkarte ugari, “Juntas somos más fuertes” goiburupean.

Topaketa horien helburu nagusia da sareak eta sinergiak sortzea, gu talde gisa abiapuntutzat hartuta aurrera egiteko. Helburu hori erdiesteko, gune bat sortu da elkarteak elkarriketan aritzeko eta bakoitzaren errealitatearen arabera izandako esperientziak trukatzeko.

Jardunaldi horiek agerian jartzen dute errealitate hori, eta bizirik ateratako emakumeak autonomiarantz eta ahalduntzerantz eraldatu daitezten sustatzen dute.

Erreparazio-printzipioari eragiten dioten esparruarekin erlazionatutako ekimen horiek orain arte zenbat egin den aurrera eta zer dagoen egiteko erakusten dute.

Gidari amaiera eman aurretik, ezin utzi aipatu gabe hura sortzeko saioetan adierazitakoa. Saio haiek berdintasuneko teknikariak dituzten 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriekin nahiz handixeagoekin egin ziren, eta haietan nabarmendu zen beharrezkoa zela emakume biktimei eta bizirik ateratakoek laguntza eta arreta ematen dieten teknikariak trebatzea. Ikuspegi feminista duen kalitateko prestakuntza eman behar

zaie, erreparazio-printzipioa eguneroko lanean txertatuz joan dadin. Politikariak ere trebatu behar dira, printzipio hori zuzendu eta sostenga dezaten, indarkeria matxistak esparru guztietan dituen adierazpen guztiak desagerrarazten aurrera egiteko eta haien oinarri diren egiturak hankaz gora jartzeko.

Egiaren eta barkamen-eskaera publikoen batzordeak

Egiaren batzordeak iraganean giza eskubideak urratu dituzten gertakariak eta haien arrazoiak eta ondorioak argitzeko asmoz sortu ziren. Erakunde ofizialak dira, ez-judizialak eta indarraldi mugatukoak, eta giza eskubideen ikuspegitik egiten dute lan; biktimengan eta bizirik ateratakoengan jartzen dute arreta.

Nahiz eta penalki ezin duten erantzukizunik edo zigorrrik ezarri, haien ikerketak prozesu judizialetan erabil daitezke, justizia penalak egindako lanaren osagarri gisa. Haien lana funtsezkoa izan da emakumeen giza eskubideak urratu direnetan, nagusiki gatazken ondoren. Nabarmentzekoa da Kolonbiako Egiaren eta Emakumeen Memoriaren Batzordea, agerian jarri baitzuen emakume horietako askok jasan behar izan zuten egoera.

Barkamen-eskaera publikoak egiten direnean (maiz egiaren batzordeen lanari lotuta), kaltegileek publikoki onartzen dute biktimen aurrean

indarkeria eragin dietela; hala, agerian gelditzen da egia. Indarkeria matxistako kasuetan, neurri erreparatzaile honek garrantzi berezia hartzen du, egoera jakin batzuetan kultura patriarkalak indarkeria ez baitu indarkeria gisa ikusten; areago, biktima errudunetsi ere egiten du gertatutakoaz.

Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia (Mugarik Gabe)

Erakunde sozialek auzitegi sinbolikoak sortzeari esker, besteak beste, agerian jartzen dira giza eskubideak urratzen dituzten egoerak, eta askotan egoera horietan nagusi den inpunitatea salatzen.

2013ko ekainean, emakumeen eskubideen auzitegi hau sortu zen Euskadin, 23 erakunde baino gehiagoren laguntzarekin. Helburu hauek zituen:

Desberdintasunen ondorioz, Euskal Herriko, Espainiako estatuko edota Latinoamerikako emakumeen genero indarkeria ikusgai egitea.

Sistema politiko eta judizialaren legeen definizio eta ezarpen androzentrikoa salatzea, ikuspegi politiko eta feminista bultzatuz.

Ekintza politikoaren bidez, emakumeen ahalduntze kolektiboan laguntzea, baita emakumeen eta mugimendu feministaren onarpenean ere.

Diotenez, hiru arlotan urratzen dira emakumeen eskubideak; besteak beste, indarkeria sexistarenean. Auzitegia era guztietako profilek osatzen dute (nazioarteko epaimahaia, nazioarteko behaketa, ohorezko gonbidatuak, adituak eta bizirik ateratako emakumeak), eta zenbait kasuren epaiketa hartu zituen ardatz gisa.

Webguneak, blogak, etab. sortzea

Beste erreparazio-neurri bat da erakundeek emakumeen aurkako askotariko indarkeria-egoerei buruzko albisteak, artikulatuak, etab. argitaratzea beren webguneetan, errealitate hori agerian jartzeko. Hona hemen webgune horien adibide batzuk:

- <https://www.womenslinkworldwide.org/>
- <https://yaeshora.cladem.org/index.html>
- <https://www.fundacionanabella.org/>

4^a atala

**/ Bibliografia,
webgrafia eta
eranskinak**



/ Bibliografia eta webgrafia

Bibliografia

- Espainiako Abokatutza: Guía de buenas prácticas de la abogada/o de la mujer víctima de violencia de género. Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Orokorreko Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Azpibatzerdea. 2017.
- Álvarez García, M.^a Ángeles et al.: Manual de atención psicológica a víctimas de maltrato machista. Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofiziala. Donostia. 2016.
- Arartekoa: Egia, justizia eta ordaina diktadura frankistaren biktimentzat: esanahia eta politika publikoak Euskal Autonomia Erkidegoan. Eusko Jaurlaritza. 2012.
- Argituz, Giza Eskubideen aldeko Elkartea: Txostena: Bizkaiko landa-ingurunean genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek laguntza, arreta eta justizia zerbitzu zein prestazioetarako benetako sarbidea izateko dituzten beharriak eta oztopoak identifikatzea. 2015.
- Benito Elías, Judit: Una aproximación a la satisfacción de mujeres víctimas de violencia de género sobre los recursos disponibles en la ciudad de Girona. Miguel Hernández Unibertsitatea. Bartzelona, 2014.
- Gipuzkoako Foru Aldundia: Gipuzkoako udalerrietan indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko protokolo eredu. 2018.
- Emakunde: “Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zergibituetako profesionalentzako gida”. Vitoria-Gasteiz.2006.
- Emakunde: Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak: Bizipenak eta eskariak. Vitoria-Gasteiz 2012.



- Emakunde: “Emakumeen aurkako indarkeria ematen denerako jendaurreko jarduerarako gomendioak”. Vitoria-Gasteiz.2014.
- Udalerrri eta Probintzien Espainiako Federazioa. Berdintasun Arloa. Propuesta de intervención integral en el ámbito local contra la violencia sobre la mujer. Madrid. 2012.
- Gallego, Mar et al.: Experiencias exitosas. Mujeres que han roto el ciclo de violencia. Violencia basada en género en la relación de pareja. Género Indarkeriaren aurkako Programa Osoa. Bogotá. 2011.
- Humanas. Giza Eskubideen eta Género Justiziaren Eskualdeko Zentroa: Sin tregua. Políticas de reparación para mujeres víctimas de violencia sexual durante dictaduras y conflictos armados. Santiago. 2012.
- Andaluziako Junta. Intervención profesional con mujeres víctimas de violencia de género en el ámbito de la educación. Berdintasuneko Kontseilaritza. 2009.
- Emakumearen Kanarietako Institutua: Guía para la atención a menores víctimas de violencia de género. 2007.
- Mendía, Irantzu et al.: Género y justicia transicional. Movimientos de mujeres contra la impunidad. Hegoa. 2017.
- Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa: Guía de derechos de las mujeres víctimas de violencia de género. Madrid. 2016.
- Bizkaiko Género Indarkeriaren Behatokia. Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien II. eskuliburua. BFA. 2010.
- Osakidetza: “Género indarkeriaren eta sexu erasoen aurrean Euskadin nola jardun jakiteko jarduketa-gida”. Vitoria-Gasteiz. 2019

-
- Red española contra la trata de personas. “Guía Básica para la identificación, derivación y protección de las personas víctimas de trata con fines de explotación”. 2008
 - Rodríguez, Ana M.^a et al.: Violencia de género: Reparación de la mujer en el post-conflicto en Guatemala. Bogotáko Unibertsitatea. 2014.
 - Ruiz López, Cristina: Justicia restaurativa y violencia de género: la voluntad de las víctimas en su reparación. UNIB Madrid. 2016.
 - Save the Children: Manual de atención a niños y niñas víctimas de violencia de género en el ámbito familiar. 2008.
 - Coruñaiko Unibertsitatea: Impacto de la violencia de género sobre niños, niñas y adolescentes. Guía de intervención. Lan eta Gizarte Segurantzaren Eskualdeko Idazkaritza. 2011.
-

Webs

http://www.bizkaia.eus/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_dokumentuak.html

<https://www.es.amnesty.org/en-que-estamos/noticias/noticia/articulo/el-estado-debe-garantizar-una-vida-sin-violencia-para-todas-las-mujeres-y-las-ninas-1/>

<https://www.es.amnesty.org/en-que-estamos/noticias/noticia/articulo/espana-declaraciones-en-el-primer-aniversario-pacto-de-estado-contra-la-violencia-de-genero/>

1/Eztabaida eta hausnarketarako gaiak

Sistema judiziala oraindik uzkur da ez bakarrik bere jardunetan genero-ikuspegia txertatzera, baizik eta baita adingabeak babestera ere. Bisita-araubideetan edo elkarguneetan aitek abusua eta tratu txarrak eragiten dituztela ezagutarazteko amek epaitegietan jartzen dituzten salaketak itxuraz ez dira kontuan hartzen, nahiz eta legalki erantzun zaien; sistema patriarkalaren ondorioa ere bada hori, ez baititu ez entzuten ez kontuan hartzen emakumeen eta adingabeen beharrak eta kezkak. Bere seme-alaben ongizatearen eta bizitzaren gainetik bikotekidea kaltetu nahi duen gizon bat inoiz ez da izango aita ona.

Oraindik ere, esparru askotan pentsatzen dute emakumeari tratu txarrak ematea ez dela bateragarria aita arduratsua izatearekin. Hortaz, adingabeak aita erasotzaileek darabilten beste menperatze-estrategia baten parte dira; estrategia horren helburua da kultura matxistak ezarritako ordenari mehatxu eta erasoen bidez eustea.



1/2004 Lege Organikoak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren esparrukoari esaten dio emakumeen aurkako indarkeria. Hortaz, Espainiako estatuan, nazioarteko arauen (Istanbuleko Hitzarmena) eta arau autonomikoen (Berdintasunerako Euskal Legea) arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakume batzuek ez dituzte kaltegiea bikotekidea edo bikotekide ohia izan dutenen eskubide berberak. Estatuaz gaindiko araudia (eta autonomikoa) kontuan hartuta, administrazioek eskubideak betetzen direla ere ziurtatu behar dute.

Udal eta udalen gaindiko protokoloak koordinatzeko orduan zailtasunak egoten dira. Askotan, kontraesanak egoten dira bata bestearen artean; beste batzuetan, lan jardute mugak polizia (Ertzaintza), Osasun zerbitzuena (Osakidetza) eta Judizialak ez dute bat eginten. Ondorioz, koordinazio falta eta eraginkortasun hutsuneak egoten dira.



1/2004 Lege Organikoak, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoak, eskaintzen duen esparrua ez da erreferentzia egokia, aipatzen dituen kasuak eskasak baitira eta zaharkituta baitaude sexu-identitateen aniztasunari dagokionez. Mugimendu feministak kontzeptu ugari eskaini ditu, eta kontzeptu horiek landu beharreko indarkerien inguruko begirada zabaltzen dute.

Amnesty Internationalen arabera: «(...)Estatu Itunak genero-indarkeriaren biktimei laguntzeari buruz biltzen dituen 69 neurrietatik, bakarra da sexu-indarkeriari buruzkoa»; oraindik ez dira genero-indarkeriatzat jotzen biktimarekin harreman afektiborik ez duten edo izan ez duten pertsonen egindako eraso sexualak. Ospitaleko lehen mailako arretak, polizia-arretak, prozedura judizialek, etab. eraso sexualen biktimekin esku hartzeko dituzten prozesuek oro har haiek errudunesten dituzte, eta ez diete erantzun egokia ematen esku-hartze gisa eta are gutxiago erreparazio gisa.

Emakume bati ezezagun batek burututako eraso, talde indarkeria bezala kontsideratu daiteke? Emakumeen aurkako egiturazko eta ingurune indarkeria dela kontuan hartuta, kasu isolatua da? Edo, Izaera sexualeko gizon matxisten indarkeria kolektiboa da emakumeen aurkakoa?

Noiz arte da biktima horrela aintzakotzat hartua? Ez dago arategi zehatzik, estamentu bakoitzaren arabera da, banakoaren egoeraren arabera baita biktimekin zuzeneko arreta burutzen duten pertsonen sentsibilizazio mailaren arabera. Gerra gairaietako egoeren berriro ez erreikatzeko bermeak indarra hartzen baduen ere (haiera eta amaiera duelako), indarkeria matxistaren kasuen ez dago argi noiz eman daitekeen bukatutzat.

Zigor Kodeak sexu-askatasunaren kontrako delitu gisa tipifikatzen ditu sexu-eraso eta -abusoak, eta sexu-erasoak eta sexu-abusoak bereizten ditu. Sexu-erasoetan, indarkeriaz edo larderiaz jokatzeko da; gutxienez alderdi horietako bat ez badago, delitua abusutzat jotzen da, eta zigor arinagoa dakar. Amnesty Internationalen arabera, bereizketa horrek arazo larriak sortzen ditu larderia zer den zehaztean, biktimak batez ere adingabeak direnean erasotzailearekiko botere-harremana berez larderia-ekintza baita.

2/ Taulak

1 Taula/ indarkeriaren definizioak

	ARAUAK/GOMENDIOAK	INDARKERIAREN DEFINIZIOA
NAZIOARTEA	Adierazpena, Nazio Batuen Asanblea orokorrarena (A/RES/40/34, 1985eko azaroaren 29koa).	Banaka edo taldean kalte edo galeraren bat jasan duen pertsona, bereziki lesio fisikoak edo mentalak, kalte emozionalak, galera ekonomikoak edo oinarritzko eskubideen kalte nabarmena, zerbait egitearen edo ez egitearen ondorioz giza eskubideen nazioarteko arauak argi eta garbi urratu badira.
	ARAUAK/GOMENDIOAK	GENERO-INDARKERIA / EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA / EMAKUMEEN AURKAKO DISKRIMINAZIOA KONTZEPTUEN DEFINIZIOA
NAZIOARTEA	Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak deuseztatzeko konbentzioaren hautazko protokoloa CEDAW. 1979ko abenduaren 18a.	Honela definitzen du emakumearen aurkako diskriminazioa: «sexuan oinarritutako diskriminazio, bazterketa edo murrizketa oro, halakoen xedea edo ondorioa denean kaltetzea edo deuseztatzea (politika-, ekonomia-, gizarte- nahiz kultura-esparruetan, esparru zibilean edo beste edozein esparrutan) emakumeari aitortutako giza eskubide eta oinarritzko askatasunak, eta horien izatea eta egikaritzea, haren egoera zibila gorabehera, gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna oinarri».
	Emakumeen aurkako indarkeria saihesteari buruzko adierazpena. NBEko batzar nagusiaren 48/104 Ebazpena, 1993ko abenduaren 20koa.	Bestalde, honela definitzen du emakumearen aurkako indarkeria: «emakumezko izatea oinarri duen edozein indarkeria, edo emakumeei kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa

	ARAUAK/GOMENDIOAK	GENERO-INDARKERIA / EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA / EMAKUMEEN AURKAKO DISKRIMINAZIOA KONTZEPTUEN DEFINIZIOA
NAZIOARTEA		<p>eragin diezaiekeena. Horren barruan hartzen dira aipatutako ekintza horien mehatxuak, derrigortzea edo arbitrarioki askatasuna kentzea, publikoan zein pribatuan gertatuta ere».</p> <p>Hauek hartzen ditu barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Familiako indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa, nesken etxeko sexu-abusua, ezkonsariarekin erlazionatutako indarkeria, senarrak eragindako indarkeria, emakumeen genitalen mutilazioa eta emakumeen aurkako beste ohitura batzuk, senarra ez beste pertsona batzuek eragindako indarkeria eta esplotazioarekin erlazionatutako indarkeria. • Oro har komunitatean eragindako indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa, baita lanean, hezkuntza-erakundeetan eta beste esparru batzuetan eragindako bortxaketak, sexu-abusuak, jazarpena eta sexu-larderia ere, emakumeen salerosketa eta behartutako prostituzioa. • Estatuak eragindako edo onartutako indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa, edonon gertatzen dela ere.
EUROPA	Istanbuleko Hitzarmena, 2011, 2014ko abuztuan berretsi zuen Espainiako estatuak	A) Emakumeen aurkako indarkeria: giza eskubideen urraketa da, eta emakumeak diskriminatzeko modu bat; generoan oinarritutako indarkeria mota oro izango da, eta hauek eragiten dizkiete edo eragin ahal

	ARAUAK/GOMENDIOAK	GENERO-INDARKERIA / EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA / EMAKUMEEN AURKAKO DISKRIMINAZIOA KONTZEPTUEN DEFINIZIOA
EUROPA		<p>dizkiete emakumeei: «izaera fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoko kalteak nahiz pairamenak, ekintza hauek gauzatzearen mehatxuak, hertsatzeak nahiz bizitza publiko edo pribatuan askatasuna arbitrarioki kentzea barne».</p> <p>B) Etxeko indarkeria: familian, etxebizitzan, ezkontideek edo ezkontide ohiek nahiz izatezko bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindako indarkeria fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoa; ez da kontuan hartzen ea erasotzailea eta biktima elkarrekin bizi diren edo bizi izan diren.</p> <p>C) Generoa: emakume eta gizonen gizarte bakoitzean ezartzen zaizkien jokabide, ekintza, rol eta abileziak dira, eta gizartearen arabera gizon edo emakume izate hutsagatik batzuei eta besteei dagozkie.</p> <p>D) Generoan oinarrituta dagoen emakumeen aurkako indarkeria: emakumeei emakume izateagatik eragiten dien edo nagusiki haiei eragiten dien indarkeria oro da.</p>
ESTATUA	Estatua 1/2004 Lege Organikoa, Genero-indarkeriaren aurka oso-oso babesa emateko neurriei buruzkoa	<p>Genero-indarkeria: Diskriminazioaren eta desberdintasun-egoeraren adierazpena da gizonen emakumeak menderatzeko duten botere-harremanen sistema batean; beren ezkontideek edo ezkontide ohiek eragiten diete, edo haiekin antzeko harreman afektiboren bat dutenek edo izan dutenek (nahiz eta elkarrekin ez bizi izan).</p>

	ARAUAK/GOMENDIOAK	GENERO-INDARKERIA / EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA / EMAKUMEEN AURKAKO DISKRIMINAZIOA KONTZEPTUEN DEFINIZIOA
AUTONOMIA	Autonomia Erkidegoa	Emakumeen aurkako indarkeria: «emakumeen
ERKIDEGOA	4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.	aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badieziaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatzatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan».

2. Taula: biktima kontzeptuaren definizioa

	ARAUAK/GOMENDIOAK	NOR DIRA BIKTIMAK?
ÁMBITO	GOMENDIOAK:	<ul style="list-style-type: none"> • Indarkeria zuzenean jasan duen pertsona oro, alde batera utzita eskubideak urratu dituen identifikatu, harrapatu, epaitu edo zigortu duten edo zer familia-harreman dagoen biktimaren eta erasotzailearen artean. • Hurbileko familia edo ardurapeko pertsonak. • Biktimari laguntzean edo eskubideak urra ez zitezen saiatzean kalteren bat jasan izan lezaketen pertsona guztiak.
INTERNACIONAL	Adierazoen, Nazio Batuen Asanblea orokorrarena, A/RES/40/34, 1985eko azaroaren 29koa. (Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak deuseztatzeko konbentzioaren hautazko protokoloa) CEDAW. 1979. 1983an berretsi zuen Espainiako estatuak.	Emakume izateagatik soilik edozein eratako indarkeria jasaten duten emakumeak.

2. Taula/ biktima kontzeptuaren definizioa

	ARAUAK/GOMENDIOAK	NOR DIRA BIKTIMAK?
EUROPA	ARAU LOTESLEAK: Istanbulko Hitzarmena, 2011, 2014ko abuztuan berretsi zuen Espainiako estatuak.	Biktima: I. taularen arabera emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria gisa hartzen diren jokabideak jasaten dituen pertsona fisikoa da. Emakumea: 18 urte baino gutxiagoko neska ere barneratzen dira.
ESTATUA	ARAU LOTESLEAK: 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, genero- indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurriena.	<ul style="list-style-type: none"> • Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, alde batera utzita gertakariak salatu dituzten ala ez. • Seme-alaba adingabeak.
	1/2004 Lege Organikoa, Genero- indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa	Haien bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren biktima diren emakumeak.
	4/2015 Legea, Delituaren Biktimaren Estatutuarena.	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzeneko biktima: «bere buruaren edo ondarearen gaineko kalterik pairatu duen pertsona fisiko ororentzat, bereziki delitua egiteak zuzenean eragindako lesio fisikoak edo psikikoak, kalte emozionalak edo kalte ekonomikoak badira.» • Zeharkako biktima: «delitu batek zuzenean eragindako pertsona baten heriotza edo desagertpena dagoenean, egitateen erantzuleak badira izan ezik: <p>1.a Legez edo izatez bananduta ez dagoen ezkontidearentzat eta hiltzeko edo desagertzeko momentuan haiekin batera bizi</p>

	ARAUAK/GOMENDIOAK	NOR DIRA BIKTIMAK?
ESTATUA		<p>ziren biktimaren edo legez edo izatez banandu gabeko ezkontidearen seme-alabentzat; heriotza edo desagerketa gertatu arte biktimari afektibitatezko antzeko harremanagatik lotuta zegoen pertsonarentzat eta biktima hil edo desagertu zenean berarekin bizi ziren horren seme-alabentzat; zaintzapean zituen guraso eta ahaideentzat –lerro zuzenean edo alboko lerroz hirugarren graduaren barruan– eta haren tutoretza edo kuradoretzapean edo familia-harreraren araubidepean dauden pertsonentzat.</p> <p>2.a Aurrekorik izan ezean, lerro zuzeneko gainerako senideentzat eta anai-arrebentzat, horien artean biktimaren legezko ordezkaritza duena lehenetsita».</p>
	4/2015 Legea, Delituaren Biktimaren Estatutuarena	Genero-indarkeriaren zuzeneko biktimak izango dira mota horretako indarkeriaren biktima diren emakumeak, adingabe haien seme-alabak eta ardurapean, babespean edo zaintzapean dituzten adingabeak.
AUTONÓMICO ERKIDEGOIA	ARAU LOTESLEAK: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.	Emakume izateagatik soilik edozein eratako indarkeria jasaten duten emakumeak.

3 taula: “indarkeria” mota eta “biktima” kontzeptuaren korrelazioa (2.1 puntuaren arabera)

KONZEPTUA	EREFERENTZIA	DEFINIZIOA	NORTZUK DIRA BIKTIMAK?
Genero Indarkeria	1/2004 Lege Organikoa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa	LDiskriminazioaren eta desberdintasun-egoeraren adierazpena da gizonek emakumeak menderatzeko duten botere-harremanen sistema batean; beren ezkontideek edo ezkontide ohiek eragiten diete, edo haiekin antzeko harreman afektiboren bat dutenek edo izan dutenek (nahiz eta elkarrekin ez bizi izan)	<ul style="list-style-type: none"> • Mujeres víctimas de sus parejas o exparejas.
	9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurriena.		<ul style="list-style-type: none"> • Gertaerak salatu dituzten emakumeak edo ez dituzten genero indarkeriaren biktimak • Adingabeko seme alabak
Emakumeen aurkako indarkeria	4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa	Emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeak.

KONZEPTUA	EREFERENTZIA	DEFINIZIOA	NORTZUK DIRA BIKTIMAK?
Emakumeen aurkako indarkeria		edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaiokie. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatzatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan	• Emakumeak.
Generoaren araberako emakumeen aurkako indarkeria	Istanbuleko Hitzarmena, 2011	Giza eskubideen urraketa ta. Emakumeek jasaten dute emakume izateagatik eta alde handiagoan eragiten die	• Emakumeak.
Indarkeria matxista	2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako. GFA, 2015.	Kontrol, eraso, bazterketa, egiturazko ezarpen zuzena eta sinbolikoa, alde batetik, sexu-genero-sexualitatearen estereotipoak hertsatzen dituzten pertsonengan; beste alde batetik, gorputzaren ganako	• Heteroarauak jarraitzen ez dituzten emakume eta pertsonak.

3 taula: “indarkeria” mota eta “biktima” kontzeptuaren korrelazioa
(2.1 puntuaren arabera)

KONZEPTUA	EREFERENTZIA	DEFINIZIOA	NORTZUK DIRA BIKTIMAK?
Indarkeria matxista	2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako. GFA, 2015.	kontrola, aurreko arauak hertsatzen ez badituzten ere, beraien gaineko boterea jasaten dutenak, hau da, emakumeak.	• Heteroarauak jarraitzen ez dituzten emakume eta pertsonak.
Emakumeen aurkako indarkeria matxista		Emakumeei bideratua dagoen indarkeria matxista, maskulino bezala aintzakotzat hartuak diren ezaugarri desberdinak izateagatik.	• Emakumeak, neska eta emakume zisexualak eta transexualak
Indarkeria sexista	2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako. GFA, 2015.	Sexu- genero sistema tradizionalan “emakume” bezala sinbolizatuak diren gorputz guztiak jasaten duten indarkeria	• Emakume guztiak, ez egiten dutenagatik baizik eta direnagatik eta irudikatzen dutenagatik. direnagatik eta irudikatzen dutenagatik

3/ Fitxak

1 Fitxa

Udalen jardueretan erreparazio-printzipioaren aplikazioa diagnostikatzeko fitxa

PRINTZIPIOAK	ALDERDIAK	BAI	EZ
LEHENERATZEA	• Ba al dago indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko udal-protokolorik?		
	• Bermatzen al da biktimen mugimendu-askatasuna?		
	• Bermatuta al dago giza eskubideez baliatzea?		
	• Egokia al da biktimen bizi-kalitatea?	¿En qué?	
	• Hartzen al dira kontuan zeharkako biktima posibleak (senideak, hezkuntza-ingurunea, lan esparrua...)?	¿Cuáles?	
KALTE-ORDAINA	• Udal-aurrekontuetan ba al dago partidarik biktimei kalte-ordain ekonomikoa emateko?		
	• Ba al dago esparru hauetan aukerak galtzeagatik kalte-ordaina emateko protokolorik? - Enplegua - Hezkuntza - Prestazio sozialak?		
	• Hartzen al da kontuan biktimek beren beharrei buruz adierazten duten iritzia?		
	• Biktimak zuzenean artatzen dituzten udalerriko langileek ba al dute zeregin horretarako prestakuntza espezifikoa? - Zerbitzu medikoak - Gizarte-zerbitzuak - Udaltzaingoa		

PRINTZIOAK	ALDERDIAK	BAI	EZ
ERREHABILITAZIOA	• Bermatuta al dago biktimen intimitatea udal-zerbitzu eta udalez gaindiko erakunde guztietan?		
	• Ba al daude era honetako arreta ematen duten udal-zerbitzuak?:		
	- Psikologikoa		
	- Juridika?		
	Foru-zerbitzuetara joz gero:		
	• Ba al dago biktimei esparru hauetan laguntzeko zerbitzurik?		
	- Ekintza/Zerbitzu judizialak		
	- Arreta psikologikoko zerbitzuak		
	- Hurrekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak		
	• Udalerrian ba al dago indarkeriaren biktima diren emakumeekin lan egiten duen honelakorik		
	- Ahalduntze eskola		
	- Emakumeen elkarteak		
	- Bizirik ateratako emakumeen elkarteak		
	Indarkeriaren biktimak diren emakumeekin lan egiten duena?		
Halako elkarterik egonez gero:			
• Ba al dago koordinaziorik haien eta hauen artean?			
- Udala			
- Zerbitzu medikoak			
- Gizarte zerbitzuak			
- Udaltzaingoa			
- Ertzaintza?			
• Jasotzen al dute udalaren diru-laguntza edo bestelako laguntzarik?			
• Hartzen al da kontuan aniztasunaren faktorea?			
- Kultural			
- Funtzionala			
- Sexuala			
- Generokoa			

PRINTZIOIOAK	ALDERDIAK	BAI	EZ
GOGOBEETZEA	<ul style="list-style-type: none"> • Udallerriak gauzaten al ditu edo gauzatu al ditu gizarte erreparazioa sustatzeko ekintzak (adibidez, omenaldiak, ekitaldiak, etab.)? 	Zein?	
	Adierazpen ofizialetan:		
	<ul style="list-style-type: none"> • Biktimak ez errudunesteko moduan tratatzen al da informazioa? 		
	<ul style="list-style-type: none"> • Bere nahi/ intimitate eskubidea bermatzen duen informazioaren tratamendua egiten da? 		
	<ul style="list-style-type: none"> • Ba al dago egia aurkitzeko asmorik? 		
BERRIRO EZ GERTATZEKO BERMEA	<ul style="list-style-type: none"> • Ba al dago esku-hartze zuzeneko profesionalen eta politikarien arteko koordinazioa bermatzen duen protokolorik 	Zer profesionalen artean?	
	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak berariaz baztertzen al du era guztietako indarkeria matxista? 		
	<ul style="list-style-type: none"> • Programatzen al dira herritarrak indarkeria matxistaren arloan sentsibilizatze/prestatzeko ekintzak? 	Zein? Zer maiztasunekin?	

2 Fitxa

Udalen jardueretan erreparazio-printzipioaren aplikazioa bermatuko duten ekintza posibleak ezartzeko fitxa

PRINTZPIOAK	DIAGNOSTIKOKO ERREFERENTZIAKO ALDERDIA	EKINTZAK
LEHENERATZEA		1/
		2/
		...
KALTE-ORDAINA		1/
		2/
		...
ERREHABILITAZIOA		1/
		2/
		...
GOGO BETETZEA		1/
		2/
		...
BERRIRO EZ GERTATZEKO BERMEA		1/
		2/
		...

ARLOA/ARDURADUNA	HAUEKIN KOORDINATUTA	PRINTZIOIAK
		LEHENERATZEA
		KALTE-ORDAINA
		ERREHABILITAZIOA
		GOGO BETETZEA
		BERRIRO EZ GERTATZEKO BERMEA



4/ Erreferentziako dokumentuak

/ Amnesty International: España. Una vida sin violencia para mujeres y niñas. Las otras víctimas de violencia de género: Violencia sexual y trata de personas. 2009.

/ Nazio Batuen Erakundeko batzar nagusia: “Declaración sobre los principios fundamentales de justicia para las víctimas de delitos y del abuso de poder”. (A/RES/40/34, de 29 de noviembre de 1985)

/ Nazio Batuen Erakundeko batzar nagusia: “Principios y directrices básicos sobre el derecho de las víctimas de violaciones manifiestas de las normas internacionales de derechos humanos y de violaciones graves del derecho internacional humanitario a interponer recursos y obtener reparaciones”. Resolución 60/147, de 4 de diciembre de 2005.

/ Nazio Batuen Erakundeko batzar nagusia: “Protocolo para prevenir, reprimir y sancionar la trata de personas, especialmente mujeres y niños, que complementa la Convención de las Naciones Unidas contra la Delincuencia Organizada Transnacional”. 2003

/ Andoingo Udala: Indarkeria matxistatik bizirik ateratako biktimen artatzerako esku-hartze eta erakundeen arteko koordinazio-protokoloa. 2019ko apirila.

/ Andoaingo Udala: Indarkeria matxistatik bizirik ateratakoen eta biktimen artatzerako eta erantzun publikorako akordio politikoa. 2019ko apirila.

/ Vitoria-Gasteizko Udala: Vitoria-Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Plana. 2018-2021.

/ Urdulizko Udala: Emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Udal Ordenantza. 2018.

/ Giza Eskubideetako Munduko Konferentzia: "Vienako Adierezpena eta Egintza Programa". 1.993ko ekainaren 23a.

/ Arabako Foru Aldundia: Arabako gizonen eta emakumeen berdintasunerako IV. Foru Plana. 2016-2020.

/ Gipuzkoako Foru Aldundia: Indarkeria Matxistari, Gipuzkoako Foru Aldundian erabilitako terminologiari eta horren oinarria den azterketari buruzko agiria. 2014ko ekaina.

/ Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saila: "Berne koordinazioko protokoloa, suspertzeko eta gogoeta egiteko aldiaren dauden sexu esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimei laguntzekoa". 2011

/ González E., Varney H. et al.: En busca de la verdad. Elementos para la creación de una comisión de la verdad eficaz. Brasilgo Justizia Ministerioko Amnistia Batzordea. 2013.

/ Guardiola Lago, M.^a Jesús: “La víctima de violencia de género en el sistema de justicia y la prohibición de la mediación penal”. Revista General de Derecho Penal, 12. zk., 2009.

/ Durangaldeako Mankomunitatea et al: Indarkeria matxistatik bizirik ateratako biktimen artatzerako esku-hartze eta erakundeen arteko koordinazio-protokoloa: IV. eranskina. 2019

/ Mercedes Martínez León et al: “Evolución legislativa de la violencia de género desde el punto de vista médico-legal en el marco normativo internacional y nacional”. Revista de la Escuela de Medicina Legal. 2010.

/ Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa: Estudio para el intercambio de buenas prácticas e instrumentos legales en la lucha contra la violencia de género entre Noruega, Islandia y España con referencia a la normativa existente en los países de la Unión Europea. Madril. 2015eko ekaina.

/ Mugarik Gabe: Asfalto arteko loreak. Indarkeria matxisten kausak eta eraginak biziraun duten emakume biktimen bizitzetan. 2017

/ Mugarik Gabe: Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia. Viena +20. Euskalherria 2013.

/ NBE Emakumeak: “Manual de legislación sobre la violencia contra la mujer”. 2019

/ Nazioarteko Lan Erakundea: Indarkeriari eta jazarpenari buruzko C19 Hitzamena. 2019

/ Nazio Batuen Erakundea: “Declaración de Nairobi sobre el derecho de mujeres y niñas a anteponer recursos y obtener reparaciones. 2007ko martxoan.

/ Kolonbiako Errepublikako presidentetza. “Ley 1448 de 2011 por la cual se dictan medidas de atención, asistencia y reparación integral a las víctimas del conflicto armado interno y se dictan otras disposiciones”. 2011.

/ Save the Children: En la violencia de género no hay una sola víctima. Atención a los hijos e hijas de mujeres víctimas de violencia de género. 2011.

/ UNED: El Derecho de reparación a las víctimas en el Derecho Internacional. Un estudio comparativo entre el Derecho Internacional de responsabilidad estatal, y los principios básicos de reparación de víctimas de Derechos Humanos. 2010.

